



Euskaraz hazten eta hezten segitzeko festa

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren Jaia ospatuko dute, lehen aldiz, zapatuan Eskoriatzan / 2

Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeko ikasleak, eskolako patioan, jairako dei egiteko propio antolatutako argazki-saioan. XABIER URZELAI



Bergarako UNEDek gaur hasiko du ikasturtea, goitik behera berritutako egoitzan / 8

Arrasateko "herri mugimenduan dagoen hutsunea" bete gura duen Jaiki taldea sortu dute / 14

The Potes taldeak Jul Bolinaga omenduko du zapatuan Bergaran, Txapa Irratiaren jaian / 28

SINADURAK

 INIGO MURGIONDO / 10	 DAMIAN MADINABEITIA / 26
 ENEKO FERNANDEZ / 14	 ELIAS ZUMALDE / 34
 MAIDER ALDAI / 19	 MIKEL IRIZAR / 48



Debagoiendar bi kostaldera, olatuen bila

Bularreko minbizia: Ghizlane Boussaid-i elkarriketa

T-ROC BERRIA



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoas etorbidea, 36 • ARRASATE • 843 71 18 70





Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolakoak, zapatuan Eskoriatzan egingo den Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren lehenengo jaira doazenei ongietorria egiteko talde argazkian. XABIER URTZELAI

Eskola publikoa sustatzeko jaia

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren jaia bihar izango da, zapatua, Eskoriatzan. Egitarau ederra prestatu dute, eta, 'Hezi eta hazi' lelopean, eskola euskalduna, inklusiboa eta plurala den mezua helaraziz, eskola publikoaren eredua aldarrikatuko dute

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren lehen jaia bihar, zapatua, izango da, Eskoriatzan. Hala, egitarau zabala prestatu dute eskualdeko guraso elkarteek eta Baikarak elkarlanean.

Ez da kasualitatea jaia Eskoriatzan egitea; izan ere, eskola publikoaren matrikulazioen portzentajea herri horretan jai-

tsi da nabarmen. "Eskola publikoaren balioak nabarmendu nahi ditugu, matrikulazioak asko jaitsi direlako, orokorrean. Eskoriatzan, ikasleen %30 matrikulatzen dira eskola publikoan; beste hainbat lekurekin alderatuz, nabarmen gutxiago", adierazi du Antonio Regañok, Koldotxo Guraso Elkartearen lehendakaria.

Zapatuko jaia Euskal Eskola Publikoaren jaiarekin bateragarria dela gaineratu du Regañok: "Zapatukoarekin ez dugu ekainaren 2an Oreretan egingo den festa eklipsatu nahi. Guztiz kontrakoa; egun horri begira, jende gehiago batu nahi dugu. Izan ere, iaz, sei autobus irten ziren Arrasatetik eta aurten, gehiago batu nahi ditugu".

'Hezi eta hazi' lelopean

2012-2013 ikasturtean Luis Ezeiza Herri Eskolak sortutako kantaren izenburuaren lelo bera izango du festak: *Hezi eta hazi*. Eskola euskalduna, inklusiboa, anitza, eta plurala den mezua helarazi nahi dute kanta horrekin, eta asmoa da eskola publikoa bultzatzea, eskola publikoa osatzen duen komunitate guztiari babesa adieraztea eta eskola publikoa lehenestea. Hori horrela, bailarako eskola guztietatik joango dira, bihar, eskola publikoaren eredua aldarrikatzera.

Egunari hasiera emateko, harrera ekitaldia egingo dute, 11:00etan, plazan. Koldotxo Guraso Elkartearen lehendakariak, Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak eta Luis Ezeizako irakasle, guraso eta ikasle banak berba egingo dute eta ikasle batzuek aureskua dantzatuko dute. Gero, *flasmob* erraldoia izango da, eta, hori amaitzean, trikitilariak lagunduta Luis

Ezeizako eskolarako bidea hartuko dute, Debagoieneko eskola bakoitzak bere pankarta patio-ko hesian jarri dezan. Ekintza horrekin, beste gune guztietako egitarauari irekiera emango diote.

Elkarlanean garrantzia

Jai hori aurrera eramateko, Debagoieneko eskola publiko guztiak, Baikara, Eskoriatzako Udala eta Koldotxo Guraso Elkarteak daude, baina lan handiena Debagoieneko gurasoen, irakasleen eta ikasleen lan boluntariotik datorrela adierazi du Regañok: "Finantziarioa garrantzitsua bada ere, denon elkarlana da azpimarratzekoa. Horrez gainera, festa antolatze-

**EUSKAL ESKOLA
PUBLIKOAK BAILARAN
EGITEN DUEN LANA
BALIOAN JARRI NAHI
DUTE FESTAREKIN**



Bergara
750.
urteurrena
gogoratzen

Erakusketa
Laboratorium museoan

2019ko urtarrilaren 9ra arte







ko Eskoriatzako Udalak eman-dako erraztasunak eta udal lan-gileek egindako lana ere esker-tu nahiko nituzke, eta baita babesleak ere: Auzolan, Lactu-rاله, eta abar".

Babesa adierazi diote jaiari

Eragile, norbanako eta erakun-de administratiboek ere Debagoieneko Eskola Publikoari babesa adierazi diote, eta sare sozialetan bidez hainbat izan dira horren adierazle: Amelia Barquin, Kultura arteko Hezkuntza irakaslea; Ezker Anitza-IU; Debagoieneko EH Bildu; Iñaki Perurena, harri-jasotzailea; Markel Olano, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia...

Autobus zerbitzu berezia

Garraio publikoa erabiltzeko eskaera egin dute antolatzaileek; zerbitzu berezia izango da *-Lurraldebus.eus* webgunean dago ikusgai-. Autoz joango direnei, berriz, Huheziko edo estazio zaharreko aparkalekuak erabiltzeko dei egin diete.

Zapatuko egitaraua gunez gune

Fernando Eskoriatza plaza

- **11:00** Harrera ekitaldia. Luis Ezeiza eskolako irakasle bat, ikasle bat, guraso bat eta Koldotxo guraso elkarteko Antonio Regaño izango dira bertaratuei ongietorria eskaintzen.
- **11:10** *Hezi eta hazi* eskolako dantzarekin *flashmob* erraldoia.
- **11:30** Trikitilarien laguntzarekin, Luis Ezeiza eskolako bidea hartuko dute kalejiran, eskolako hesietan pankarta batzuk jartzeko.
- **12:30** Potx eta Lotx pailazoaren ikuskizuna.
- **16:00** Bocabeats Komedia taldea.
- **17:15** DJ Moto.



Gorosarri plaza

- **11:15-13:00** Capoeira, judo eta kenpo erakustaldiak izango dira.

Jose Arana kalea

- **11:15-13:00** Tailerrak. Txapak egiteko, aurpegia margotzeko...

Santa Marina plaza

- **14:00** Herri bazkaria. Paella mistoa prestatuko dute, 600 pertsonarendako.

Zaldibar antzokia

- **15:30** Umeentzako antzerkia.
- **21:00** Ausartak antzerki taldearen *Las chicas del balneario* antzezlan.



Luis Ezeiza Herri Eskolan

- **11:15-13:00** Kirol txapelketak. Eslaloma bizikletekin, saskibaloia eta hockeya.
- **13:00-16:00** Deskarga eta Txerrikumeak taldeen kontzertuak Gaztelekuan.
- **19:00** Zea Mays taldearen kontzertua.





Debagoieneko zenbait euskal eskola publikotako guraso elkarteetako ordezkariak. IMANOL BELOKI

Elkarlanean haziz eta heziz eskola publikoan

2018-2019 ikasturtean, 5.134 ikasle matrikulatu dira Debagoieneko Euskal Eskola Publikoan, 15 ikastetxetan banatuta; Goieskola, zuzendarien elkarte, osasuntsu dago gaur egun, eta "erronka ugari" ditu, Lurdes Ugalde koordinatzailearen esanetan

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

2000n sortu zen Goieskola, Debagoieneko Eskola Publikoan Zuzendarien Elkarte, bailarako ikastetxe publikoen arteko elkarlana sustatzeko helburuarekin, eta, oraingoz, hala izaten ari da. "Ikastetxeetako zuzendariak hilabetero biltzen dira, eta osatzen duten foro horrek garrantzi handia dauka. Balio du ikastetxeetako bizitza koordinatzeko, komunitatea indartzeko

eta ikastetxeetan sortzen diren arazoei konponbidea bilatzeko", azaldu du Ugaldek.

Dagoeneko egonkortutako proiektu bat da, "aurrera" doana. "Geroz eta gauza gehiago egiten ari gara eta elkarte moduan sendotzen ari gara, aurrera goaz. Urtero egiten ditugun balorazioak positiboak izaten dira, bai zuzendaritzari dagokionez, baita kanpora begira ikastetxeek duten balioa-

ri erreparatuta ere. Elkarleak balio izan digu benetan sentitzeko oso gauza positiboak egiten ditugula, ikastetxe berritzaileak ditugula eta euskalduntze mailan lan izugarria egin dugula; eta egiten ari garela. Gainera, hasierako helburuak betetzeaz gain, geroz eta helburu gehiago ditugu, eta zuzendarien foroa beste foro batzuekin osatzen goaz", azaldu du koordinatzaileak.

'Partekatuz ikasi'

Hain zuzen ere, *Partekatuz ikasi* ekimena da beste foro horietako bat. Ugaldek azaldu duenez, "aurtengoa bosgarren ikasturtea da ekimena martxan jarri genuenetik. Ikastetxeetan egiten ditugun praktika onak partekatzea eta formakuntza bateratua eraikitzea da helburua".

Etorkizuneko erronkak

Etorkizunari begira Goieskolak hainbat erronka dituela aitortu du koordinatzaileak.

Gizarte arloan, adibidez, Euskal Eskola Publikoaren proiektua gizarteari "zabaltzea eta ezagutaraztea" da erronketako bat. "Uste dugu eskola publikoa ez dela behar den moduan ezagutzen eta, oraindik ere, duela urte batzuetako aurreiritziekin jarraitzen duela gizarteak". Horrez gain, "benetako eskola inklusiboak" izatea gura dute, "ez eskola ghettorik, ez eta eskola bunkerrik ere".

Administrazioari dagokionez, murrizketak bukatzea eta ordezkapenak eta proiektuak aurrera eramateko baliabideak ziurtatzea izango du helburu aurrerantzean Goieskolak.

Ikasleei erreparatuta, haien gaitasunean oinarritutako hezkuntza bermatu, proiektu berritzaileak garatu eta esku artean dituzten proiektuak aurrera eraman gurako lituzkete digitalizazioa, *Ethazia*, *Hauspoa*, zirkulazio librea Haur Hezkuntzan, eta abar-.

Ikastetxe mailan, azkenik, autonomia garatzea eta hezkuntza-proiektu propioak aurrera eraman ahal izatea da erronka nagusia, horretarako baliabideak bermatuta: "Irakaslariaren egonkortasuna eta inplikazioa eta zuzendaritza-talde egonkorrak".

Goieskola osatzen duten 15 ikastetxeak

Angiozar (35 ikasle)

- Herri Eskola Txikia.

Antzuola (271 ikasle)

- Herri Eskola.

Aretxabaleta (705 ik.)

- Kurtzebarri LH
Herri Eskola.
- Kurtzebarri BHI.

Arrasate (1.766 ikasle)

- Arrasate Herri Eskola.
- Arrasate BHI.
- Arrasate HHI.

Aramaio (115 ikasle)

- San Martin Herri Eskola.

Bergara (1.347 ikasle)

- San Martin Agirre
Herri Eskola.
- Ipintza BHI.
- Bergara HHI.

Elgeta (129 ikasle)

- Herri Eskola.

Eskoriatza/Gatzaga (150 ikasle)

- Luis Ezeiza Herri Eskola.

Oñati (616 ikasle)

- Errekalde Herri Eskola.
- Zuazola-Larraña BHI.





**APROBETXATU WLTP ARAUDI BERRIA ETA LORTU
NISSAN X-TRAIL BAT LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!
GAURSAN BAKARRIK.**

GAURSA Gamarrako Atea, 46 - 01013 Gazteiz - Tel. 945 26 25 01

Consumo mixto: 4,9 - 6,4 l/100 km. Emisiones de CO₂: 129 - 149 g/km. Consumo homologado de acuerdo con la normativa europea.

"Hezkuntza publikoa lehenetsi behar dugu"

USOA URBIETA BAIKARAKO KOORDINATZAILEA

Urbietak dio eskola publikoaren matrikulazio portzentajea "hobetu beharra" dagoela eta adierazi du familiek "konfiantza" begiratu behar diotela Euskal Eskola Publikoari

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa da eta Urbietak, koordinatzailea. Federazioaren eta Euskal Eskola Publikoaren egoeraz jardun du. **Lehen aldia da jai hau Debagoiengan egingo duzuen.**

Debagoiengan, eskola publikoaren aldeko jai berezia antolatze-ko gogo zegoen. Bailerako eskola publikoak bizi duen egoera eta etorkizunari begira ditugun erronkak eta egitasmoak plazaratzeko beharra sentitu dugu. Ikasturtean zehar gauza asko egiten dira eskolaz eskola, baina, orainoan, amankomunean ditugun helburuak partekatu



Usoa Urbietak. U.U.

nahi ditugu. Euskal Eskola Publikoaren jai urtero egiten den arren, bailarako jai honek ez du aurrekaririk. Hala ere, errepikatzeke prest gaude.

Zein da jaiaren helburua?

Euskal Eskola Publikoa hezkuntza sistemaren ardatza dela aldarrikatzea, Debagoieneko eskola publikoa bultzatzea eta aurren bereziki Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolaren ondoan gaudela adieraztea. Hori da gure helburu nagusia.

Zein egoera bizi du gaur egun Euskal Eskola Publikoak?

Debagoieneko eskola publikoaren matrikulazio portzentajea hobetu egin beharra dago. Familiek konfiantza begiratu behar diote eskola publikoari. Kalitatezko eskola euskalduna da, herrian errotuta dagoena, berrikuntza pedagogikoetan murgilduta dabilena. Gizartean gertatzen ari diren aldaketak eta migrazioa hezkuntza sistema baldintzatzen ari dira, dudarik gabe. Aniztasunaren eta jarrera positiboak eraikitzearen alde gaude. Errealitate honi bizkarra ematen diotenek, lehenago edo geroago, hausnarketa sakona egin behar-

ko dute. Izan ere, gizarteak erantzunak eskatzen ditu.

Zein funtzio du Baikarak?

Gipuzkoako federazioa Baikara da, eta Bizkaiko Bige, Arabako Denon Eskola, Eskola Txikiak eta Iparraldeko Ikas-bi federazioekin batera EHIGE osatzen dugu: Euskal Herriko ikasleen guraso elkarte. Baikararen eta EHIGEn helburu nagusia da eskolak demokratikoak eta gurasoen parte-hartzea bermatzea. Bestalde, lurralde bakoitzean guraso elkarte eta familiei zerbitzu eskaintza zabala eta aholkularitza ematea da federazioen lan nagusia.

Zeintzuk dira Baikararen eta EHIGEn etorkizuneko erronkak?

Bien helburua bera da: hezkuntza publiko euskalduna lehenetsi. Baliabideak mugatuak dira, eta jaiotza-tasak behera egingo du nabarmen datozen urteetan. Egundak bizi dugun desoreka eta inklusibitate arazoa hezkuntza sistema dual honen eraginez sortu da: publikoa eta pribatua. Hezkuntza publikoa lehenetsi behar dela uste dugu, hezkuntza sistemaren ardatza dela uste dugulako.

Zer esango zenioke
etorkizuneko zure ni-ari?

FutureNi.eus

Nola irudikatzen duzu zeure burua 30 edo 40 urte barru? Zer espero duzu? Nolakoa izango da zure bizi kalitatea? Adinberri da gaurko zein biharko erantzuna, adinekoen **arreta integralerako eredu berritzaile bat** hedatzeko.

Gehiago biziko gara. Bizi gaitezen hobeto.

ADINBERRI
OSASUNTU ZAHARTZEKO
ESTRATEGIA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ



Oñatiko Larrañako harrera zentroa. GOIENA

Harrera beroa jaso dute asilo eskatzaileek

Jaurilaritzak eta Cear Euskadik Oñatin kudeatuko duten Larrañako egoitzara domekan heldu ziren lehenengo asilo eskatzaileak. 42 gizonezko iritsi dira, guztiak Saharaz hegoaldeko herrialdeetakoak. Egoera juridikoa argitu arte egongo dira hor

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI
Domeka iluntzean heldu ziren Oñatiko Larrañako harrera zentrorako lehenengo asilo eskatzaileak, eta, herrira heldu zirenerako, zain zituzten hainbat oñatiar ongietorria egiteko. 37 iritsi ziren domekan eta beste bost astelehenean. Etorri diren denak gizonezkoak dira, Saharaz hegoaldekoak: "Euren herrialdeetan jazarpen egoerak bizi dituztenak dira, Kamerungoak, Malikoak, Boli Kostakoak...", dio Patricia Barcenak, Cear Euskadiko zuzendariak.

Egoitzaren egoera

Larrañako harrera zentroak pertsona batendako zein birendako hainbat logela ditu, eta baita familiendako logelak ere, denak komunarekin. Horrez gain, partekatze espazioak dituzte: jangela, sukaldea eta aisialdirako gunea, esaterako, eta asmoa da beste gune batzuk egokitzen joatea; umeak datozenerako ludoteka bat, esaterako.

Asilo eskatzaileek, gainera, Internetarako sarbidea ere izango dute: "Euren familiarekin eta herrialdearekin komunikatu daitezten", dio Barcenak.

Harrera zentroaren funtzionamenduari dagokionez, hainbat pertsonaz osatutako lantaldea egongo da bertan egoiliarrei laguntzeko. "Gizarte langileak, atezaina... horiek 24 orduz egongo dira lanean".

Epe laburreko egonaldiak

Patricia Barcenak azaldu du Oñatiko harrera zentroko egonaldiak epe mugatukoak direla; izan ere, egoiliarrek Espainiako asilo sisteman sartu arte egongo dira han. "Euren egoera juridikoari irtenbidea eman arte

ESPAINIAKO ASILO SISTEMAN SARTU ARTE EGONGO DIRA LARRAÑAN ASILO ESKATZAILEAK

egongo dira Oñatiko harrera zentroan. Behin epaia dutenean, egonaldi luzeko zentro edo etxetara joango dira".

Egingo dituzten ekintzak

"Taldekako ekintzak egingo dituzte, baina pertsona bakoitzak tratatu pertsonalizatua jasoko du eta bere zaletasunaren arabera osatuko du egunerokoa", dio Barcenak. Euskarazko eta gaztelarazko ikastaroak eskaintzeko asmoa ere badu Cearrek.

Hunkigarria izan zen

Domekan sare sozialen bidez zabaldu zen deialdiari erantzunez hainbat oñatiar batu ziren Larrañako zentroan asilo eskatzaileei harrera egiteko. Txalo artean hartu zituzten herritarrek, eta Mikel Biain alkateak ongietorri hitzak ere esan zituen. Eurretako baten ekimenez, *Txoriak txori* abestu zuten han elkartu zirenek: "Hunkigarria izan zen, eta eskertuta daude", dio Barcenak.

Espetxe politika aldatzea aldarrikatuko dute Donostian

Manifestazioa egingo dute, Sarek deituta, bihar, zapatua; Antiguako tunelean hasiko dute, 17:00etan

A.E. ARRASATE

Orain presoak ekimenaren barruan, manifestazioa egingo dute bihar, zapatua, Donostian. Espainiako Estatuak gaur egun ezartzen duen espetxe politika aldatzea ezinbesteko jotzen dute, eta, horretarako, herritarren konpromisoa eskatu dute.

Hainbat eragilek egin dute bat deialdiarekin; tartean, sindikatuek. Hala, atzo, LAB sindikatuak deituta, elkarretaratzea egin zuten Elorregiko biribilgunean. "Europako legediaren aurka, Espainiako Estatuak ez du ain-

tzat hartzen bi estatutako zigorren batuketaren aplikazioa. Estrasburgok urriaren 23an aterako du epaia; eta epai horrek hiru debagoiendarri eragingo die", dio Xabier Llodio.

Elkarretaratzeak atzo iluntzean

Estrasburgoko epaiaren zain daude Josu Arkauz eta Joseba Arregi presoak eta etxetik kanpo dagoen Alberto Plazaola. Atzo, elkarretaratzeak egitekoak ziren Oñatin eta Arrasaten, "injustizia salatu" eta "epaia lehenbailehen betetzea" eskatzeko.

Debagoieneko autobusak

- **Arrasate** 11:00etan eta 15:00etan, Garibain.
- **Bergara** 15:30ean, autobus geltokian.
- **Oñati** 15:00etan, Ibarran –MUKo Enpresagintza Fakultatea–.
- **Aretxabaleta** 15:15ean, Azbe aurrealdean.
- **Eskoriatza** 15:00etan, Gorosarri plazan.
- **Antzuola** 15:30ean, Sagasti auzoan.

Debagoienak 1.542.628 euro gehiago jaso ditu Aldunditik

Aldundiak duen udalen finantzaketarako foru funtsa inoiz baino handiagoa izango da: 503,2 milioi euro

A.E. ARRASATE

Gipuzkoako Aldundiak bere itxiera aurreikuspenak hobetu ditu, eta, hori horrela, uste zena baino diru gehiago izango du udalerrien artean banatzeko. 2018rako aurrekontua 486 milioikoa zen hasieran; baina, urriaren egin duten azken berrikustearen arabera, 503,2 milioi euro izango dituzte udalen finantzaketarako.

Debagoieneko udalerriek dagokienaz, igoera horren arabera, uste zena baino 1.542.628 euro gehiago jasoko dituzte. Hasiera

batean, 41.346.114 euro jaso behar zituzten; eta aurreikuspen berria 42.888.742 eurokoa da. Aldundiko komunikazio arduradunak azaldu du otsailean egingo dutela likidazioa eta orduan jakin-gotela "datu zehatza".

Diputatu nagusiak "ekonomiaren egoera onari" egotzi dio hazkunde. Udalerriek izango duten igoeraren gainean zera dio: "Igoera nabarmenak dira, baina ziur gaude gure udalek ohiko zuhurtziarekin kudeatuko dituztela baliabide gehigarri hauek", esan du Markel Olanok.



ESKOLA PUBLIKOAN

DEBAGOIENeko 1. JAIA

URRIAK 20

Eskoriatza



eskoriatzako
udala

Aramaio S. Martin HE
Arrasate Herri Eskola
Arrasate BHI
Arrasate HHI-EPA
Eskoriatza Luis Ezeiza HE

Aretxabaleta Kurtzebarri HE
Aretxabaleta Kurtzebarri BHI
Antzuola Herri Eskola
Elgeta Herri Eskola
Bergara San Martin Agirre HE

Bergara Ipintza BHI
Bergara HHI- EPA
Oñati Errekalde HE
Oñati Zuazola-Larraña BHI
Angiozarko Herri Eskola

Ireki ditu ateak UNEDen eraikin berriztatuak

Urtebeteren ostean, bukatu dituzte berritze lanak, eta aste honetan emaitza ikusteko aukera izan dute herritarrek; Iñaki Esparza UNED Bergarako zuzendariak azaldu du "oso pozik" daudela emaitzarekin; orain, gainera, ate propioa dauka unibertsitateak

Eneko Azurmendi BERGARA

"Eraikin funtzionala da orain. Saiatu gara espazioak irabazten eta espazio argiak lortzen; segurtasuna bermatuta, betiere. Jauzi kualitatibo izugarria izan da, oso aldaketa positiboa", adierazi du Esparzak.

Horrez gain, solairu bat gehiago du eraikin berriak: beheko solairuan, harrera eta idazkari-ritza daude; bigarrenean, bulegoak; eta hirugarrenean eta laugarrenean, ikasgelak. Azken horietako batzuek, gainera, altzari bereziak dituzte, gaur egungo ikasketa ereduak egokituta: "Etorrizunari begiratzen dioten altzariak dira, taldekako lanak eta proiektuak errazteko", azaldu du Aitor Zubia arkitektoak.

Eraikinak duen beste ezaugarri bat ate propioa da. Hauxe dio Esparzak: "Ikastolako sarrera izan da gure sarrera 40 urtez, eta orain, gure ate propioa daukagu, dagokion tokian, gainera, plazari begira. Ikusgarritasunaren aldetik ere irabazi dugu".

Hainbat zailtasun

Urtebete inguru iraun dute obrek, eta aurreikusitako epeak bete egin dira. Hala ere, "ustekabe" batzuk izan dira eta "erabaki garrantzitsuak" hartu behar izan



Ate propioa izango du aurrerantzean UNED Bergarak, herriko plazatik. GOIATZ ARANA

dituzte egitura guztia egonkortzeko, aurreikusitako baino egoera kaxkarragoan zegoelako eraikina. "Jatorrizko planaren arabera, egitura mantentzea zen asmoa, baina toki askotan hori ez da posible izan, egurra ustelduta zegoelako. Espero ez genuen zerbait izan da, eta, hala ere, epeak bete egin ditugu. Alde horretatik ere pozik gaude", azpimarratu du Esparzak.

Lanak, hasiera batean, 1.382.356 eurotan esleitu zituen UNED Bergarak -BEZ barik-. Azkenean, 2.100.000 eurokoa izan da aurre-

kontua, UNED Bergararen webgunean argitaratuta dagoenez.

Ikasturte hasiera

Bestalde, urriaren 26an egingo dute ikasturte hasierako ekitaldia, udaletxean, 19:00etan. Eusko Ikaskuntzako lehendakari Iñaki Dorronsorok hitzaldia eskainiko du.

Azkenik, idazle eskolak bihar, zapatua, hasiko du ikasturtea, eta datorren egubakoitzera arte dago izena emateko aukera, 943 212 369 telefonora deituz edota arse@asmoz.org helbidera idatziz.



Oñatiko EH Bilduren bulegoan, eguaztenean. IMANOL BELOKI

Pernando Barrena, Kataluniaren egoera soziopolitikoaz berbetan

'Euskal Herriatik Kataluniara begirada bat' saioa eskaini du Oñatin, Jordi Gomez kataluniarrak gidatuta

E.A. OÑATI

Oñatiko EH Bilduren lokaletik begirada bat egin diote, aste honetan, Katalunia bizitzen ari den egoera soziopolitikoari. Pernando Barrena EH Bilduko nazioarteko lantaldeko kideak Kataluniako prozesu independentista izan du hizpide, Jordi Gomez Oñatin bizi den kataluniarrak gidatutako solasaldian.

Saioa hasteko, 2017ko urriaren 1a aurretiko egoera aztertu zuten. "2006an, Kataluniako Parlamentuak estatutu berri bat onartu zuen, eta Espainiako Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zituen kataluniarrak gaketat zituzten hainbat puntu, hala nola nazio aitortza eta trataera fiskal ezberdin bat. Horrek sekulako haserrea piztu zuen sektore politiko ia guztietan. Herriak mespretxu bat sentitu zuen. Hor dago Katalunia azken urteetan bizitzen

ari denaren oinarria", azaldu du Barrenak.

Urriaren 1eko galdeketa

2017ko urriaren 1ean gertatutakoak oinarri independentista trinkotu duela gaineratu du Barrenak, eta Kataluniako gizartearen eta Espainiaren artean haustura bat gertatu zela. "Espainiak atzera bueltarik ez duen puntu bat sortu zuen prozesu horretan, eta Katalunia independente bat buruan daukaten horiek erabaki dute atzerabiderik ez dagoela".

Bestalde, kataluniarrak espe-roan daudela nabarmendu du. "Presoen aldeko edota Diadaren mobilizazio erraldoietan ikusten da oinarri sozial independentista oso indartsu bat dagoela. Zain daude, ea nork aurkeztuko dien estrategia berri, adostu eta interesgarri bat prozesu independentistari segida emateko".

ALKIDEBA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

DENDA BERRIA SORALUZEN

Lorezaintza eta garbiketarako makineria txikia eta askoz ere gehiago

administracion@alkideba.net

MAKINERIA ALOKAIKURUA ERAIKUNTZARAKO ETA INDUSTRIARAKO



Máizaga - Soraluze errepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabilioia
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

Mila esker, Ainhoa eta Iñaki

LARRAITZ TROJAOLA BEREZIBAR
ARRASATEKO EH BILDUREN IZENEAN
ARRASATE

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko egungo zuzendaritzak, PNVko eta PSOEko kargudunen aldeko botoekin, auzitara eraman zituen Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkin erraustegia geratzeagatik, 46 miloi eurorainoko zigorrak eskatuz.

Zorionez, Espainiako Kontu Auzitegiak errugabe jo ditu biak, erraustegia gelditzea ez zela delitua izan ebatziz.

Are gehiago, Kontu Auzitegiak berak ebatzi du Intxaurrendietaren eta Errazkinen erabakiak kalte ekonomiko handiago bat ebitatu zuela, errauskailuaren proiektua desproporazio hutsa zela aipatuz.

Ainhoak eta Iñakik, agintera iritsi, EH Bilduk bere programan agindutakoa jarraitu eta bozkatzaileekin hitzartutakoa bete besterik ez zuten egin.

Emandako hitza betetzea, herriarren ongizatea lehenestea eta ingurumena zaintzea zigortu nahi izana onartezina da.

Salaketa honekin, Ainhoa eta Iñaki zigortzeaz gain, enpresa handietako negozioetatik at herriarren interesen mesedetan politika egitea baldintzatu nahi izan

duzue, beldurra sortu nahi izan duzue, baina Jose Luis Otamendik, Azpeitian, Ainhoa eta Iñaki babesteko ekitaldian esan bezala: "Ahantz ez dezagun badela hemen eros ezin daitekeen jendea, eta saldu ezin daitekeen herri bat".

Ainhoa eta Iñaki, mila-mila esker mehatxuen aurrean erakutsitako duintasun eta konpromisoagatik. Zuen eredua jarraituz, zintzotasunez eta herriarren alde lanean jarraituko dugu!

Begi orori dario egia

IÑAKI IDIGORAS IGARTUA
OÑATI

Udalaitzen gaineko apustuaren istorioan bik egin dugun elkartze ariketara arrasatearrak, aretxabaletarrak, eskoriatzarrek, gatzagarrek, elgetarrek, antzuolarrak eta bergararrak ere batuko bazinete, debagoiendarron begiek Udalaitez nolakoa ikusten dugun osatuko genuke.

Egia osora hurbilduko ginateke, eta Debarroaz gaindi Elorriora ere gerturatzeko gogoa piztuko litzaiguke, egia borobilaren bila. *B-egia B-oro-bil-a*.

Telesforeren garaian Maltzagan ez zegoen biribilgunerik. Bidegurutzeak zeuden.

Hor, agian, metaforaren zaharkitzea erakusten duen elementu bat.

Berak bidegurutzean banaketa irudikatzen zuen. Bueltarik gabekoa, itxura batean.

Ti-tau ezker ala eskuin erabaki behar gurutzera iritsi bezain laster.

Horregatik ekarri nahi dut Maltzagatik *O* sinboloa metafora berrira.

Orain, gehiago gara hara eta hona, eta, zentzu horretan, lasaiago gabiltza, biribilguneari esker.

Ezker-eskuin zalantza eginez gero, behar beste buelta eman genitzake, behar dugun noranzkoa, zentzua, hartzeko.

Aldea da, gero! Izozte egoeratik ur egoerara pasatzea bezalakoxea.

Trafikoa errazago, arinago, naturalago doa.

Arrotzen *fluido* erabili ohi dugu; gure arbasoek *urezko*-edo esango liokete, agian, jario natural horri.

Hortik, agian, Zygmunt Baumanen gizartea likuatzten doan teoria, estruktura solidoak, eraisten.

Hor kokatu genezake Telesfororen egitasmoaren porrota, diktadura osteko ataka hartan.

Hauteskundeak gainean ziren, eta ti-ta erabaki behar izan zuten estruktura solidoek.

Batak ezker, besteak eskuin.

Haustura, gaizki-ulertua, izotza, aurretik zetorren, eta ez zuten biribilgunerik izan ataka hari alderdi

guztietatik orok begiratu eta

zentzuzko noranzko partekatu bat lantzeko, urtuz.

Ongietorria, ba, oro bilduko gaituen agertokiari. Borobilean arazoari so egin eta, bakoitzaren ikuspuntua besteekin partekatuz, denaren, osotasunaren, kontzientzia hartuko dugu denok.

Erreka garbia eta bizia nahi dugu

ARIANNE KAREAGA IRAZABALBEITIA
ERREKA BATZORDEAREN IZENEAN
BERGARA

Urriaren 6an, zapatu goizez, eguraldi apartarekin, seigarren aldiz aritu ginen erreka bazterrak garbitzen.

Aurtengoan 100 lagun inguru elkartu ginen Zubietako zubi inguruan hasi eta Elorregirainoko tarteetan sakabanatuta.

Batzuk Labegaraietan eta beste batzuk seminarioko patioan elkartu, eta goiz osoa eman genuen lanean, haur zein helduek.

Zikinkeria pila bat atera genuen, eta goiz polita igaro.

Leku askotan aurreko urteetan egindako lana asko igartzen bada ere, aurtan bereziki jarri genituen indarrak Elorregi ingurutik Labegaraietainoko tartean dagoen kotoia ateratzen.

Urteetan, oihal enpresak botatakoak uraren azpian kateatzen joan dira eta ikusteko ere ez dira errazak.

Lan neketsua da, eta oso astuna baita, baina uste

dugu merezi duela esfortzuak.

Ildo beretik, eta dagokion lekuan salaketa jarriko dugun arren, gutun honetan ere aipatu nahiko genuke nazkatuta gaudela urtero puntu beltz berdinak garbitzearekin.

Esate baterako, Ozaeta eta Martoko arteko ortuetako erabiltzaileek erre kara botatzen dituztenak.

Jakin, bidegabea dela horko erabiltzaile batzuk egiten dutena eurek sortutako zikinekin.

Gogora ekarri nahi dugu urtero dioguna: dagoeneko Erreka Lagun mordo bat gara, erreka biziberritzea amets dugu eta epe motz ertainera ibai osasuntsu baten alde lanean jarraituko dugu.

Alde batetik, gure esku dagoena eginez, eta, bestetik, erakunde publikoei zein herriarrei eta enpresei euren eginbeharrak bete ditzatela eskatuz.

Garbitzen eta eragiten jarraitzeko bokazioa daukagu.

Lerro hauekin, eskerrak eman nahi dizkiegu zapatuko ekimenean lagundu ziguten honako erakunde hauei: Beti Busti elkarte, Debagoieneko Mankomunitatea, Bergarako Udala eta Artatse elkarte, hain zuzen.

Eta, nola ez, ekimenean zuzenean parte hartu zenuten lagun guztiei!

Eskerrik asko!
Eta datorren urtera arte!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

IÑIGO MURGIONDO

Ni neu eta ene tripolina

2001. urteko apirilaren 3a:

Horixe bakarrik falta genian... Ez dik, bada, esaten astakirten horrek hemen ezin garela jolastu? Joan hadi mezetako intsentsu puta hori anastera, ea tripak nahastu eta zaharren egoitzara bidaltzen hauen norbaitek! Ospatuko diagu guzti-guztiok eta gogotik, gainera. 13 urtean hemen jolastu gaituk, eta hik esango diguk ezin dela, artaburu hori!

2010. urteko irailaren 6a:

Dena eman behar diat gaur gauean! Lagunekin batera sua emango zioat gauari, garagardoari, eta inork aurrean jartzen didan edozeri! Eta gaua ondo amaitzeko, goizaldeko itzuliaren aurretik, lo dauden gizajo ximel buruhandi guztiei tinbrea erreko zioagu eta izorratu daitezela! Kar-kar-kar-kar! Eta biharko egunean atso edo agure bati mendira joatea otutzen

GAZTE HORIEK EZ DITEK ERREMEDIORIK. JAKINA, GURASOAK BERDIN-BERDINAK IZANGO DITUK...

bazaio eta gurekin trikitx egiten badik... jar hidak puntua, bertsoa eskainiko zioat-eta!

2044. urteko azaroaren 21a:

Gaur ere kalean zebiltzak... Gazte horiek ez

ditek erremediorik. Jakina, gurasoak ere berdin-berdinak izango dituk, eta, badakik, nolako zura, halako ezpala! Uste ditek, gainera, munduaren jabe direla. Jarriko nitizkek nik kaleak garbitzen goizean goizetik; sagar ustelak horiek baino gehiago balio dik. Eta, entzun-entzun, zarata batean, guztiok beraiei begiratzeko moduan. Potrozorri halakoak!

2065. urteko otsailaren 14a:

Gaur ere hemen zarabiltek baloi puta hori jo eta sua! Hamaika futbol zelai herrian, baina ez, kaka ume hauei inguruko lasaitasuna eztandaraztea gustatu! Gaur bertan deitu behar diat udaltzainenera, eta etor daitezela berandu baino lehenago kartela jarri eta hemendik alde egiteko agintzera! Etorri eta hori egiten ez baditek, botako naitek lurrera, baloiak jota, eta orduan ea nork laguntzen nauen! Hori gertatzen baduk, alde egingo ditek astakirten mukitsu horiek guztiek, eta entzun beharko diat, gainera, beraiek ez direla izan!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Gauza guzien zergatia

JAUME GELABERT

[HTTPS://LABUR.EUS/KJZPF](https://labur.eus/kjzpf)

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Aurreko astean topo egin nuen ezagun batekin. Mallorcako uholde lazgarria zela eta, hangoa naizela jakitun, gertatutakoaz galdetu zidan. Galdera erretorikoa egin zuen, erantzuteko denborarik eman gabe hondamendiaren zergatia jakinarazi baitzidan: "Alde hartakook dirua izugarri gustuko duzuenetz gero, etxeak nonahi eraikitzen dituzue turista gehiago ekartzeko". [...] Esanen nuke solaskidearen ondorioak topikoan duela oinarria, eta topikoak

genetikan: mallorcar eta gainerako Herrialde Katalanetako herritarrok –guziok– turbo-kapitalismoari lotuta gaude feniziarrek –guziek– auskalo norengandik heredatu zuten merkataritza genea jaso omen dugulako, eta oinorde zitalak ondasunak metatzeko grina sorrarazten digu. Horrela azaldu ohi da behar ez den lekuan eraikitze obsesioa, bost axola naturak trukean zer ekarriko ote digun; ustelkeria ohoretzat hartuta, arrazoi beragatik ekiten omen diogu aurrezki kutxak garbitzeari; eta alde hartako herritar –guzion– estrategia bermatzeko, agintari eskuindarretan

eskuindarrenak hautatu ohi ditugu. Genetika zikina. Baina zer gertatuko ote zatekeen bestelako herentziarik jaso izan bagenu? Seguruenik, arbaso kaukasoarrak, sardiniarrak edo bertako cromagnonak izanda ere, gisa berean jokatu genukeen: erkidegoko aurrezki kutxa erreferentziala arpilatuko genukeen gupidarik gabe; [...]; eta aurreko guzia bultzatuko eta bermatuko zuten politikari eskuindarretan eskuindarrenak bozkatuenak izanen ziratekeen berdin-berdin. Kapitala baita, ez da topikoa, gauza gehien zergatia.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goizatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Igone Osinaga.

Sailatako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitate

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA

POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Sagardoa zaindu beharreko milaka urtetako ohitura da"

UNAI AGIRRE EUSKAL SAGARDOA JATORRI IZENAREN KOORDINATZAILEA

Eneko Azkarate ARRASATE
Debagoieneko Lehen Sagar Eguna egingo da oraingo zapatuan Arrasateko Seber Altube plazan, baserritarren azokarekin bat eginez. Urtero antolatze bokazioarekin jaio da. Unai Agirre Euskal Sagardoa jatorri izenaren koordinatzaileak sagar dastatze saioa egingo du. **Sagar dastatze saioa egingo duzu Debagoieneko Lehen Sagardo Egunean zapatuan. Nola antolatuko duzu?**
Dastatze azkarra izango da. Oinarrizko kontzeptu batzuk azalduko ditugu. Sagar mikatzak eta garratzak bereiziko ditugu... Batik bat, sagardo sagarrari erreparatuko diot, beronen ezaugarriak azalduz. Bertako sagarrari eta sagardoari buruzko informazio eta jakintza txikia dagoela sumatu dugu. Izugarritzko altxorra dugu eta balioan jarri behar dugu; jatorri izenak onartutako 115 sagar mota dauzkagu.



Unai Agirre, Euskal Sagardoa jatorri izenaren ekitaldi batean. GOIENA

115 sagar klase?
Milaka urtetako ohitura da. Altxor hori ez dute askok; guk badugu, eta zaindu eta sustatu egin behar dugu. Urte askoan abandonatu samar egon da sagardoa. Dena den, 115 klase

horietatik, 24 dira gehien erabiltzen direnak. Baina jatorri izenak hiru lurralde eta hainbat zona hartzen dituenek, bertako sagar klase guztiak errespetatu behar ditugu.

Zenbat sagar mota dastatu ahal izango da larunbatean?
Bi sagardogile egongo dira: batek mahai sagarra eroango du eta beste batek mahai eta sagardo sagarra. Haiek ekarritako sagarrak dastatuko ditugu, baita sagardoak ere. Aurtun, dena den, sagar gutxi jaso da eta uzta lehenago heldu da.
Bi sagar multzo bereizi dituzu. Zer ematen dio bakoitzak sagardoari?
Mikatzak ematen du taninoa, kolorea, luzaro irautea... Garratzak, freskotasuna, usaina... Beste balio bat da azukrea, nahiz eta gure sagar klase guztiek emate duten nahikoa azukre. Hortaz, bi multzo horietako sagar klase ezberdinen nahasketa motak emango digu sagardo mota bat edo beste bat.
Aurtengo uzta txikia izan da.
Bi arrazoiengatik: batetik, iaz, izugarritzko uzta batu zen. Hortaz, aurtun txikiagoa izango zela aurreikusi zitekeen. Bestetik, udaberrian, loraldi garaian, euri asko egin zuen eta horrek ez zuen lagundu. Ondorioz, aurtengo uzta %40 txikiagoa izan da. Dena den, geroago eta sagasti profesional gehiago dago. Eta profesionalizatzen den neurrian, uzta orekatuagoa izaten lagunduko du.

HAU BE BADOGU!

Bergara, zientziaren 'Leku Historikoa'



@bittner_ass: "Kimikari gutxi batzuek soilik jakin arren, tungstenoa Bergaran isolatu zuten, Euskal Herrian. Elhuyar anaiek egin zuten aurkikuntza" (itzulita).
@elhuyaraldizkaria: "Gaurkotasunez bete da Elhuyar anaien istorioa, Europako Fisika Elkarteak *Zientziaren toki historikoa* izendatuko baitu Bergara, argudiatuta wolframioa aurkitzeak modu erabakigarrian lagundu zuela fisikaren bilakaeran eta gizadiaren aurrerapenean".

Euskaraldiak badu presentzia sarean ere

Gero eta gutxiago gelditzen da Euskaraldia ariketa soziala gauzatzeko, eta erabiltzaileak motorrak berotzen ari dira:
@bizarralepoan: "Euskara ulertu ez arren *Irribizi* pertsonak poztu egiten dira euskara entzuten dutenean eta euskararen aldeko ekimenekin bat egiten dute".
@emakundeEJGV: "Beste 80tik gora entitate eta eragileekin batera Euskaraldiarekin bat egin dugu. #Ahobizi ala #Belarriprest?".

'Cabacas auzia', berriz ere hizpide

Sei urte beteko dira Iñigo Cabacas Athletic eta Schalke 04 taldeen arteko partidua baten ostean hil zutela. Urte hauek igaro ostean, astelehenean ekin zioten *Cabacas auzia*-ren ahozko epaiketari, Bilboko epaitegian. Sei ertzain epaituko dituzte, guztira, "zuhurtziagabekeria larriko giza hilketa" leporatuta. Horrela, sare sozialetan traol erabilienean artean egon dira aste honetan #CabacasJustizia eta #IñigoJustizia.

ITURRI ONETIK

Eñaut Elorrieta Oñatin, azken proiektuarekin

Eñaut Elorrietak oraingo asteen aurkeztu du bere bakarkako azken proiektua: *Harian*. Ez du disko fisikorik argitaratuko eta hari boskote batek lagunduta aterako da agertokira. "*Harian* zuzenean gozatzeko proiektua da", adierazi du. Abesti sortaren artean, Itoiz taldearen *As Noites da Radio Lisboa* (*Musikaz blai*, 1983) kantaren moldaketa, Juan Carlos Perezek berak eginga. Urriaren 28an Arriaga antzokian aurkeztuko du jendaurrean eta azaroaren 18an Oñatiko Santa Anan izango da.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-10-18

Herritarren omenaldia Pello Garitanori

Pello Garitano bergarar txirrindulari-zalea, kantu-zalea, lagunartekoa, borondatetsua... omendu zuten herritarrek. Lokatza Ziklismo Eskolaren eta Xamatx dantza taldearen aitortza jaso zuen, lehenbizi, Labegaraletan; Musika Bandarena, ostean, hari eskainitako kontzertu berezian. Amaitzeko, 500 lagun batu ziren, mahaiaren bueltan, Udal Pilotalekuko herri bazkari berezian. Opari asko jaso zituen.



GOIENA

Ikurrin erraldoiaren kokalekua, boto bidez

EAJk, EH Bilduk eta Baleiek akordioa lortu dute herrian ikurrina erraldoi bat jartzeko. Lau kokaleku proposatu dituzte horretarako —Herriko Plaza, Biteri plaza, Seber Altube eta Jose Maria Arizmendiari plaza— eta azaroaren 5etik 17ra botatu ahalko da

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasate ikurrin erraldoi bat izango du aurrerantzean, eta herritarrek izango dute horren kokalekua aukeratzeko ardura. Orain dela bost hilabete, maiztean, egitasmoa aurrera eramateko bi aldeko akordioa lortu zuten EAJk eta EH Bilduk. Ez zuten botoa emateko datarik jarri, eta gainontzeko alderdiekin akordio zabalagora heltzeko asmoa azaldu zuten. Hain zuzen ere, data ezarrita dago, eta, bi alderdi botatuenean babesaz gain, Baleiek ere bat egin du ekimenarekin.

Kokalekua eta plaka aukeran

Azaroaren 5etik 17ra, ikurrina kokatzeko lau lekuren artean botatzeko aukera izango dute herritarrek. Horretarako, beharrezkoa izango da Arrasaten erroldatuta egotea eta 18 urtetik gora izatea. Bi bide egongo dira botoa emateko: BAZen bertan eta, Internet bidez, www.arrasate.eus webgunean.

Ikurrina jartzeaz gain, udaltxean plaka bat jartzea ere adostu dute, "Espainiako banderaren inposizioa salatzeke". Ez dute plaka horretako testua zein den

definitu, eta herritarren esku utzi dute zeregin hori. Hala, urriaren 15etik 26era aukera izango dute herritarrek BAZera joan eta euren esaldi proposamenak egiteko, eta azaroaren 5etik 17ra esaldi gustukoeneren aldeko botoa eman ahalko da.

Gaiaren testuingurua

2017ko uztailaren 17a ezkerro, Espainiako bandera bat dago Arrasateko udaletxean. Gustuko neurria ez izan arren, "legeak behartuta" jarri behar izan zuten, hori ez egitearen ardura zuzena alkatearengan eror ez zedin. Hasieran, udaletxe aurrealdeko eskuinaldeko balkoi txiki batean kokatu zuten, eta ezezagun batzuek kendu eta erre egin zuten. Horren ostean, erdialdeko balkoian jarri zuten eta berriz ere kentzea eta erretzea lortu zuten.

2018ko martxoan, EH Bilduk bi proposamen egin zituen, "inposatutako bandera espainiarren eraginak baretzeko": ikurrin erraldoi bat jartzea —Bergaran dagoenaren antzera— eta banderaren alboan plaka bat jartzea, legeak inposatuta jarria izan dela adierazteko; hori jartzearena inposizioa izan dela

—Foru Aldundiaren egoitzan bezala—.


Oposizioko alderdi nagusiaren proposamena begi onez ikusi ostean, EAJk bi ekarpen egin dizkio ekimenari: ikurrina jartzeko erdiguneko lau leku proposatzea eta kokapena erabakitzeko parte hartze prozesu bat egitea.



XABI GOROSTIDI

Transformadorea, kenduta

Herri Eskolak Musakolan duen egoitzan transformadorea kendu zuten atzo goizean. Bertako eraikina eraberritzeko oztopo nagusia izan da azken urteetan, baina jada ez da traba izango. Behin hori kenduta, eraberritze prozesuak aurrera egin dezake, eta, etorkizunean, haur eta lehen hezkuntzako ikasleak hartu ahal izango ditu Musakolako Herri Eskolak.



Irudikoak dira aukeran dauden lau kokalekuak. ARRASATEKO UDALA

Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa 2018

Aurten, lanak aurkezteko bi era dituzue: idazlan edo bideo bidez; zuk aukeratu!

Idazlan bidez, oinarriak
Ikusi eta lanak bidaltzeko, sartu: Berria.eus/mendietabidaikronika2018

Bideo bidez, oinarriak:

- Aurtean den bideoa originala eta argitagarria izan behar du.
- Bideo bakarra gutxienez 5 minutu eta gehienez 20 minutu izan behar du.
- Bideoa edukialki izan behar du. Bideoak ez dira edukirik bago, edukialki argitatu izan behar du.
- Bideoak online sistema bidez (forus edo wetransfer.com) bidali behar dira bideoak@berria.eus itelidira, azaroaren 11 baino lehen. Gaiak: Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa.
- Bideoaren baina, haurk ere bidali behar duzue.
- Bideoaren formatua bat jpg formatuan.
- Interbista.
- Sinopsia edo laburpena.
- Egilearen izena, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Bideratzaileak:
- Kalitate artistikoa.
- Gidoiaren originaltasuna.
- Edizio lanak.
- Jardutako bideoak **BERRIAREN** Youtubeko kanalean jarriko dira, eta BERRIAREN webgunean publikatu. Bideoa egin duenak izango du bideoa lanaren edukialki.
- BERRIAN eskumena izango du lanak lehiaketatik kanpo utziteko; lehiaketatik kanpo utzi ahal izango du murrizketak, gisa eskubideak utziz eta bideoa edo sinopsia dimitziz bideoak.
- Datu Pertsonalak Babesteko Aukerapen bidez, parte hartzaileak jakinarazi nahi auzo bere datu pertsonalak EUSKAL EDITORIA SL enpresarek inbentario sistematan joko direla, horiek baina inbentarioaren erabilera. Hala, parte hartzaileak lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira, soilik.

SARIA-Idazlana:

Irabazlearentzat, Mendik eta Herriak mendik gidari elkartearen oparia, lagun batentzat.

ZERMATT INSURUKO GOI MENDIKO ZEHARKALDIA
Breithorn (4.165 m) • Castor (4.226 m)
Peñatztitze (4.436 m) • Zumsteinspitze (4.563 m)

SARIA-Bideoa:
Irabazlearentzat, ATXASPI HOTELEAN **Relax** asteburu-pasa, bi lagunentzat.

Parte hartzaile guztien artean, **APALATEGI KIROLAK** denda gastatzeko 100 euroko 3 bonu.

SABESLEAK:

berria mundua-euskarari-emana

Gaztelupe guneak greba araudi propioa izango du

Otsailean oihartzun handia izan zuten Arrasaten Arizmendi ikastolako greba araudia aldatzeko Ikasle Abertzaleak taldeak egindako mobilizazioek. Araudi berria onartu berri dago, eta protestak egin zituztenek eta Ikastolako arduradunek ontzat jo dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Otsailean zalaparta handia atezuen gaia izan zen Arizmendi Ikastolaren greba araudiaren berritzea. Ikasle Abertzaleak taldeak mobilizazioak hasi zituen eskakizun batzuk lortzeko, eta, besteak beste, manifestazio nazionala egin zuten Arrasaten otsailaren 22an.

2017-2018 ikasturtean, Arizmendi barruan barne prozesu bat jarri zuten martxan araudia berritzeko, eta bertan, ikasleen ordezkariak, ikastolako arduradunek eta gurasoek parte hartu zuten. Ikasleen ordezkariak ohar bat kaleratu zuten esanez IAREN mobilizazioekin bat egiten ez zutela. Horren harira, Askapenak eta Arrasateko Gaztetxeak babesa eman zieten mobilizazioei eta, besteak beste, Sortu, EH Bildu eta LAB deialdi nazional horren aurka azaldu ziren.

Hala, iraileko bileran, Arizmendiko kontseilu errektoreak onartu egin ditu greba araudi

berriak; lehen, araudi bakarria zegoen Arizmendiko guneentzat, eta orain, Almenek eta Gaztelupek araudi propioak edukiko dituzte. "Kontseilu errektoreak estimatu zuen ondo eginga zutela bi guneetako barne prozesuak. Bateko eta besteko araudien artean ezberdintasun txikiak zeuden, baina horiek zentroetako errealitateei erantzuten dietenez, bi araudi onartu genituen", azaldu du Arizmendi Ikastolako zuzendari nagusi den Joseba Iñaki Etxezarretak. Bi alde nagusi daude bataren eta bestearen artean: Gaztelupen DBHko 4. mailako eta batxilergoko ikasleek egin ahalko dituzte grebak, eta Almenen, aldiz, batxilergokoak bakarrik. Horrez gain, Gaztelupen desbinkulazio aukera kendu egin dute.

"Pozik gaude araudi berriko lorpenekin; borroka eginez helburuak lor daitezkeela erakutsi dugu eta", adierazi du IAKo kide Gorka Etxabek.



Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneak argazkia. XABI GOROSTIDI

Hiru udal zerbitzuren kalitatea bermatzeko gidak aurkeztu dituzte

Hiru zerbitzu-gutun prestatu ditu Udalak, ondorengo udal zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta bermatzeko: hileta zerbitzuak, Udalako Ingurumen Eskola eta Gizarte Zerbitzuak. Horietan, zerbitzuaren xehetasunak, horien kalitate konpromisoak eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak zehazten dira.

Hiru eskuliburuak udal erakinetan eskuratu ahalko dira eta udal webgunean ere jarri dute informazioa. 2014an lehen urratsa egin zuen Arrasateko Udalak BAZeko zerbitzu-gutuna argitaratuz, eta gutuna egiten hurrengoak liburutegia, Hiri-gintza Saila eta Gazte Bulegoa izan daitezke.

OHARRAK

Ahal Duguk, batzarra

Igandean, 11:30ean, batzarra egingo dute euren egoitzan, udal hauteskundera begira.

Gaztelan programa

Enplegu programa bertan behera geratu da. 40 hautagai behar ziren, gutxienez, eta 18 lagunek eman dute izena.

Udal lan eskaintzak

Udalak hamazortzi langabe kontratatatu nahi ditu – horietako lauk 16 eta 30 urte bitartekoak izan behar dute. Informazio zehatzagoa *Goiena.eus* atarian jaso dezakezue.

Pentsiodunak


Astelehenean, Herriko Plazan, elkarretaratzea, 12:00etan.

Arrasateko
KULTURA eskaintza
esku-eskura...
www.ibaiarte.eus



Sarreraren zozketak
"Luisa Fernanda" zarzuela
Azaroak 17, 18, 23, 24

Eskatu doan
Arrasate txartela
Arrasateko komertzioetan
%5era arteko deskontuak



eta BESTE
ABANTAILA
MORDO BAT

informazio gehiago:
www.ibaiarte.eus



ARRASATEKO UDALAK
AYUNTAMIENTO DE ARRASATE



"Herri mugimenduko hutsunea" betetzeko jaioa

Jaiki talde politikoa sortu berri dute herriko gazte batzuek, eta "hutsune" hori aipatzen dute taldea sortzeko arrazoi nagusi moduan. Azpimarratu dute ez direla ezker abertzalearen "aurka" sortu, herrian eragiteko jarrera "eraikitzailearekin" baizik

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gazteria inoiz baino despolitizatuagoa dagoela dirudienean, Arrasaten talde politiko berri bat sortu dute herriko gazte batzuek. Urriaren 2an modu ez publikoan jakinarazi zuten euren sorrera; aurpegia eman gabe eta komunikabideetara bidalitako ohar baten bidez. Hala egin izanak jakin-mina eta zalantzak sortu ditu herritarren artean, eta, horiek argitu nahian, GOIENA eurekin batzartu da.

Hutsune batek eraginda

"Herri mugimenduak ulertzeko zentzu tradizionalean espazio falta bat ikusten genuen. Hau da, instituzioetatik kanpo sortzen den herritar talde aktibo baten beharra sumatzen genuen. Instituzioek euren tokia dute politikagintzan, baina eremu formal horretan politikariek eskuak lotuta dituzte. Hauteskundearen dinamikak baldintzatu egiten ditu askatasunez espresatu ahal izateko gai delikatu batzuen inguruan: sozialismoa, komunismoa, borroka armatua... Instituzioen itzalpetik kanpo bazeude, askatasuna daukazu; era eraginkorrean aprobetxatu dezakezun askatasuna, alegia", azaldu dute Jaikiko kideek, talde politiko berria sortzeko arrazoien inguruan galdetuta.

Gaur egun, dozena pasa lagun daude Jaikiren barruan, 16 eta 30 urte bitartekoak.

"Etsaitasunik" gabe

Aurreko arrazoiak gain, onartzen dute gai konkretu batzuetan Arrasateko ezker abertzaleak hartutako erabakiek ez dituztela erabat asebate, eta horrek ere eragin duela taldearen sorrera.

"Esparru jakin batzuetan ez gara erabat asebeteta sentitu ezker abertzaleak hartutako erabakiekin, eta ondorengo pentsatzera bultzatu gaitu: *hau ez da esaten; beharbada, guk*



Jaikiko kideak pankarta bat margotzeko unea. JAIKI

EZ DIRA SUNTSITZAILE IZANGO; ERAIKITZAILE IZAN NAHI DUTE, BAINA EUREN AHOTS PROPIOAREKIN

esango dugu. Baina azpimarratu nahiko genuke ez dugula etsaitasun puntu batetik egiten. Arizmendiko greba izan daiteke horren adibide bat. Herri mugimenduko taldeak eta alderdi politikoak inoiz ez dira erritmo bereberetan joan. %100eko koordinaziorik ez da izaten, eta, gure ustez, gainera, naturala da. Azken finean, erritmo eta lehen-tasun ezberdinak ditugu".

Zatiketarik ez

Udal hauteskundeetarako zortzi hilabete falta dira, eta, ezker abertzalearen barruan zatiketa bat arriskutsua izan daitekeen galdetuta, zera erantzun dute: "Lehenik eta behin, gu ez gara Sorturen zatiketa bat; ez goaz euren kontra, eta ez gara bertatik banandu. Gure kabuz elkar-tu garen herritar talde bat gara. Ez gara hauteskundeetan zen-

tratzen, baina garrantzitsutzat jotzen dugu EAJ eta PSE-EE gobernutik kentzea. Gure lehen-tasunetako bat izango da, eta gure babes osoa emango diegu Udal Gobernua kanporatzea helburu duten kanpaina guztiei. Ez gara potrozorri bat izango EH Bildurentzat. Ez gara suntsitzaile izango. Guztiz aurkakoa. Eraikitzaile izan nahi dugu, baina gure ahots propioarekin".

Langileen indar metaketa

Langile borrokari dagokionez, ondorengo irakurketa egiten dute. "Gure apaltasunetik, betiere, langileen indar metaketa bultzatu nahiko genuke. Azken finean, ez da kasualitatea sektore bat prekarizatuta egotea, zerbitzu publiko bat pribatizatzea... Etxez etxeko langileen kasua, adibidez, guretzat, ez da kasu solte bat. Guztia logika global baten barruan kokatzen dugu. Baina ez gara kapitalismoa kritikatzera mugatzen. Hori egiteaz gain, komunismoa aldarrikatzen dugu konponbide bezala. Ez dugu euskal errepublika sozialista sortuko, baina komunismoa ideologikoki lantzeko eta hedatzeko ariketa egin dezakegu".

NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ

Zezenari adarretatik heldu

Arizmendiko zuzendariak gaur egun ikastolen beharra justifikatzeko eman dituen hiru zutabeak gogoan ditut: kalitatezko hezkuntza euskalduna, seme-alabak maite dituzun horren neurrikoa eta autogestionatua. Ahaztu zaio aitortzea "soberanotzat" jotzen duen hori herritar guztien diru eta eraikinei esker garatzen dela. Eta ez daukat arazorik horrekin, hezkuntza sistema heterogeneo baten sinesten dudalako, non ikastolek, baso eskolek, kristau eskolek edo herri eskolek lekua izango duten. Herritik eta herriarentzat, tokian tokikoak. Hori bai, finantziarioa eta kontrola publikoak dituen sarea, ikasle eta irakasle guztientzat sarbide baldintza berdinak bermatuz. Eta garrantzitsuenak, inor atzean utziko ez duena. Izan ere, asko kezkatzen nau egungo sistemak ahalbidetzen duen segregazioak, are gehiago Jaurilaritzak honen aurkako herri ekimen legeileari ezetz esan berri dionean eta gaur egungo argazkia betikotzeko legea onartzeaz dagoenean. Horregatik, hainbat arduradun ekonomia sozialaz eta arazo sozialez hizketan dabiltzanean, ez dakit sozioen ekonomiaz edo zertaz ari diren.

EUSKARALDIA



ENEKO AZURMENDI

Kajoi, 'belarriprest'-ez gainezka

Arrasateko Euskaraldia batzordeak antolatuta, *belarriprest* rola hartuko duten arrasatearrei zuzendutako saioa egin zuten martitzenean Kajoi tabernan. Antolatzaileek uste baino jende gehiago batu ziren, eta, Euskaraldiari eta *belarriprest* rolari buruzko xehetasunak emateaz gain, hainbat ideia partekatu zituzten, taldeka banatuta.

OHARRAK

Bisita gidatuak asteburuan

Ekonomia soziala ipar hartuta, Kultureteko klaustroan egingo dituzte; gaur eta bihar -17:30ean euskaraz; 19:00etan gaztelera-.

'Kamarada'-ren estreinaldian, Kulturete beteta

Aulki gehigarriak jarrita ere, areto nagusia bete egin zen, eta antolatzaileak pozik daude jasotako erantzun eta iritziekin.

Hitzaldia eta 'Artestura Feministak' erakusketa

Immigrazioarekin lotutako aurreiritziei buruzko hitzaldia egingo du Gorka Morenok; urriaren 25ean, Kultureten, 18:00etan. Horrez gain, Emakume Txokoak *Artestura feministak* erakusketa hartuko du urriaren 17tik azaroaren 15era.

"Ez naiz berriro aurkeztuko, urrats berriak behar dira eta"

ENKO BARBERENA ARRASATEKO EH BILDUKO BOZERAMAILEA

Ez da maiatzeko Udal hauteskundeetara aurkeztuko, eta orain, ibilbide bat hasiko dute EH Bilduren komunitateak hautagai berria proposatu eta aukeratu dezan

Xabi Gorostidi ARRASATE

Agintaldia amaitzeaz dela, *Harira* saioan izan da Arrasateko EH Bilduko bozeramailea.

Agintaldiko hiru urte joan dira eta laugarrenerantz goaz. Nola definituko zenuke?

Ez da erraza izan, batez ere, duela hiru urte irabazteko asmoz aurkeztu ginelako. Ez genuen esperotako emaitzarik jaso, eta jaitsiera bat izan genuen. Horren aurrean, erantzukizunez jokatu genuen eta lanean aritu gara herriaren alde; ulertu genuelako Arrasatek EH Bildu aktibo eta langile bat behar zuela.

Oposizio eraikitzailea egin duzue? Zuen boto emaileek espero zutena?

Uste dut duela hiru urte botoa EH Bilduri eman zion horrek badakiela guk erantzukizunez jokatzen badakigula. Arrasaten, forma ezberdinekin izan bada ere, agintean egon gara urte askotan zehar, eta badugu herri honekiko konpromiso bat. Gai batzuekin adostasunak azaldu ditugu eta beste batzuekin argi utzi nahi izan dugu gauzak beste era batera egin daitezkeela.

Arlo pertsonalean, nola bizi izan dituzu hiru urte hauek?

Egia da espero ez dituzun emaitza batzuekin aurkitzen zarela, eta horrek zer pentsa ematen du: kargua utzi, karguan jarraitu... Baina ezin genion emaitza horri bizkarrik eman, eta ikas-tea tokatzen zitzaigun. Entzutea ere bai. Etxe barruko eta etxe



Eneko Barberena, Goiena telebistako platoan. JAGOBA DOMINGO

kanpoko jendea entzuteko ahalgina egin dugu.

Aurkeztuko zara maiatzeko hauteskundeetarako hautagai gisa?

Ez naiz berriro aurkeztuko. Erabaki pertsonala izan da, eta oso lasai nago. Duela hiru urteko bideak emaitzak eman ditu, eta orain, beste egoera baten gaude. Optimista naiz, nire ingurunean ere optimismoa igartzen dut, eta urrats berriak behar dira.

Eta berri bat hasiko duzu laster, beraz. Non ikusiko zaitugu?

Hauteskundeak heldu arte lanean jarraituko dut. Maiatzerako kanpaina ere parte hartuko dut, eta hor egongo naiz EH Bilduren proiektua babesten. Hala ere, niretzako, hori ez da orain garrantzitsuena, EH Bilduk aurrean dituen udal hauteskundeak baizik. Zentzu horretan, gure komunitatearen ertz guztiengana heldu nahi dugu, euren hautagaiak proposatu ditzaten, eta ostean, botaketa bidez, hautagai berria aukera dezaten.

Noiz hasiko duzue prozesu hori?

Urriaren 29an herri batzar bat egingo dugu eta hurrengo hila-beteetan EH Bilduko komunitateak erabakiko du nor izango den nire ordezkoa. Ahalik eta parte hartze handiena lortzea da, orain, gure helburua.

Halako prozesu bat falta izan zitzaizuen, akaso, 2015ean?

Ez dakit, baina egia da jendeak parte hartze handiagoa eskatzen zigula. Gauzak ordura arte egin ziren bezala egin genituen, eta, agian, hori izan zitekeen gure

"EH BILDUREN KOMUNITATEAK ERABAKIKO DU NOR IZANGO DEN NIRE ORDEZKO HAUTAGAIA"

emaitza txarraren arrazoietakoa bat, beste hainbatekin batera.

Berriki, Arrasateko politikagintza baldintzatu dezaketen bi berritasun azaldu dira: Jaiki eta Ramon Ugalde buru izan dezakeen herritarren zerrenda. Nola ikusten dituzue?

Nik ez ditut kaltetik ikusten, errespetutik baizik. Jaikiren kasuan, ezjakintasun puntu batekin ikusten ditut, berriki jaio den talde bat delako. Baina ez dugu inongo mamurik ikusten. Elkarlanerako eta entzuteko prest gaude. Iritzi ezberdinak dituztenak agertzea herriarentzat zerbait positiboa izan daitekeela uste dut. Ramonen taldeari dagokionez, errespetuz hartzen dugu hau ere. Eragina izaten badu, orokorra izango da alderdi guztiengan. Baina, zentzu horretan, lasai gaude, eta lasaitasuna transmititu nahi dugu. Zerrenda osatzea lortzen badute, normaltasun osoz jardungo dugu eurekin.

Nolako erlazioa izan duzue Udal Gobernuarekin?

Metafora bat datorkit burura; igogailua jarri edo ez eztabaizatzen ari diren atari bateko bizilagun batzuen. Eztabaida sutsu askoak izan ditzakete, baina ziur atariak su hartuz gero bizilagunak segituan jarriko direla ados.

Azken osoko bilkuran, giroa ozpin-duta dagoela nabaritu zen...

Ordenantza fiskalekin egin dutena ez zaigu batere egokia iruditu. Iaz, akordio batera iritsi ginen, batez ere, ordenantza fiskalak erabili nahi genituelako errenta banaketa justuagoa lortzeko. Baina azken urteko lan osoa albo batera utzi dute, eta, guretzako, oso gogorra izan da hori ikustea. Gure duintasuna urratuta sentitu genuen, eta horregatik altxatu ginen aulkitik.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torresaldea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprelides 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.



Carmen opera, Arrasaten, 2012an. ARTXIBOA

Amaia antzokia operarik gabe geldituko da aurten

Ozenki elkarteak kexu azaldu zen pasa den astean, Udaleko Kultura Sailaren erabakiz aurten ezingo delako 'La flauta mágica' opera eskaini, herriko zarzuela ez kaltetzeko. Udalak dio bi ekimenen alde dagoela, eta ezezkoa hiru arrazoiarekin lotzen du

Jokin Etxebarría ARRASATE

Orain dela astebete, kexa-gutuna bidali zuen Ozenki elkarteak GOIENA aldizkarira, aste honetan eman nahi zuten *La flauta mágica* opera ikuskizuna ezingo zutela eskaini esanez. Elkarteak dioenez, sarrera-eskaera eta kontsulta asko jasotzen ibili dira azken egunetan, eta, atsekabeturik, aurten operarik ez dela egongo erantzun behar izan dute.

Opera ezin taularatzearen arrazoiak Udaleko Kultura Sailaren erabaki batetik datorrela egin dute kexa. Hain zuzen ere, departamentu horren esanetan, bi hilabete lehenagoko tartean izaera lirikoa duen beste saio bat egiteak zarzuelara joaten den jende kopurua kalteu dezake.

Ezezkoa emateko hiru arrazoi

Udalarekin harremanetan jarrita, argi utzi nahi izan du bi ekimenen alde dagoela, eta herrian zenbat eta ekimen gehiago sortu, hobeto dela. Hala, Ozenki elkar-

teari ezetza zergatik eman dion azaltzeko, 2018ko martxoaren 27an hartutako erabaki bat igorri dio GOIENARI. Bertan azaltzen du Ozenki elkarteak urriaren 17 eta 18rako opera emanaldia eskaintzeko Amaia antzokiaren erabilera eskaerari ezezkoa eman beharrean daudela, eta, horretarako hiru arrazoi nagusi eskaintzen ditu.

Lehena: Izaskun Murgia elkarte lirikoak duela 10 urtetik hona azaroan eskaintzen dituen zarzuela emanaldiak sustatu eta bultzatu nahi dituela Udalak, elkarteak Arrasatekoa delako, eta arrasatearrek osatua.

Bigarrena: uste duela zarzuelen emanaldiak baino bi hilabete lehenagoko denbora tartean

UDALAK ZARZUELA BAINO BI HILABETE LEHENAGORA ARTEKO DATA BAT AURKITZEKO AUKERA ESKAINI ZUEN

izaera lirikoa duen beste ekimen bat taularatzeak zarzuelara doan publiko kopuruan okerrerako eragina izan dezakeela. Urtea luzea dela, eta, bi ekimenak uztargarri izanik, beste data batean jartzeko aukera ematen duela.

Hirugarrena: Ozenki elkarteak urriaren 17 eta 18rako Amaia antzokia erabiltzeko eginiko eskaeraren aurretik, beste eskaera bat eginga zegoela urriaren 19rako –Korrontzi eta Oinkari taldeen emankizuna–, eta, kontuan hartuta behar diren muntaia eta desmuntatze lanak, bi emanaldiak ez direla bateragarriak.

Zarzuelakoen iritzirik ez

Ezinbestean bere burua polemikaren barruan murgilduta ikusi duen hirugarren zutabea da Izaskun Murgia lirika elkarteak. Haiekin harremanetan jarri da GOIENA, baina iritzirik ez dutela plazaratu nahi azaldu dute.

Kontuak kontu eta arrazoiak arrazoi, operarik ez da egongo aurten, eta polemika piztuta dago.

Huescan kantatuko du Goikobaluk asteburuan

Huescako San Viatoroko familiak urteurrena ospatzen duela eta, hangoek Arrasateko parrokiako koruarekin duten harremanaz baliatuta, Goikobalu abesbatza gonbidatu dute asteburuan Aragoiko hiriburuan kantatzera.

Bi emanaldi eskainiko ditu Goikobaluk: aurrena, ostiralean, Huescara iritsi bezain pronto, Ibercaja antzokian, eta bertan, ordu eta laurdeneko kontzertua emango du; bigarrena, berri, larunbatean, viatoristek espresuki prestaturiko mezan izango da. Horretaz gainera, Huesca hiria bisitatzeko aukera ere izango dute arrasatearrek, igandearen herrira bueltatu aurretik.

Korrontziren eta Oinkariren ikuskizuna Amaia antzokian

Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren 75. urteurreneko ekitaldiei amaiera emateko, Korrontzi taldeak, Oinkari dantza taldearekin batera, dantza eta folk musika ikuskizuna eskainiko du, 18:30ean, Amaian.

Korrontzi, 2014an azken diskoa atera zuenetik, hainbat proiektutan murgilduta ibili da; adibidez, gaur Arrasaten ikusi ahal izango den *Korrontzi dantzan* ikuskizunarekin.

Sarrerek 5 euroko kostua izango dute eta horiekin eskuratutako dirua Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren Kontseilu Errektoreak aukeratutako gobernu kanpoko elkarte bati emango zaio.

Rotten XIII, Taupan, Ganberock barruan; eta Libe, gaur, Iratin

Tafallan sortutako punk-rock taldeak kontzertua eskainiko du, bihar, larunbata, 20:00etan, Taupa tabernak antolatzen duen Ganberock jaialdiaren bosgarren edizioaren barruan. Irati tabernan, berri, kontzertua egongo da gaur: Libek *Ilargia erori da* diskoa aurkeztuko du, bere doinu sendo eta indartsu bezain hauskorrekin.



Lehen garaipenaren bila. ARTXIBOA

Sentsazio onak berreskuratzeko gogoz Iruñera

Ez da denboraldi hasiera onena izan ARTk bizi izan duena. Egia da bi partidua bakarrik jokatu dituela, baina oraindik ez du irabazterik lortu. Azken partiduan, Gernikaren aurka, gaizki ibili ez baziren ere, ondo hasitako lehiak amaiera txarra edukitu zuen. Astebeteko atsedena ongi etorri zaie Igor Isasiren mutilei, eta Iruñean lehen garaipena bilatzen ahaleginduko dira.

Mondrate, bigarren garaipenaren bila Gernikara

Mondrateko talde nagusiak denboraldiko hirugarren partidua jokatu du, zapatu arratsaldean, Gernikan. Lehen partiduan garaipena eskuratu eta gero, etxean ezin izan zuten irabazi arrasatearrek, eta, hori horrela, bederatzigarren postuan daude, momentu honetan, sailkapenean. Taulan gora egin ahal izateko ez du aurkari errazena izango Mondratek; izan ere, Gernikako taldeak aurreneko bi lehiak irabaztea lortu du eta oso gol gutxi jasotzen ditu.

Aurpegi berri asko ditu taldeak denboraldi honetan eta entrenamenduetan baloi jabetza luzeak edukitzea lantzen ari dira, jokalaria elkarren artean hobeto ezagutzeko bidea izan baitaiteke hori. Bakoitzak dituen abileziak erakusteko, zenbat eta denbora luzeagoan baloia eduki, hobeto. Hori izan daiteke, gainera, biharko partidako gakotako bat, defentsa lan sendoa, baloi jabetza luzeak eta aukerak aprobetxatzen jakitea.



Urte hauetan Amillena elkarteak egindako bisita gidatuetako bat. AMILLENENA

Bisita gidatu sorta baten aurrenekoa, domekan

'Ezagutu Aramaio' izenburupean egingo den irteera Amillena elkarteak eta Udalak prestatutako ikasturte honetarako egitarauaren barruan dago. Natura, mitologia eta beste hainbat gai landuko dituzte, eta haur, heldu zein nagusiengana iritsi nahi dute

Julen Iriondo ARAMAIO

Azkenaldian, batzuk badira Aramaion herriko ondarea jaso eta transmititzeko erakunde zein eragileek martxan jarritako ekimenak –Herri Curriculum eta *Antzinako Aramaio*, adibidez–, eta ildo berekoa da Amillena elkarteak eta Udalak, elkarlanean, orain antolatutakoa.

Bisita gidatu sorta bat izango da; aurrenekoa, domeka honetan bertan –11:00etan frontoitik irteenda, ordubeteko, helduentzat–. Ibarran barrena ibilaldia egin eta herriaren historiari eta ondareari buruz jardungo dute: bainuetxea, Bizente Goikoetxea, eliza, udaletxea, Sastiña eta ekonomatua izango dituzte hizpide.

Azaroaren 18an izango da hurrengo bisita, natura interpretazioa helburu izango duena –helduentzat hori ere–. Neguan etena egin, eta familientzako bisita mitologikoa egingo dute martxoan. Natura interpretazioarako irteera izango da berriro apirilekoa, baina, kasu ho-

rretan, gazteei zuzendua. *Betaurreko berdeak* izena jarri dioten ekintza egingo dute maiatzean familientzat, eta helduentzako Erdi Arorako bisita izango da ekainekoa, azkena.

Askotariko adinetako herriarrei ez ezik, baina, beste bi kolektibori ere, propio, egin nahi diete eskaintza. Horrela, eskolako ikasleentzako eta egu-

neko zentroko erabiltzaileentzako bisitak ere izango dira.

"Gure ingurua ezagutzen ez badugu, ez gara errespetatzera iritsiko", dio Libe Ramilak bisiton helburuari buruz galdetuta. Irteeretan izena emateko udaletxera deitu behar da edo aramaio.amillena@gmail.com helbidera idatzi.; 25 pertsonako taldeak izango dira, gehienez.

Amillena elkarteak

Aramaioko ondare naturalaren, kulturalaren eta historikoaren berri jaso eta hura transmititzeko sortu zen Amillena elkarteak duela bost urte; Libe Ramilarekin batera, Ainara Inuntziagak eta Jone Arriolabengoak dihardute ekimenean. Bisita gidatuez gain, bestelakoak ere egingo dituzte: proiektio bat, esate baterako, eguneko zentroko erabiltzaileentzat, eta *Betaurreko berdeak* tailerra familientzat: "Maskara berde batzuk egingo ditugu, haiekin begiratzeko gero errealitateari, kontsumo ohiturei; eta horiek aldatzeko moduez jardungo dugu", dio Ramilak; auzo-konposta, ekonomatua eta abar izango dituzte hizpide testuinguru horretan. Tailer hau eskolei eskaintzeko asmoa ere badute, eta, oro har, herriko zein kanpoko jendea erakarri nahi dute saioetara.

Herriko bertsolariak, Arabako Txapelketarako sailkapen bila

Bestalde, lehenengo kopla txapelketa egingo dute gaur, eta bertso bazkaria izango da bihar Kasatson

J.I. ARAMAIO

2019ko Arabako Txapelketan nortzuk ariko diren erabakitze-ko kanporaketak jokatu dira bihar hasi eta bi asteburutan. Aramaio hainbat bertsolarik jardungo dute: bihar, Maeztun, Andere Arriolabengoak eta Aitor Ugartek; domekan, Izorian, Paula Amilburuk; hurrengo barikuan, Bastidan, Xabi Igoak; zapatuan, Agurainen, Peru Abarrategik; eta hilaren 28an, Murgian, Martin Abarrategik.

30 bertsolarik hartuko dute parte, denera, bost saiotan, eta hamahiruk lortuko dute sailkapena –beste bost sailkatuta daude, 2017ko txapelketatik–, saio bakoitzeko irabazleek eta puntuazio onena duten beste zortziek.

Kopla txapelketa eta bazkaria

Hamabi bertsolarik –herrikoak eta Aramaiorekin muga egiten



Aitor Ugarte, eskolartekoan. GOIENA

duten herrietakoak– jardungo dute gaur kopla txapelketan. 18:30ean hasiko da, Goiko taberna parean.

Bestalde, Kasatson bertso bazkaria egingo dute bihar; Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua ariko dira kantuan.

Basolanak eta landatzeak, herriko hainbat ingurutan

Durakogain eta Gatzikarro aldean dauden udal basoetan inausketa, belar mozteak eta garbiketak egiten hasi da Beitia Naturlanak enpresa. 15.306,50 euro balioko dute lanok –Aldundiko diru laguntza jasoko du Udalak–. Bestetik, jabego publikoa duen Asensio mendian itsas pinua eta haritza sartuko dituzte, 9.680 euroko kostuarekin.

Euskara ikasteagatik diru laguntza eska daiteke 29ra arte

2017-18 ikasturtean euskara ikasten jardun izanagatik edo aurtur Udako Euskal Unibertsitatean parte hartu izanagatik Udalak emango dituen laguntzak dira; eskaera orriarekin batera, asistentzia ziurtagiria aurkeztu beharko da udaletxean. Izan ere, matrikularen %80 ordainduko du Udalak, asistentzia ehuneko horretatik gorakoa izan bada.

Hainbat auzotara ere iritsiko da laster zuntz optikoa

Azkoagara –Zabolara eta Altzagara ez–, Barajuenera, Uribarri-erdigunera–, Gureiara, Arexolara eta Arriolara eramango du Telefonikak zuntz optikoa; Ibarran eta Oletan lehendik ari dira zeregin horretan, eta azken asmoa da auzo guztietara zabaltzea zerbitzua. Europako laguntza batzuekin, Ministerioak eta Aldundiak kudeatzen dute gaia.

Hilaren 31n amaituko da argazki lehiaketan aurkezteko epea

Bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahaliko ditu, gehienez; denak, Aramaioakoak. Argazkiak CD batean edo pendrive batean aurkeztu beharko dira, udaletxean edo liburutegian. Sariak izango dira: irabazlearentzat, 200 euro; eta 100 euro, urtaro bakoitza ondoen islatzen duten argazkien egileentzat. Egutegia osatzeko, beste zazpi aukeratu dituzte.

"Emakumeen literatura salaketaz betea dago"

AINHOA GALLASTEGI GORBEIALDEKO IRAKURLE KLUB FEMINISTAKO DINAMIZATZAILEA Astelehenean ekin zion bideari euskarazko taldeak, Aramaion. Literaturaren bitartez kontzientzia feminista sakontzea da helburua, eta emakumeen lanei balioa ematea

J.I. ARAMAIO

Izena ematen duten pertsonen bizilekuaren arabera, Kuadrilako herrietan txandaka egingo dituzte saioak –astelehenean izena emana zuten guztiak aramaiorak ziren–.

Zer da irakurle klub feminista bat?

Hilean behin batuko gara izena ematen duten emakumeak eta ni, programaturiko dugun eta denok irakurriko dugun liburuaz hitz egiteko; aukeratutako liburu guztiak emakumeek idatzitakoak dira, eta ikuspegi feminista dutenak.

Zein da lehenengo liburu?

Arantxa Urretabizkaia *Bidean ikasia* (1993-2016) da. Alarde parekidearen defentsan berak idatzitako bizipenak, esperientzia eta hausnarketak jasotzen ditu. Pil-pilean dagoen gaia izanda, eta oso gertukoa, gainera, harekin hasiko gara.

Liburuak beti-beti izango dira esplizituki feminismoarekin lotuak?

Gehienetan, bai. Egia da liburu bat feminista izateko ez duela zertan beti aldarrikapen gai bat izan; baina emakumeen literatura, gehiena, edo asko, behintzat, salaketa sozialez, politikoz, ekonomikoz beteta dago; beraz, modu transzendentean askotan dago feminismoa. Eta gure ikuspegia hori da: kritiko literario femi-



Ainhoa Gallastegi, Aramaioko liburutegian. J.I.

"EGITEN DUGUNA DA LANOK DINAMIZATU, ERAKUTSI, AZPIMARRATU ETA BALIOETSI"

nistarena da gure jarduna, eta literatura horrela aztertzen dugu, generoaren eta feminismoaren ikuspegitik.

Beti egon da horrelako literatura, edo gaia pil-pilean dagoela-eta joera berriagoa da?

Emakumeek duela askotik idazten dute, baina egia da patriarkatuak oso erraz egiten duela emakumeen literatura, edo pintura edo beste edozer, desagerarazi. Kritiko literario feministaren bitartez lortu da emakume askoren lanak berreskuratzea; egiten duguna da lanok dinamizatu, erakutsi, azpimarratu eta balioetsi. Eta egia da, gaur egun, ari direla orain arte itzuli gabeko lanak itzultzen edo euskal feminismotik liburuak sortzen. Hala ere, oraindik oso ehuneko txikia dira halakoak.



Irudi eta lelo berria. EDURNE KORTABARRIA

'Aramaio bizi' leloarekin irudi berria erabiliko du Udalak

Orain artekoari, armarrari, ere eutsiko diote, ekintza eta jakinarazpen instituzionaletan

J.I. ARAMAIO

Lelo eta irudi berria hainbat komunikazio, kartel eta euskarritan erabiliko du Udalak. Honela, "kalera begirako irudia eguneratu eta modernizatu" nahi dute, "modu berean gertutasuna ere eskaintzeko".

Irudiak aplikazio berezia izango du, arloaren arabera; esate baterako, ingurumena, berdintasuna, kultura-kirola eta euskara: "Irudi honen helburua da aterki bat jartzea arlo bakoitzean sortzen diren ekintza, ekimen edota mezuei, komunikazioa hobetuz eta denok jakiteko zertan edo zein arlotan lanean dabilen Udala", azaldu dute.

Euskalkian jarri dute herriaren izena, "gertukoago" egiteko helburuarekin, eta *bizi* hitza gehitu diote, "bere zentzu zaballean", Aramaio "herri bizi bat" nahi dutelako, aramaiorrek bizi dutena eta bizi mantentzen dutena zentzu guztietan, "bizi kalitatez, ingurumenarekin, elkarbizitza ahalik eta on eta lagunkoienean...".

Edurne Kortabarría aramaiorrek sortutako irudia Udalak antolatutako hainbat ekintzatan erabiliko dute. Armarraria ez dute, dena den, alde batera utziko: ekintza eta jakinarazpen instituzionaletan erabiliko dute.



NIRE USTEZ

MAIDER ALDAI

Fokua

Pareko etxea ez, goikoa, osorik erre zen pasa den urtean. Ez dute balkoitik gora igo zen kearen orbana guztiz kentzerik lortu. Bost bat geruza pintura eman arren, zirrikituak aurkitzen ei du errautsak oraindik ere. Etxeak ez du bere memoria ezabatzerik nahi.

Gauza da etxea berriztu eta AirBnB edo holakoren baten iragarri dutela. *Nos han jodido bien!* Astero jende berria dugu. Gau bakarrerako datorrenik ere bada. Gure pisuko dinamikan eragin du: antsietatea sortzen digu parekoa ez ezagutzeak, bere ordutegien berri ez izateak, bere mania eta ohituren errebasoa egin ahal ez izateak, maitaleak ezin zenbatzeak.

Astebeterako datozenekin ez dugu horrenbesteko arazorik. Bilbo bi egunetan ikus daiteke, eta hortik aurrerako bost egunetan errutina txiki bat eraikitzen dute. Epe motzeko lasaitasuna eman eta badoaz. Hurrengo etorriko direnekin eszeptiko jartzen gara, aurrekoak minimoki estimatzeagatik.

Eta honetan guztian okerreana, orain, pareko etxeak gu begiratzen gaituela jakitea izan da. Fokua lekuz aldatu da. *Mierda!*

Berdinsarean sartu da Aramaioko Udala, udalbatzak erabakita

Berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako erkidego-ko udalen sarea da Berdinsarea. 69 udalerrri daude bertan, eta EAEko bizilagunen %79 ordezkatzen dute. Tokiko gobernue-tatik kudeatutako programa eta zerbitzuak bultzatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzea da sarearen egitekoa.

Hiru lagun lehenengo saioan

Astelehenean egindako aurreneko saioan, hiru lagunek hartu zuten parte. Ekimenaren nondik norakoak azaldu zizkieten, eta lehenengo irakurgaia jaso. Azaroko hirugarren egunean elkartuko dira berriro, liburuak komentatzeko. Oraindik eman daiteke izena, berdintasuna@gorbeialdea.eus helbidean edo 945-43 01 67 zenbakian.



Dinamizatzailea eta Berdintasun teknikaria, erdian, parte-hartzaileekin. J.I.

Argazki zaharrak kalean, oroimena astintzeko

Udaleko Kultura Sailak hamazazpi argazki zahar jarri ditu herriko hainbat kaletan, gunetan eta eraikinetan, sasoi bateko Aretxabaleta zelakoa zen jakin dezaten herritarrek. Argazki horiei jarraitutako bisita gidatua egingo dute azaroaren 18an

Mirari Altube ARETXABALETA

Egunotan han eta hemen jarri dituzten argazki zaharrek ikusmina sortu dute herritarren. Kultura Saileko kideen ekimena izan da, Joxe Migel Uribarren zinegotziaren burutazioa, hain zuzen ere: "Galiziako herri batean ikusi nuen, eta ideia hona ekartzea pentsatu dut". Udaleko Argazki Artxiboko argazkiak dira; hamazazpi, guztira. Eta sasoi bateko Aretxabaleta zelakoa zen gogoraraztea dute helburu: "Nondik datorren norbera jakitea interesgarria da", dio Uribarrenek.

Orain dela 100 urtekoak

Mojen komentua, tren geltokia, Beroa lantegia, Ibarra futbol zelaia, Copreci inguruak, Otalora kalea, udaletxe zaharra... eta, hala, beste hainbat eraikinetako eta gunetako argazki zaharrak jarri dituzte, bakoitza dagokion lekuan, lehengo eta oraingoa alderatzeko moduan. "Aretxabaletaren gaineko beste ikuspegi bat ematen dute erretratu horiek; bestela, bat-bateko ikuspegia bakarrik daukagu", adierazi du Aitor Antxia Leturiak, Argazki Artxiboko kideak. Hain zuzen, Uribarrenekin batera egin du argazkien aukeraketa. "Zaharrenak orain dela 100 urte ingurukoak dira; Otalora kalean, esaterako, mikelleteak ageri dira. Beste hainbat herritar ere jaso dira argazkitan". Beste batzuetan, oster, eraikinak bakarrik jaso dituzte; Errotazar, adibidez: "Lausittako zubian dago jarrita, askok ez dute-eta horren berririk".

Bisita gidatua, azaroaren 18an

Uribarren zinegotzia pozik dago herritarrek egin dioten harrearekin. Izan ere, asko eta asko geratu dira argazkiei begira, batzuk seme-alabei azalpenak ematen eta beste batzuk, kua-drillatan jardunean.



Hainbat lagun argazki zaharrei begira Lausittako zubi inguruan. MIRARI ALTUBE



Parrokiaren atzeko partean jarritako plaka. M.A.

1943ko abuztuko ur handiak

Parrokiaren atzeko parteko horman, Lausittara bidean dagoen zubi inguruan, plaka bat jarri dute, 1943ko abuztuan izandako uholdea gogoan izateko. Hona hemen plakak dioena: *1943-08-28 San Agustin eguna. Honaino heldu zen erreka ura.*

Jakinik argazkietan agertzen den Aretxabaletaren gaineko kontuak gero eta gutxiagok dakizkitela, ekimenaren sortzaileek argazki horien gaineko argibideak eman gura dituzte; hala, bisita gidatua antolatu dute:

"Kalebarrenean hasita, banan-banan argazki guztiak ikusiaz, kontu-kontari paseotxo egingo dugu", dio gidari lanak egingo dituen Antxia Leturiak. Azaroaren 18an izango da hori, domeka.



Txitxi-burruntziak gertatzen iazko jaian. MIREN ARREGI

Hainbat jatorritako jatekoa, kantuak eta dantzak domekan

22. Gastronomia eta Folklore Jaiak hainbat autonomia erkidegotako ordezkariak elkartuko ditu Herriko Plazan

M.A. ARETXABALETA

Gastronomia eta Folklore Jaiak 22.ez dator domekan, eta, oraingoan ere, Galizia, Extremadura, Gaztela eta Leon, Errioxa eta Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkaturako dituzten postuak izango dira Herriko Plazan (10:00-14:30), gura beste jateko eta edatekorekin.

Kantu eta dantza emanaldiak ere izango dira. Errioxako Voces del Ebro taldekoek kantuan egingo dute, eta Donostiatik etorritako Galizia etxeko ordezkariak gaita doinuekin girotuko dituzte bazterrak.

Laudioko San Fernando taldekoek Gaztela eta Leongo dantzen erakustaldia egingo dute. Eta Arrasateko Corazon de Encina kultur elkarteko extremadurarrak ere bertan izango dira.

Aratzek postua jarriko du, eta Basotxoko kantu taldeak, eskualdeko hainbat erretiratu elkartetako kideekin batera, kantuan jardungo du kaleetan.

Patxaran lehiaketa

Urtero lez, etxean egindako patxaran lehiaketa ere jokatu da. Plazan bertan aurkeztu behar da, domekan (11:00-14:00).

Ausartak taldeak 'Las chicas del balneario' eskainiko du etzi

Eskoriatzako Ausartak taldea *Las chicas del balneario* lanarekin dator domekan (19:00) Arkupera, Antzerki Hilabetearen barruan. Bizitzaz gozatzea erabaki duen emakume talde baten gorabeherak eskainiko dituzte oholza gainean.

Kultura Saileko kideak pozik dira Antzerki Hilabeteak orain arte emandakoarekin: "Lanek arrakasta handia izan dute publikoaren aldetik. Ikastetxei zuzendutako emandaldietan 630 ikaslek hartu dute parte. Horrez gain, eskaini diren beste lau saioetan ere ikusle ugari izan da; 350 herritar inguru hurbildu da; hortaz, oso arrakastatsua izaten dabil ekimena".

OHARRAK

Manifestaziorako deia

Bihar, Donostian egingo den *Orain presoak* manifestaziora joateko autobuserako izen-emate epea gaur bukatuko da. Honako taberna hauetara jo: Urbaltz, Gurea eta Azkena.

Ipuin kontaketa

Amelie ipuinen jostun kontalariak *Txanpon baten truke* ipuina kontatuko die umeei urriaren 27an, 11:30ean, liburutegian.

Javier Liñera oholztan

Antzerki Hilabetearen baitan, Ekoma Teatrok eta Javier Liñerak eskainiko dute *Tendríamos que haber empezado de otra manera* lana, hilaren 26an, Arkupen, 22:00etan.



Ane Zuazubiskar irakaslea eta ikasle helduak, joan den astean egindako bilera batean. LEKAIXOKA BERTSO ESKOLA

Bertso eskolak gogotsu ekin dio ikasturteari

Adinaren arabera hiru talde sortu dituzte Lekaixokako kideek: haurrena, gazteena eta helduena. Eta bakoitza astean behin elkartzen da dagokion irakaslearekin. Oraindik ateak zabalik dituzte hiruretan, eta izena emateko nahikoa da hara joatea

Mirari Altube ARETXABALETAK

Lekaixoka bertso eskola hasita dago lanean. Hala ere, oraindik ateak zabalik dituzte kide berriak: "Ikasturte berria hasi dugu jada, baina bertso gosez dabilen edonorentzat ateak zabalik dauzkagula jakinarazten dizuegu", diote. Izena emateko, hona hemen bidea: 669 61 49 60. "Informazio gehiago nahi duenak ere horra dei egin dezake".

Aurten, hiru talde sortu dituzte: haurren taldea (8 urtetik) egubakoitzetan elkartuko da, 18:15ean, eta irakaslea Haizea Arana izango da. Gaztetxoek taldeak (14 urtetik) astelehena du lanerako egun, 16:30ean, eta Martin Berrizbeitiak gidatzen ditu eskolak. Eta helduen taldea asteazkenetan elkartzen da, 19:00etan, Ane Zuazubiskar bertsolari arrasatearrarekin.

Gero eta heldu gehiago

Loramendi elkartearen bueltan sortutako bertso eskolak hamar urte bete zituen iaz: "Lekaixoka

izenarekin urte gutxiago daramatxagu; lauzpabost, esango nuke", dio Martin Berrizbeitiak, Lekaixokan sorreratik dagoen kideak. "Joan-etorri handia izan da taldean, eta kideok izan dugu eboluzio bat. Taldeak berak, oster, antzeko dinamikarekin jarraitzen du lanean; hau da, helburua izanik ondo pasatzea eta bertsozaletasuna sustatzea", adierazi du. Pozik dago, gainera, helduen mahaiaren bueltan gero eta gehiago direlako.

Gazteen artean eragiten

Ikasle izateaz gain irakasle ere izango da Berrizbeitiak aurten; gazteen taldeko gidari, hain zuzen ere: "Ez da samurra gazteen artean eragitea; nik esango nuke

ONDO PASATZEA ETA BERTSOZALETASUNA SUSTATZEA DITU HELBURUEN ARTEAN LEKAIXOKAK

beranduxeago gerturatzen direla bertsolaritzara horiek". Dena den, antolatu dituzten azken saioetan ikusle gazteak oso gustura igarri dituela dio; sanmigeletako balkoitik balkoirako saioan, esaterako.

Bertso eskola hizkuntza lantzeko eskola ere izan daiteke, umeen kasuan, esaterako: "Baina ez du zerikusirik eskolako dinamikarekin, era ludikoan lantzen da. Gazteen artean, oster, klaseak teknikoagoak dira".

Bi bertso saio laster

Berrizbeitiak berak jendaurrean jardun ohi du bertsotan; gainerako kideak, oster, ez hainbeste: "Bertsotan egiteko gai den jendea badago taldean, bai horixe, baina norberak hautatzen du zein pauso eman gura duen".

Herrian bertsozaletasuna sustatzeko ahalegin horretan, azaro eta abendua bitartean, bi saio antolatuko dituztela iragarri dute Lekaixoka bertso eskolako kideek.

Ugastegira joango dira bihar, Loramendik gidatuta

'Ugastegiko bidetik' da Toponimia Taldeak antolatu duen hamargarren ibilbide historikoa

M.A. ARETXABALETAK

Hamargarren ibilbide historikoa gertu du Loramendiko Toponimia Taldeak, eta bihar, urriak 20, joango dira ezagutzera. Ugastegi inguruko parajeak bisitatu dituzte oraingoan.

Zailtasun ertaineko sei ordu inguruko ibilalditxoa iragarri dute, Urkulun, Iraban baserri alboko aparkalekutik 08:30ean irtenda: "Arbe gainean Artetatik igoko dugu, eta Troxkara joan. Pepelin koba eta Santu koba ikusi eta Korostako Arratetik igoko gara Ugastegiko goi lau-

tadara. Santikurtz ermita bisitatu, Ziherbidetik Arbela inguruan dauden txaboletara joan eta Urzulo ikusiko dugu", argitu du Gorka Madinabeitiak, Toponimia Taldeko kideak, eta gaineratu: "Ugastegiko errekon-dora jaitsiko gara gero, Zuzenbidetik Larratsutik pasatuta. Gaztanbidera igo, eta handik, Erdiko Esateko Aska ikusiko dugu, Intsiniseko Arratetik behera Irabanera itzultzeko". Hamarretakoa norberak eraman beharko du, eta gomendatu dute botak eta praka luzeak eramatea.



INMA MIGUEL

Abesbatzak Madrilen abestu du

Madrilgo San Anton parrokian, Bakearen Mezulariak GKEaren sortzaile *Padre Angel* abade ezagunaren parrokian, izan zen Aretxabaleta Abesbatza urriaren 12an. Meza eta hainbat kanta abestu zituzten; besteak beste, *Alfonsina y el mar*, *Maite* eta *Gure Aita* —entzuleek eskatuta—. Lepo bete zen eliza, eta elkartutakoek hunkituta jarraitu zituzten kantak.

UDAKo taldeen aurkezpena gaur eta saiheski-jana bihar

Elkarteko kirol talde guztiei argazkiak aterako dizkie UDAK gaur, egubakoitza, Ibarra futbol zelaian (16:45-19:00). Ekitaldia AZ Gaubelak-ek girotuko du.

Bihar, oster, saiheski dastatzea egingo dute Mitarte kalean (18:30). "Kalitatezko jatekoa eta musika ona" lagun, iluntze partea girotuko dute UDAKo kideek, beste behin.

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK



Eskoriatzako Alex Gorosari, Aratz Kortazar eta Joseba Bartol ehiztariak birigarroak eskuetan dituztela. JOSEBA BARTOL

Ehiza xeherako postu zozketa martxan da

Aldaype ehiza eta arrantza elkarteak antolatzen duen ehiza postuen zozketa urriaren 9an hasi zen, eta azaroaren 18ra arte iraungo du. Hori horrela, egunero, 18:00etatik 20:00etara bitartean, Intxaurtxueta 9ko etxabea egingo da banaketa

Imanol Beloki ESKORIATZA

Iritsi da ehizarako zaletasuna dutenek urte osoan zehar irrikan itxaroten duten garaia. Hau da, ehiza denboraldia. Goizean goiz, eskopeta, kartutxoak eta hamaiketako hartu eta goiz esnatzeko garaia izaten dena. Horrekin batera, dagoeneko hasi ditu Aldaype ehiza eta arrantza elkarteak postu zozketak.

Aldaype elkartearen egoitzan egunero batzen dira ehiztariak, Intxaurtxueta auzoko bederatzigarren atarian; astelehenetik egubakoitzera bitartean egiten da zozketa, 18:00etatik 20:00etara, eta postu onena lortzeko asmoz joaten dira guztiak. Egubakoitzetan, berriz, aste bukararako eta astelehenerako zozketa egiten dute, eta azaroaren 18ra arte izango ditu Aldaypek ateak zabalik. "Pasa den egubakoitzean, esaterako, 50 lagun etorri ziren zozketara, baina ez da kopuru handia. Aurrera begira, jende gehiago hurbilduko dela uste dut. Baliteke egun

batzuetan batzuk postu gabe geratzea ere... Dena den, oraindik, hego-haizea ez da sartu asko gurera, eta ez dira usoak pasatzen ari. Ibili direnek, asko jota, lau edo bost birigarro ehizatu dituzte...", adierazi du Gerardo Canterak, Aldaype ehiza eta arrantza elkarteak kideak.

Ehizatzeke hegaztiak

Hegazti migratzaileen paseko garaia da orain, eta honako hegazti hauek ehizatu daitezkeela adierazi du Gerardo Canterak: "Birigarroak, usoak eta arabazozoak ehizatu daitezke garai honetan. Hala ere, arabazozo arrunt horiak ehizatzea debekatuta dago *Pseudoleistes virescens*-, eta oilagorrak ere ezin

**URRIAREN 9TIK
AZAROAREN 18RA
BITARTEAN EGUNERO
EGINGO DA POSTU
ZOKETA, ALDAYPEN**

dira postuetan ehizatu, ehiza-barrutietan bakarrik".

Prezioak, ezberdinak

Eskoriatzan, bi lineatan lortu ahal dituzte postuak zozketara doazenek: batetik, Lete, Apotzaga eta Marin auzoetako lur-eremuetan dauden 87 postuetakoak; eta, bestetik, parke naturalean, Alabitan, batzen diren 77 postuetakoak.

Hori horrela, prezio ezberdinak ordaindu behar dituzte Aldaypeko bazkide direnek edo ez direnek. "Izen-ematea bi euro da, eta egokitutako postua beste bi euro ordaintzen du bazkide denak. Bazkide ez denak, berriz, eguneko izen-emateagatik lau euro ordaintzen ditu eta beste lau, postuagatik. Horrez gain, euren lurretan postuak dituzten jabeek %20az orekatu behar dute. Hau da: bost postu dituen lur-jabe batek postu bat berak erabiltzeko izango du"; berak aukeratutakoa izango da hori.

EUSKARALDIA

'Aholku-sorta' izeneko bi saio, Euskaraldiko zalantzak argitzeko

Urriaren 22an izango da lehenengoa eta urriaren 24an bigarrena; biak ere, kultura etxean, 18:00etan

I.B ESKORIATZA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo den Euskaraldia 11 egun euskaraz ekimenetarako izen-emateak hasi dira apurka-apurka egiten eskoriatzarrak. Dagoeneko 200 lagun batu dira egitasmora, eta arieketa behar bezala egiteko *ahobizi*-en eta *belarriprest*-en rolak beharrezkoak direla adierazi dute batzordekideek.

Zailtasunak identifikatu

Oraindik ekimenaren berri ez dutenentzat eta informazioa eskuratu nahi dutenentzat, *Aholku-sorta* izeneko bi saio izango dira. Bata, urriaren 22an, astelehenen, 18:00etan, kultura etxean, eta bigarrena, urriaren 24an, eguaztenean, ordu berean.

Ordubeteko saioak izango dira eta helburua da Euskaraldian izango diren zailtasunak identifikatu eta horiek aztertzea, formakuntza eran. Hala, Euskaraldira ondo prestatuta joateko helburuarekin egingo den arieketa berria da. "Gutxitan izan ditugu ele bitako elkarrizketak eta 11 egunetan horietan saia-

tuko gara. Beste herri batzuek egin dute lehenago, eta han izandako esperientziak kontatuko ditugu, izan dituzten arazoak identifikatuko ditugu eta parte-hartzaileei erremintak emango dizkiegu Euskaraldira indarrez eta ilusioz iristeko. Hori da asmoa; ez dakit lortuko dugun", adierazi dute batzordekideek.

Gazteentzako saioa

Gazteei Euskaraldiaren berri emateko saioa ere izango da, gaur, 19:30ean, kultura etxean. 16 urtetik gorako edozeinentzat izango da. Hamaikakoaren parte izango diren hainbat kide bertan izango dira; egitasmoaren nondik norakoak azaldu, euskarak Eskoriatzan eta herritarrengan duen garrantzia azpimarratzeko eta ekimenarekin bat egin dezaten eskatzeko.

'Belarriprest'-en beharra

Arieketa ondo irten dadin, *ahobizi* eta *belarriprest* profilak behar dira. Bata edo beste ez dago lotuta euskara gaitasunari, bakoitzak 11 egun horietan beteko duen jarrerari baizik.

Donostiako manifestaziorako autobusa Inkerutik

Urriaren 20an *Orain presoak* lelopean Donostian egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Eskoriatzatik. Hain zuzen ere, txartelak Inkerun lortzeko gaur izango da azken eguna.

Antiguako tuneletik aterako da manifestazioa, 17:00etan, eta helburua da "milaka kilometrotara urrundua diren eta giza eskubideak urratuak zaizkien euskal presoan egoerari irten-bidea" ematea eskatzea. Hasiera batean, Bilbon zen egitekoa, baina, Bilbao Night Marathon lasterketa dagoenez, manifestazioa hiriburuz aldatu eta deialdia Donostian egitea erabaki zuten antolatzaileek.

Ezkurtxo Eguna Mazmela auzoan ospatuko dute

Ezkurtxo udazkenari ongietorria ematen izango da zapatuan Mazmela auzoan. Hori horrela, bertan, eliza ondoan, askotariko ekintzak izango dira. Hiru eta erdietan izango da autobusa Goiko kalean, Aingeru Guardako autobus geltokian.

Arizmendi Ikastolak antolatutako jaiaren 21. edizioa izango da aurtengoa, eta jolasak, pinak egiteko tailerra, ibilaldi txiki bat, ipuin kontaketa eta txokolate-jana izango dira, besteak beste. Antolatzaileek bertako bizilagunei jaiaren berri eman nahi diete, festara batu nahi badute bertaratzeke, eta bertan dagoen elkartera doazenak ere jakinaren gainean egon daitezten.

Emakumezko seniorrek gaur hasiko dute liga

Areto futboleko Eskoriatzako emakumezko taldeak Ordiziaren aurkako partidua jokatu du gaur, 22:15ean, Manuel Muñoz kiroldegian. Hiru fitxaketa berriekin hasiko du denboraldia, eta partidu gogorra aurreikusten dute taldekideek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gipuzkoako ligako areto futboleko senior mailako emakumezkoek gaur hasiko dute denboraldia. Ordiziaren aurka izango dute lehenengo jardunaldia, Manuel Muñoz kiroldegian, 22:15ean.

Eskoriatzako neskek aurkari gogorren aurka lehiatu beharko dute denboraldi berriari hasiera emateko. Izan ere, Ordizia Bigarren Maila Nazionalen egon da hainbat urtez, eta, kategoria mantendu duten arren, uko egin diote mailari. Hori horrela, senior mailan arituko dira aurten, eta partidu gogorra aurreikusten dute etxekoek. "Taldea ona dute, baina guk ere berrikuntzak ditugu. Izan ere, hiru fitxaketa egin ditugu aurten: bi kanpo jokalaria, Goizane eta Ane, eta atezain bat, Nerea. Azken hau bueltan da, berriz, bi urtez Ordizian egon eta gero. Hala, taldean hamabi emakume ditugu: hamar jokalaria eta bi atezain", adierazi du Ander Romero entrenatzaileak.

Entrenatzeko zailtasunekin

Manuel Muñoz kiroldegiko kan txan entrenatzeko aukera gutxi daude talde guztiek entrenatu ahal izateko, eta, horregatik, aire librean egin behar izan



Eskoriatzako emakumezko taldea, denboraldi-aurtean. ANDER ROMERO

dituzte entrenamendu saioak iraileko lehen hiru asteetan Eskoriatzako neskek: "Hiru urtez, Aretxabaletako Ibarra kiroldegian izan gara entrenatzen, Eskoriatzan ez dagoelako ordu librerik. Hala, denboraldi honetan, Aretxabaletan ere ez dugu aukerarik entrenatzen jarraitzeko; izan ere, talde berriak sartu dira, eta, inongo azalpenik gabe, azken momentuan kalean utzi gaituzte. Hala ere, Eskoriatzako Udalak eman digu irtenbidea, eta ahal izan duten neurrian lekua egin di-

gute; batez ere, Eskoriatzako Kirol teknikariari eskerrak eman nahi dizkiogu".

Hori horrela, entrenamenduak izango dituzte astelehenetan 21:00etatik 22:00etara eta egue-netan 19:45etik 20:45era.

Gonbidapena

Horren harira, lehenengo partidua ezohiko ordutegian izango duten arren, herritarrei kiroldegira joateko gonbidapena egin gura izan diete Eskoriatzako seniorrek, giro ederra aurreikusten baitute.

Askotariko ardoak izango dira azaroaren 10ean, ardo dastaketan

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako ekimena, 18:30etik aurrera, Fernando Eskoriatza plazan

I.B ESKORIATZA

Hamaikagarren urtez egingo da Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatzen duen ardo dastatzea.

18:30ean hasita, Fernando Eskoriatza plazan, hainbat postu jarriko dituzte, eta bertan ardo

mota ezberdinak probatzeko aukera izango da; ardo onduak, Euskal Herriko ardoak eta atzerriko ardoak; eta pintxo bereziak egongo dira. Horrez gain, aurten ere herriko txistulariak bertan izango dira.

'Musua' lana, oholtzara

Ardo dastaketa egunean, ohitura den moduan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen lan berriaren estreinaldia egingo da Eskoriatzan. Aurten, *Musua* izeneko lanarekin igoko dira oholtzara eta azaroaren 10ean Manuel Muñoz kiroldegian izango da, 17:30ean. Hori horrela, sarrerak urriaren 22tik aurrera egongo dira kiroldegian salgai. Prezioa sei euro da, eta adin guztietakoek sarrera beharko dute sartzeko.

LEINTZ GATZAGA

23



Ekitaldian parte hartu zutenak. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Askotariko ekitaldiak izango dira gesaltza guztiak batzeko jaian

Gipuzkoako Foru Aldundian egin zuten, pasa den egunean, Gatzaren Egunaren aurkezpen ekitaldia

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Domeka honetan ospatuko da, Leintz Gatzagan, Gatzaren Eguna. Aurten, hirugarren aldia izango da, eta Debagoiena Gastronomika ekimenaren barnean, bertako produktuak oinarri moduan hartuta, hainbat jarduera antolatu dituzte egunera-ko: gatzen eta produktu ekologikoen azoka, bisita gidatuak, hitzaldiak, musika eta dantzak, besteak beste.

Horren harira, pasa den egunean, Gipuzkoako Foru Aldundian egin zuten Gatzaren Egunaren aurkezpen ekitaldia. Bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo zuzendari Maite Cruzado, Leintz Gatzagako ordezkari Jon Zuazabeitia eta Garaia Landa Garapen Elkarteko Agurtzane Diaz eta Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Saileko Ana Heriz izan ziren.

Ezagutzak partekatuz

Beste Gesaltza batzuekin batera antolatu nahi izan dute jaia, eta bakoitzak bere ezagutzak, esperientziak... partekatzea da jaiaren helburuetako bat: "Nafarroatik Jaitzekoak, Arabatik Añanakoak, Gaztelatik Poza de la Sal-ekoak eta Artetatik eta Elgorriagatik etorriko diren baieztatzeko dugu", adierazi du Jon Zuazabeitia, antolatzaileetako batek. "Horrez gain, azoka ekologikoa, Gatz Museora bisitak, Jakoba Errekondoren hitzaldia eta basoaren humanizazioa ikusteko baso ibilaldia izango dira, besteak beste".

Senidetze egitasmoa

Salieseko (Biarno) eta Gatzagako ekoizpen sistema ezberdina izan arren, senidetzea sinatzea erabaki dute, Europara begira interesgarria izan daitekeela uste dute eta.

Gatzagarrek ere Euskaraldiarekin bat egin dute


Euskaraldia Batzordea eratu dute Leintz Gatzagan, eta lehenengo herri batzarra egin dute, euskara sustatzeko egitasmoaren nondik norakoak herritarrei azaltzeko.

Hamaikakorik ez dutela osatuko adierazi dute, bestalde, batzordekideek; hala ere, herritarren parte-hartzea sustatu nahi dute, eta, horretarako,

datorren astetik aurrera, kanpaina handitzea da asmoa, hain zuzen ere, gatzagar guztiengana Euskaraldia egitasmoaren mezua heltzeko.

Deialdi zabala herritarrei

Lehenengo herri bileran hainbat herritar batu baziren arren, hainbat bilera deituko dituzte hemendik aurrera, batez ere, izen-emate kopurua handitzeko, herritarrek dituzten zalantzak argitzeko eta izen-ematea nola egin behar den azaltzeko.



Elhuyar anaien wolframioa oinarri hartuta sortu dute 750. urteurreneko postrea: *Wolfram goxoa*. BASQUE CULINARY CENTER

Asteburu gozoa bezain historikoa

Gaur inauguratuko dute, Laboratorium museoan, 750. urteurreneko erakusketa, eta bertan dastatu ahalko da Basque Culinary Center-ek sortu duen 'Wolfram goxoa' izeneko postrea; bihartik aurrera, okindegi eta gozotegi batzuetan eta bi jatetxetan salduko dute

Jokin Bereziartua BERGARA

"Gaur egun ezagutzen dugun Bergarara heltzeko lan ugari egon da aurretik. 1268an Bergarak hiri-agiria jaso zuenetik gaur egunera arteko mugarri nagusietan oinarritutako ibilbidea egitea proposatzen dizuegu". Hitz horiek izan ditu 1268an hasi eta gaur egunera arteko Bergarako historia laburtzera datorren erakusketaren arduradun Jon Arroita.

Izan ere, historialariek diote hiri-gutuna jaso eta hiribildua sortzean hasi zela Bergara herri moduan funtzionatzen, orduan hasi zela bergararren ibilbidea.

Gaurtik urtarilaren 9ra arte

Erakusketa gaur inauguratuko dute Laboratorium museoan eta bertan egongo da urtarilaren 9ra arte. Erakusketan ikusi ahal izango diren piezetako

asko Mariaren Lagundiak, Miguel Altuna Lanbide Heziketak, Buruñako Kofradiak eta herriarrek egindako dohaintzak izan dira. "Eskerrik asko urteurrenaren bueltan lanean ari zareten herritar guztioi!", adierazi du Udalak.

Emakumeen lanari aitortza

Erakusketak lau esparru ditu: lurraldea, elkarbizitza, ekonomia eta kultura, eta, ahalik eta herriar gehienei heltzeko asmoz, erakusketaren laburpena egiten duen eta bertara gonbidatzen dituen plataforma bat ere jarri-

OSAGAI NAGUSIA DA GORRINGOZ BETETAKO BIZKOTXOA, TXOKOLATEZ INGURATUTA DAGOENA

ko dute Iralan. Gainera, bisita gidatuak antolatuko dira, ikasketxeentzat zein herritarrentzat. Horrekin batera, Laboratorium-en sarreran, modu iraunkorrean, jarri dituzte zortzi mende hauetan emakumeen presentzia eta garrantzia nabarmentzeko beste panel batzuk. "Bada ordua neurri handi batean gerizpean geratu den lan hori azaleratzeko", uste du Elena Lete alkateak.

Pintxoaz gain, postrea ere bai

Gaurko erakusketaren inaugurazioak osagai berezi bat izango du, bertan dastatu ahalko da eta lehen aldiz 750. urteurreneko postrea. *Tranpantojua* izeneko 750. urteurreneko pintxo elkarte gastronomikoen arteko lehiaketa baten bidez jaio zen, eta urteurren bereziko postrea Basque Culinary Centerrek egin du, Udalak eskatu-



Alvarez de Monek Irizarren emandako hitzaldia, astelehenean. JOKIN BEREZIARTUA

Zientzia eta berrikuntza jardunaldiak

Edurne Alvarez de Mon ONCEko lan inklusiorako espezialistak hilaren 15ean emandako hitzaldiarekin eman zitzaion hasiera zientzia eta berrikuntza jardunaldiei. 24 urterekin istripu larri batek bizitza goitik behera aldatu zion arren, baikortasunaren eredu da Alvarez de Mon [urriaren 26an elkarriketa zabala argitaratuko da *Puntua* aldizkarian].

Jardunaldien barruan, azaroaren 11ra arte, zientzia eta berrikuntza arloko gaiak jorratzeko saioak egongo dira —egitaraua www.ztbergara.eus webgunean dago—. Adin guztiendako ekintzak daude eta, bereziki gazteendakoen artean, azaroaren 10ean eta 11n izango den Wolfram Encounter-erako izen-ematea zabalik dagoela jakinarazi dute antolatzaileek. Honako helbide honetan eman beharko da izena: <http://ztbergara.eus/wolfram/parte-hartu-nahi-dut>. Aurten, ohi baino lehenago antolatu dira jardunaldiak, ikasleen partaidetza errazteko.

'Leku historiko' izendatzeko ekitaldia

Bihar, urriak 20, izendatuko dute Bergara *leku historiko* zientzia ikuspegitik. Estatuan hirugarren tokia izango da izendapen horrekin, Bartzelonaren eta Madrilaren ostean. Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaiek wolframa isolatu izanari esker jasoko du izendapen hori Bergarak, European Physical Society (EPS) elkartearen eskutik. Izendapen bereziak bihar, zapatua, hartuko du forma; izan ere, Laboratorium museoaren atarian plaka bat jarriko dute eta ondoren ekitaldi ofiziala egingo dute Seminarioa aretoan. Ekitaldi horretan hitza hartuko dute, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakariak, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok, Donostia International Physics Center (DIPC) ikerketa zentroko presidente Pedro Miguel Etxenikek eta EPSko presidente Rüdiger Voss-ek.

ta. Urtebeteko prozesuaren ondoren, Elhuyar anaiek isolatutako elementu ezaguna abiapuntu hartuta, *Wolfram goxoa* gertu dago herriarrek dasta dezaten eta gaur bertan emango dute ezagutzera, Laboratoriumeko erakusketaren irekiera ekitaldian. Udalak adierazi duenez, herriko gozogile, okindegi eta jatetxeak gonbidatuak izan ziren prestaketa prozesura eta BCCko tailerrean parte hartzeko aukera izan zuten. Prozesuak prozesu, bihartik aurrera gozo preziatua honako leku

hauetan dastatu ahalko da: herriko Bolintxoren eta Ogiberriren okindegi guztietan, Larrañaga gozotegian eta Lasa eta Zumelaga jatetxeetan. Hortaz, okindegiez eta gozotegiez gain, garai honetan horren ohikoak diren kintada ospakizunetako protagonista ere izango da.

Postre berriaren osagai nagusia da txokolatez inguratutako gorringoz betetako bizkotxoa; hori bai, aurrerantzean, herriarrek epaituko dute gozo berria erreilenoen eta tostoiaren pare jartzerik badagoen edo ez.

Erretiratuendako aukera zabala San Joxeperi esker

Kultura Asteko ospakizunetan murgilduta dago 1.700 bazkide inguru dituen San Joxepe elkarteak eta orain arte egin dituzten ekintzetan "jende kopuru polita" batu dela diote; bihar, hilak 20, izango dute azken ekitaldia, urteroko bazkari eta opari banaketarekin

Jokin Bereziartua BERGARA

"Urteko gure ekitaldi nagusieta-ko bat da Kultura Astea eta baliogutzu digu, besteak beste, elkarteak bera ezagutzera emateko. Izan ere, erretiratu asko daude oraindik elkarteetara ez direnak eta gonbidatu gurako genituzke elkarteak ezagutzera, ez dira-eta aspertuko". San Joxepeko presidente Jose Ramon Eguren argi dauka Bergaran bizi diren erretiratuendako "aukera ederrak" eskaintzen dituela elkarteak.

Gaur egun, 1.700 bazkide inguru ditu elkarteak, eta eskaintza zabala horren adibide da urriaren 11n hasi zuten eta bihar, hilak 20, amaituko den Kultura Astea: "Orain arteko ekitaldietan, jende asko batu da. Saio batzuk oso interesgarriak izan dira eta beste batzuk ez horrenbeste, baina guztietan elkarteak gara erretiratu kopuru polita. Eta hori oso pozgarria da".

Egunero zerbait, egunero jendea
Orain arteko ekintzekin pozik daude; izan ere, hilaren 11ko Jon Molina parrokoaren hitzaldiak, astelehenean Aranzadi elkarteetara Jose Antonio Aperribaik bereziki landare kaltegarrien inguruan eskaintako saioak, martitzeneko ONCeren Oroimenak taldearen *La Fiesta de la Madon-*



Askotariko eskulanen erakusketa izan dute asteen, besteak beste. SAN JOXEPE ELKARTEA

na antzezlanak, eguaztenean Aretxabaletako koruarekin batera emandako kontzertuak eta atzo Pasaia egindako irteerak erantzun ona izan dute.

Umeekin, Bergararen inguruan
Kultura Astearen barruko beste ekitaldi bat izaten da hiru ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleekin egiten duten saioa: "Erretiratuok umeei Bergararen gaineko hainbat galdera egiten dizkiegu eta ondoren gure aurrean ematen diegu emaitzen berri. Erantzun gehien asmatu

duenari sari berezi bat ematen diogu, baina ikasle guztiak irteeraren diru sariarekin. Ekintza oso polita da", dio Eguren.

Urteroko Lizarrara irteera

Kultura Asteetik haragoko hurrengo ekitaldia azaroaren 15ean izango da, Lizarran: "Urtero arrakasta handia izaten duen irteera da, beti betetzen da autobusa bat. Jendeak askotariko produktuak erosteko aprobetxatzen du". Irteera horretarako, betiko moduan, elkartearen bertan eman behar da izena.

EUSKARALDIA



EUSKARALDIA BERGARA

Aretoa, jendez eta ilusioz lepo

Goraino bete zen Irizarko Euskaldun Berri aretoa, Kike Amonarrizek hilaren 10ean herritarrek aktibatutako 365 arrazoi izenburupean emandako hitzaldian: "Euskaraldia aukera bikaina da gaitasunean izan dugun hobekuntza erabilerara eramateko". Euskaraldiaren gaineko argibide gehiago jasotzeko edo izena emateko: 943 76 36 61 edo 605 71 24 69 / bergaraeuskaraldia@gmail.com.

Irabaziren bozeramaile Aiert Lizarralde 'Harira' saioan, urriaren 23an

Goiena telebistak martitzenetan ematen duen *Harira* saioan, Debagoieneko alkate eta zinegotziak elkarrizketatzen dituzte eta datorren astean Aiert Lizarralde Bergarako Irabaziren bozeramaile izango da gonbidatua. Udaltzaletza-aren lanaz, oposizioarenaz, urtarrilean inauguratu zen Seminarixoa aretoa eta berriki albiste izan diren Zubietako kaleko lanez galdetuko dio, besteak beste, saioa aurkezle Eneko Azkaratek. Herritarrok ere baduzue galdera egiteko aukera. Horretarako, bidali galdera, Whatsappez eta Telegramaz 688 69 00 07 zenbakira; edota posta elektronikoz berriak@goiena.eus helbidera.

OHARRAK

1930ean jaioetakoak

Azaroaren 3an, Ibargaraiko olibondoetan (14:00) elkartuko dira. Zumelagan bazkalduko dute: Mari Tere (943 76 26 23) edo Manolita (943 76 22 22).

1933an jaioetakoak

Azaroaren 11n, Zumelagan bazkalduko dute (14:15). Izena emateko, 943 76 16 00 (Miren) edo 943 76 24 04 (Garbiñe).

1935ean jaioetakoak

Azaroaren 4an elkartuko dira eta Lasan bazkalduko dute (14:15): 943 76 21 13 (Mertxe).

1951n jaioetakoak

Azaroaren 10ean, Irulan (20:00) elkartu eta Zumelagan afalduko dute: 615 70 90 02.

HARIRA

GOIENA TELEBISTA, ELKARRIZKETA ETA EZTABAIDA

HARIRA EZTABAIDA,

URRIAREN 19AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

HARIRA EZTABAIDA SAIOA GOIATZ ARANAK GIDATUTA

ELKARRIZKETA AIERT LIZARRALDERI (IRABAZI, BERGARA),

URRIAREN 23AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

HARIRA ELKARRIZKETA SAIOA ENEKO AZKARATEK GIDATUTA

goiena
Zu hemen zaude.



"Nora jo ez dakien jende asko dator zerbitzuetara"

MARI CARMEN BARRENETXEA ALDERDI SOZIALISTAKO ZINEGOTZIA

Hirugarren agintaldia du jarraian Barrenetxeak, eta, "nahiko nekatuta" dagoen arren, oraindik ez du erabaki alkategai aurkeztuko den 2019ko udal hauteskundeetarako

Jokin Bereziartua BERGARA

Gizarte Zerbitzuetako ardura izan du eta bertan egindako lanarekin pozik dago: "Mizpirualdeko kudeaketaren aldaketak ez du erabiltzaileengan eta langileengan eragin, eta hori ona da".

Nola baloratzen duzu zure gobernuaren orain arteko lana?

Lana ona izan da, herriarendako oso inportanteak diren proiektuak gauzatu dira. Gure helburua argia izan da: ez dadila inor entzuna izan gabe geratu.

Zuen gobernukide den EAJrekin harremana ona izan da beti?

Harremanak, oro har, oso onak eta errespetuzkoak dira. Hori bai, talde bakoitzak bere helburuak ditu eta gai batzuetan nork bere ideologiaren arabera bozkatzzen du. Hori gertatu zen, adibidez, Kataluniaren edota zamaketariaren gaineko mozioetan.

Zeintzuk dira proiektu horiek?

Batetik, Seminarixoa aretoa. Herritarrendako altxor bat da, urte askoan eskatu izan dena. Esfortzu handia izan da, baina merezi izan du. Bestetik, seminarioko parkinga dago. Hau ere, herritarren aspaldiko eskaera bat; gauzatzeko konpromisoa hartu genuen, eta aurrera doa. Bestalde, garrantzitsua da gogora ekartzea gobernuan sartu ginenan giroa nolakoa zen hondakinen kontura. Gobernu honek hitza bete, eta edukiontzia bueltatu zituen kaleetara. Eta horrekin, bakea itzuli zen. Herritarrek politikarioi lezio bat eman ziguten, eta ikasi egin genuen.

Oposizioarekin harremana ona da? ETA desagertu denetik, harremana hobea da; gogoan daukat osoko bilkuretara bizkartzainekin sartu behar izaten nuela. Ikuspegi ezberdinak ditugu, eta, unean uneko haserrealdiez harago, harremana ona da.

Gizarte zerbitzuetan egiten den lanetik zer nabarmenduko zenuke?

Laguntza eskatzera datorren jendearekin egiten den lana.



Mari Carmen Barrenetxea, San Martin plazan, astelehenean. JOKIN BEREZIARTUA

"HONDAKINEN AUZIAN, HERRITARREK LEZIO BAT EMAN ZIGUTEN POLITIKARIOI, ETA IKASI EGIN GENUEN"

Eguneroko laguntzaz gain, aholkularitza lan handia ere egiten da; nora jo ez dakien jende asko etortzen zaigu, eta horiei begira ere jartzen ditugu gure eskuetan dauden baliabide guztiak.

Zure ardurapeko batzordeko neurrien bat nabarmenduko zenuke?

Gazteak emantzipatu ahal izateko bideratu genuen aurrekonturako partida. Laguntza hori lehentasun bat izan da guretzat; iaz jarri zen martxan eta emaitza positiboak eman ditu. Horrez gain, Jaurilaritzak martxan jarritako Euskadi Lagunkoia egitaspora batu berri gara, adineko pertsonen komunitatearen alde egin dezaketen lana sustatzea helburu duena.

Mizpirualde egoitzaren kudeaketa Udaletik Diputaziora pasatzeko fasea nola bizi izan duzue?

Udalarendako aldaketak ekarri ditu, baina garrantzitsuena izan

da erabiltzaileek, senitartekoei eta langileek ez dutela aldaketarik igarri. Izan ere, Diputazioak berea zen konpetentzia onartu izanak ahalbidetu du zerbitzua eta prezioa bera izatea eta egoitzako langileendako baldintzak zeudenetan mantentzea. Erabiltzaileendako eta langileendako, denak berdin jarraitzen du, eta hori albiste ona da.

Alkategai izateko aurkeztuko zara 2019ko hauteskundeetan?

Ez dut oraindik erabaki. Ordua heltzen denean, publikoki jakinaraziko dut. Alderdiarendako baliagarria izan gura dut, nagoen lekuan nagoela; bitartean, berregarren alde jarraituko dut lanean, politikan sartu nintzen eguneko konpromiso berarekin.

Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Bai. Gizarte Zerbitzuetako urteek asko bete naute, asko ikasi dut. Udal ordezkariok herritarrei laguntzeko gaude, umiltasunetik lanean jarraitu behar dugu. Hori da gure betebeharra. Izan ere, jende asko dago ez dakiena nora jo, eta Gizarte Zerbitzuetan bukatzen dute; departamentu honetako ateak beti egongo dira zabalik, horiei guztiei laguntzeko eta orientatzeko.



NIRE USTEZ

DAMIAN MADINABEITIA

Maitte al dittugu?

Joxean Artzek maitte zittuan euron baztarrak, baina euron baztarrak gure baztar berberak al die? 2010eko EJK eta BFAk egindako azterketiaren arabera, Bizkaixan daren lau zuhaitzetik bat bakarrik da bertakua. Hola nekeza da bazterrok hain guriak dienik pentsatzia.

Radiata pinuaren eta hango pinuen antzagaitik hasiko al zien Kanadako basuak Atxagaren eta Laboaren zerebrotan, orduan? Baina gaixotu egin da insignisa, eta zuhaitz gorritz bete die mendixak udazkena etorri aurretik. Honek ekarriko zittuan, agian, azken boladan entzuten dien eukaliptuaren inguruko zurrumurru bildurgarriak. Lehen aittatutako azterketa horrek be badino 2010ian Bizkaiko kostan dagueaneko 15.000 hektarea eukalipto bazerela. Eta datu bezela: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zuhaitz-eremu danan –ezin jako edozeri baso deitu– %10etik gora egur ustiapenerako lur publikuak die. Publikuak!

Ruper, noiz hasiko gara maitte dogun hori zaintzen? Inori entzun izan dotzat euskaldunok alemanen antzik badaukagula... Nahiko nittuzke guretzat euron baztarrak, basuak...



ARANZADI IKASTOLA

Ohorezko aipamena nazioartean

Goiena komunitatea / Aranzadi Ikastola / BERGARA

Urriaren 5etik 7ra Bartzelonako Viladecans herrian egin zen *Ciencia en acción* nazioarteko zientzia lehiaketaren barruan, aranzaditarrok ohorezko aipamena jaso genuen fisika erakustaldien sailera aurkeztu genuen *Camera obscura* proiektuari esker. Keplerren diseinua duen kamera ilun erraldoia eraiki genuen.

Erorikoak prebenitzeko tailerra antolatu dute, adinekoei begira

Bi saio teoriko-praktiko izango dira: lehena azaroaren 6an eta bigarrena azaroaren 8an, 16:30etik 18:00etara. 64 urtetik gorakoei eta euren senide edota zaintzaileei begira antolatu dituzte, erorikoaren kopurua murrizteko. Izena eman ahalko da azaroaren 2ra arte, osasun-zentroan (943 03 54 00) edo Agorrosinen (943 77 70 95), bertaratuta edo telefonoz.

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

"Geroago eta hobeto ikusten dut taldea"

MIKEL JUARISTI BERGARA KE-KO ENTRENATZAILEA

FUTBOLA Azkoitiarrak liga hasieraren gaineko balorazioa egin du, eta aurtengo denboraldiari begira taldeak dituen erronken gainean jardun du GOIENArekin

Xabier Urzelai BERGARA

Bergarak ez du iazkoa bezalako denboraldi hasiera ikusgarriarik egin –bederatzi partidutatik zazpi irabazi zituzten, eta bi berdindu–, baina Mikel Juaristi entrenatzailea ez dago bereziki arduratuta: "Espero genuen lekutik nahiko gertu gaude, baina taldea geroago eta hobeto ikusten dut; hori da garrantzitsuen".

Joan den asteko Deusto Donostiaren kontrako garaipena ondo etorri zaio taldeari.

Bai, oso ondo. Etxean jokatu ditugun hiru partiduetatik bat irabazi dugu, eta garbi dugu guk Agorrosinen izan behar dugula indartsu. Bergarak historikoki hortxe batu ditu puntuak, etxean. Horregatik, kanpoan lortutako garaipen hori oso ondo etorri zaio taldeari, batez ere, konfiantza puntua hartzeko.

Diozu liga hasiera honetan espero zenuten lekutik gertu zaudetela.

Halaxe da. Taldean iaztik hona baja garrantzitsuak izan ditugu, postu erabakigarrietan, gainera, eta klubak erabaki du baja horiek bigarren taldeko jokalariekin eta gazte mailakoekin osatzea; alegia, kanpotik jendea ekartzen ibili beharrean, etxeko jokalarien aldeko apustua egitea. Pozik nago egiten dabiltzan ekarpena-



Mikel Juaristi. GOIENA

rekin, baina denbora behar da. Kategoria honetan etxekoan aldeko apustua egiten denean, trantsizio urteak egoten dira, batez ere, hainbat beteranok taldea uzten dutenean. Gainera, aste hauetan hainbat jokalarik min hartu dute eta horrek ere ez digu askorik lagundu; ea lehenbailehen errekuiperatzen diren.

Anaitasuna erakusten dabil besteak baino gorago dagoela.

Anaitasuna ondo ezagutzen du-dan taldea da, eta, egia esateko, ez nuen uste horren ondo hasi-

ko zutenik liga [jokatutako sei partiduetatik seiak irabazi dituzte]. Gaur egun, edozein kategoriatan zaudela ere, oso zaila da sei partidu jarraian irabaztea. Hirugarren Mailatik jaitsi dira, eta kategoria berrira egokitu eta etxeko jokalariekin jokatzearen aldeko erabakia hartu dute. Talde ona dute, eta bai, indartsu hasi dira. Dena dela, dagoeneko aurrealdean dabiltzan Eibar, Tolosa... horiek ere talde indartsuak dira.

Zer-nolako taldea da bihar Agorrosinen bisitari egongo den Amaiak Bat?

Amaiak Bat beti da talde arriskutsua; batez ere, erditik gora. Ez da kontrario erraza izango [Bergarak batutako puntu kopuru berbera du Debako taldeak, zortzi puntu].

Lehenengo jardunaldiak jokatuta, dagoeneko zehaztuta dituzue urteko helburu nagusiak?

Ez ditugu ipini sailkapenera begirako helburuak. Nire ustez, entrenatzaile baten helburuak izan behar du taldea etengabeko hobekuntzan dagoela ikustea, ekainean ikustea taldeak hobekuntza nabarmena egin duela. Partidu guztietan lehiakorrak izan gura dugu, eta gazteak taldearen dinamikan sartzen dabilatzala ikusi.

Ligako lehenengo puntua batuta, Pasai Donibaneren kantxara

ESKUBALOIA Bergarako taldeak 25-25 berdindu zuen joan den astean, etxean, Egiaren kontra

X.U. BERGARA

Ligako hirugarren jardunaldia jokatuko dute Soralue BKEkoek asteburuan, eta oraindik goiz da ligan aurrean zeintzuk ibiliko diren aurreratzeko. Hautagaiak, baina, hasi dira azaltzen, eta Eibar, Elgoibar eta Bidasoa Irun dira hiru adibide.

Soralue BKEk, berriz, duela hamabost egun liga hasiera gogorra izan zuen Munttarperen kantxan. Mahoneroek 33-20 galdu zuten, eta, hasiera baino ez bada ere, kantxan erakutsitakoaren ostean alarmaren bat edo beste piztuko zen.

Puntu baliagarria, etxean

Beldur horiek, baina, Egiaren kontrako partiduan uxatu zituzten. Etxekoek beste itxura bat erakutsi zuten; gorabehera handiko partidua izan zen, berdindua, eta, bergararrek azken



Jaurtiketa egiteko gertu. GOIENA

segundoetan irabazteko aukera izan bazuten ere, ez zuten gola sartzerik lortu. "Partidua osotasunean ikusita, puntu ona lortu dugu", esan zuen Josetxo Muniategik. Biharko kontrario Donibanek, berriz, Bergarak baino puntu bat gehiago dauka.

SASKIBALOIA Ligako hirugarren garaipenaren bila

Gipuzkoako txapelketan lehiari dabiltzan Soralue BKEko mutilek Goierri Modelos Ezguba taldearen kantxan jokatuko dute domeka arratsaldean (18:00, Urretxu). Orain arte, bina partidu irabazi eta beste bina galdu dituzte, baina joan den astean 46-31 irabazi zuten Electricidad Perosanzen kontra, eta horrek arnasa eman die.

PILOTA Asteburuan errendimenduko txapelketa hasiko dute

Asteburuan hasiko dute eskuz banakako Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa, eta ibarreko pilotalekuetan hainbat norgehiagoka izango dira. Gaur, Bergaran, 19:30ean hasita, hiru partidu jokatuko dituzte. Lehenengo alebinena izango da eta ondoren etorriko dira gazteenak eta seniorrenak. Bihar, zapatua, 11:30ean jokatuko dute azkena.

**TELEIXA
BILTEGIAK**

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegaraia)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerrak
Leihoak - Tarimak
Egur lanak

121
K
KALITATEA
Enpresa lehiatzailea Nº90/025



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Ikasturte hasiera berezia egingo dute irratian

Txapa Irratiak denboraldi berriko irratsaioak aurkeztuko ditu aste bukaeran kartzela zaharrean; Txapada Erradikala jaialdian joko dute The Potes, What A band, BBAX Distortsioen Munduan eta Isuo Ta Kezman taldeek, besteak beste

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Txapada Erradikala. Hori izango da aste bukaeran Txapa Irratiko lagunek eskainiko dutena. Ikasturte berria gogor hasteko modua izango da jaialdia. Gaztetxean eskainiko dituzte emanaldiak; "bereziak" izango dira. Gaur, egubakoitza, The Potes taldeak disko berria aurkeztuko du. Emanaldi berezia izango da; izan ere, azaroaren 15ean beteko dira lau urte Jul taldekidea Bergarako gaztetxean zuzenean jotzen zebilela hil zela. Modu batera edo bestera, Arrasateko musikaria oso presente egongo da gaurko emanaldian.

The Potes taldeak bere lehen lan luzea aurkeztuko du, 22:30ean: *Ametsak dira egi erabat bete aurretik*. Bergara zergatik aukeratu duten azaldu du Josu Romeo taldekideak: "Egun oso latza izan arren, Bergarako jendea primeran portatu zen. Gaztetxearekin eta gaztetxeokoein zor bat genuela uste genuen, eta taldekideoi arantza bat kentzeko balioko digu. Arantza kendu eta eskerrak emateko modua izango da". The Pogues omentzeko sortu zuten taldea, 2012ko Gabonetan; sei urteren ondoren, eurek sortutako abestiak dituzte. "Taldekideok estilo ezberdinak ditugu; hala, denetarik entzun daiteke diskoan. Abesti ilunak daude, baladak... Orain artekoarekin alderatuta ezberdina dela esan daiteke", dio Romeok.

14 bat irratsaio propio

Bihar, zapatua, denboraldi berriko programazioa aurkeztuko dute gaztetxean. Txapa Irratiko arduradunek azaldu dute oraindik irratsaio guztiak lotu barik dituztela; hala ere, 14 bat irratsaio propio izango dituztela gaineratu dute.

Ondoren, What A Band taldeak eskainiko du kontzertua. Bergarako taldeak *Thousand tons*



The Potes taldeko kideak. POLIKARPO

ZAPATUAN, IRRATIKO DENBORALDI BERRIKO PROGRAMAZIOA AURKEZTUKO DUTE ZUZENEAN

of steel disko berria aurkeztuko du. Eskarmentu handiko musikariak dira; Fiachras, Bizardunak, Mahaster River, Belceblues eta Brigada Criminal taldeetan ibilitakoak, besteak beste. *Thousand tons of steel* euren bigarren diskoa da. Musika estilo ezberdinak jorratu dituzte: amerikar sustraiak dituen musika estiloan sakontzen du, country rocka eta halako doinuak eskainita.

Bergarako musikarien emanaldiaren ondoren, eta gaua ondo amaitzeko, Txapa Jaia egingo dute: Haus Of Beats eta Turtukiña DJak igoko dira taula gainera musika jartzera.

Behi Bideko Andere Xuriak

Etzi, domeka, 18:00etan hasiko dituzte emanaldiak. BBAX Distortsioen Munduan eta Isuo Ta Kezman taldeen txanda izango da.

Behi Bideko Andere Xuriak Iparraldetik datorren taldea da eta hegoaldean egingo duten emanaldi bakarra izango da Bergarakoa. Besteak beste, Mirentxu Aguerre, Pantxix Bidart, Karine Etxeberri, Aline Etxeberri, Marie Bidart, Sebastien Desgrans, Jurgi Ekiza, Allande Etxeberri, Paxkal Indo eta Paxkal Irigoyen musikari handiek osatzen dute taldea. Herri kantutradizionalak eskainiko dituzte, rock ukituarekin.

Isuo Ta Kezman taldea Urretxu-Zumarragatik dator. *Bihar akaso* disko berria aurkeztuko dute. "Bidaia astralak eragiten dituzte beraien tresnak erabiliz", diote antolatzaileek.

Bai gaurko, bai biharko eta baita domekako emanaldiak ere 5 euroren truke izango dira.

Internet bitartez entzun daiteke

Aste bukaera osoko emanaldiak eta baita aurkezpena ere zuzenean entzuteko aukera egongo da. Txapa Irratiko 97,2 frekuentzian egongo da horretarako aukera; horrez gain, www.txapairratia.org atarian streaming bitartez eskainiko dituzte emanaldiak.



Loreto Aramendi organoa jotzen. GEMMA SANCHEZ

Organo erromantikoaz goatzeko aukera, zapatuan

Loreto Aramendi organo jotzaileak eskainiko du emanaldia, Arv-Vocem eta P. Migel Aginagarekin batera

A.E. BERGARA

Organo erromantikoaren XIX. zikloko bigarren emanaldia eskainiko dute zapatuan Santa Marina parrokian, 19:00etan. Loreto Aramendi organo jotzailea, Arv-Vocem abesbatza eta Pedro Miguel Aginaga biolin jotzailea izango dira Santa Marinako agertokian. Kontzertua doan izango da.

Elkarlanean antolatuta

Aurten ere Azkoitia, Azpeitian –Loiola– eta Bergaran izango dira emanaldiak. Bergaran hasi zuten zikloa –azaroaren 6an–.

Helburua haxe da, antolatzaileen esanetan: "Gure ondare diren organo erromantikoei balioa eman, horien balioa eza-gutzera eman eta musika esparru zabala eta interesgarri honi lekua egitea".

Bergararrak, Loiolan

Bergaran musikaz goatzeko aukera izateaz gain, bergararren musika entzuteko aukera ere egongo da. Kasu honetan, Azpeitian. Urriaren 28an, Azpeitiko Juan de Antxieta eta Bergarako Musika Eskolako organo ikasleek saioa eskainiko dute.

Liburutegiaren Eguna ospatuko dute datorren astean

Urriaren 24an, Liburutegiaren Nazioarteko Eguna izango da eta horren bueltan hainbat ekintza egingo dituzte Udal Liburutegian. Eguaztenean, hilaren 24an, 18:00etan, irakurketa taldearen solasaldia egingo dute. Uxue Alberdiren *Jenis Joplin* liburua arteztuko dute. Egubakoitzean, Maite Franco ipuin kontalariaren saioa izango dute; eskola orduetan hiru saio eskainiko ditu. Egubakoitzean, 18:00tan, 4 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa libre egingo dute liburutegian. Martitzenean, urriaren 30ean, 19:00etan, Ines Bengoak nagusiendako ipuin kontaketa eskainiko du.

Fernando Martinezen eskulturak daude ikusgai Aroztegin

Fernando Martinez eskultoreak erakusketa jarri du Aroztegi aretoan. Abanto-Zierbenako eskultoreak egurrezko eta burdinazko lanak egiten ditu, eta horiek jarri ditu ikusgai Bergarako aretoan. Hasiera batean, egurra lantzen zuen Martinezek eta orain dela bi urte hasi zen burdinarekin. Eskultura abstraktuak dira, bertikaltasuna eta harmonia helburu dutenak. Lanak urriaren 28ra arte egongo dira ikusgai –domeka–. Aroztegi orduetgia da: martitzetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

GORBEIA ZURE SUPERPLANA

**ZATOZ
ETA GOZATU!**

GARI BRAVO MIKEL BIZKARRA JULEN IRIZAR ARITZ BAGÜES*

PADEL&SPA GORBEIA
KIDS' CITY

BIG KARTING-PAINTBALL INDOOR
PAUSE&PLAY CINES GORBEIA ZINEMAK

CROSSFIT GORBEIA
ZURE AISIALDI PLAN ONENAZ GOZATU

 Parque Comercial Gorbeia


GORBEIA

EUSKADI-MURIAS TALDEKO TXIRRINDULARIAK*
centrocomercialgorbeia.com

Amaitzear, baserrietara ura eramateko lanak

Galartza auzoko ur-sarea egiteko lanak bi aste barru amaituko dituzte. Hala, Bergaraldeko baserriak urez hornituta gertatuko dira. Hurrengo urtera begira, berriz, Irimo aldeko baserriendako ur-sareko lanak abiatu gura ditu Antzuolako Udalak

Maidar Arregi ANTZUOLA

2009an abiatu zituzten Antzuolako baserrietara ura eramateko lanak. Hala, depositua egin ostean, Lizarraga auzotik hasi ziren ur-sarea zabaltzen. Urtero-urtero ur-sarearen zati bat egiten joan da Udala.

Lizarraga, Uzarraga eta aurten Galartza auzoa urez hornitzean amaituko dituzte orain dela hamar urte hasi zituzten lanak. "Lizarraga auzoan dago iturburua, eta Antzuolako baserriak urez hornitzeko nahikoa zela erakutsi zuen proiektuak. Kalitatezko ura da Abaroako iturburuan dagoena. Baina kantidadea ere badago. Ur-deposituak 200.000 litro ur jasotzeko ahalmena dauka", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Hala, depositua egin ostean, Lizarraga auzotik hasi ziren ur-sarea zabaltzen. "Iturburua egin genuen sarearen enborra. Poliki-poliki, adarrak zabaltzen joan gara. Ondoren, baina, erabaki genuen behar handia zuela Galartza auzoak eta une honetan bertan ari gara azken faseko lanak amaitzen".

700.000 euroko inbertsioa

Hamar urteren ostean, Galartza auzoko lanekin emango zaio amaiera azken fase honi. Inbertsio handia izan arren Antzuolako Udalarendako, helburua beti izan dela ura baserrietara eramatea azpimarratu du Kortabarria alkateak: "Inbertsio eta ahalegin potoloa izan da Udalarendako. 700.000 euroko kostua



Galartza auzoan langileak ur-hoditeria sartzeko lanetan. MAIDER ARREGI

DATORREN URTEAN, IRIMO ALDEKO BASERRIETARA URA ERAMATEKO LANAK EGINGO DITUZTE

tsio handia izan arren Antzuolako Udalarendako, helburua beti izan dela ura baserrietara eramatea azpimarratu du Kortabarria alkateak: "Inbertsio eta ahalegin potoloa izan da Udalarendako. 700.000 euroko kostua

izan du. Baina urik ez edukitzea ere egoera larria da eta egun, ezin dugu hori onartu. Ur-sare osoa batera egitea ezinezkoa izan da eta inbertsio jarraituaren aldeko apustua egin dugu; hamar urteren buruan gauzatu dugu. Badakit jendea oraindik zain dagoela, eta ahaleginean jarraituko dugu".

Horregatik, Beñardo Kortabarria alkateak jakinarazi du Irimo aldeko baserrien txanda izango dela datorren urtean eta baserri guztietara ura eramateko ahalegina egingo dutela.

Ertzaintzak zirkulazio-araudia betearaziko du aurrerantzean

Herriarrek adostutako zirkulazio-araudia ez da guztiz betetzen; horregatik Ertzaintzak hartuko du ardura

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bi urte bete dira zirkulazio-araudi berria onartu eta indarrean jarri zela. Udalak herriarrek batera adostu zuen arautegia. Araua, baina, guztiz betetzen ez dela ikusita, aurrerantzean, Ertzaintza arduratuko da hura betearazteaz. "Araudi berriaren ezaugarrietako bat da Kalebarraren eta plazan, egun iluntzeetan eta zapatu eguerditik astelehen goizaldera arte ibilgailuendako itxita dagoela. Salbuespen batzuk baditu: bizilagunak sar daitezke gunera zama-lanak egitera, bertan denda edo tabernaren bat daukatenak, anbulantziak, Ertzaintza... Gainerakook ez daukagu hortik pasatzeko baimenik", dio Udalak. Araudia nahiko ondo betetzen dute herriarrek, baina kasurik egiten ez dutenak ere badira: "Egoera horrek lasai dabilzan



Antzuolako erdigunea. M.A.

oinezkoendako arriskua dakar, begirada txarrak, enfrontamenduak, eta abar. Egoera ikusita, eta kontuan hartuta udaltzainik ez daukagula herrian, urriaren 15etik aurrera, Ertzaintza arduratuko da zirkulazio-araudia betearazteaz".

Eremu psikologikoa, arreta eta meditazioa lantzeko saioak

Jesus Maria Mata antzuolarrak hamarkada bat darama barrukotasuna lantzen gaztetxoekin eta helduekin. Urteak daramatza adimen espirituala bere kabuz ikertzen eta lantzen. Ikasturte honetarako, hastapenerako saioaz gain, egunerokotasuna lantzeko ikastaroa ere antolatu du Matak: "Egunerokoan zeure funtsezkoenarekin konektatuago egoteko

eta zaren horren kontzientziarekin bizitzeko, ekintza bat proposatzen dugu". Saio hori lehenengoz eskainiko da, gainera: urriaren 19an, azaroaren 9an eta 30ean, abenduaren 21ean eta urtarrilaren 11n. Kasu honetan, meditazioaren praktikan esperientzia izatea eskatzen da. "Hiru astean behin elkartzeko gara; egubakoitzetan, 18:30etik 20:00etara, Orlanen, hiru hila-betetan". Izena emateko, Whatsappez (669 13 29 00); edo postaz (nigan@yahoo.com).

200.000 litro ur

Baserrietara ura eramateko eskaera ia baserri guztiek egin dute. Eta Abaroako iturburuak badauka eskaera horri erantzuteko ahalmena. 200.000 litro ur batzen ditu deposituak.

Sei kilometro

Ur-sareak sei kilometroko hoditeria dauka, eta Bergara aldeko baserriak urez hornituta gertatuko dira jada.



Lizarraga auzoan dagoen ur depositua. MAIDER ARREGI

Datorren urtean zazpigarrenez egingo da A8M lasterketa

2019ko otsailaren 17an, Antzuolako 8 Milak Mendi lasterketa zazpigarrenez egingo dela iragarri berri dute antolatzaileek. Lasterketaren gaineko xehetasunak eta izena emateko epearen berri, baina, aurrerago jakinaraziko dute. Iaz indarberrituta etorri zen lasterketa: Ane Zaballak eta Hassan Aitchaouk irabazi zuten nagusitasun osoz.

Santa Kruz apaizaren kobazulora irteera egingo du Arrolak

Urriaren 21ean, domeka, Santa Kruz apaizaren kobazuloa bisi-tatzera joango dira Arrola Mendizale Taldeko kideak. Ibilbidea zirkularra da eta lau ordu eta erdi iraungo du. Irteera 08:00etan izango da, Orlanen. Aramaion hasi eta Tellamendira joango gara. Handik, Ipiztera eta Santa Kruz apaizaren kobazulora. Gero, berriro Aramaiora".



PILI NEIRA
'BELARRIPREST'-A



TOÑI FLORES
'BELARRIPREST'-A



M. EUGENIA DORNALETCHÉ
'BELARRIPREST'-A



CRISTINA MORAIS
'BELARRIPREST'-A



DANIEL SANCHEZ
'AHOBIZI'-A



SERAFIN TENA
'BELARRIPREST'-A



PAKO CABRERA
'AHOBIZI'-A



IBAN HERZOG
'AHOBIZI'-A



AURELI COT
'BELARRIPREST'-A



Mª JOSE FERNANDEZ
'AHOBIZI'-A



SARA LORDA
'BELARRIPREST'-A



CARLOS ANGELES
'BELARRIPREST'-A

Euskararen ordezkariak

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo da Euskaraldia. Antzuolan, baina, hamaika egun horiez gain, ekimenarekin jarraitu gura dute, ohiturak eta aurreiritziak albo batera uzteko asmoz. Hala, hamabiko talde eragilea hasia da jada lanean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Hamaika + 1. Aurkeztu dituzte Antzuolako Euskaraldian hamaika egunez eragile izango diren hamabi kideak. Eta hamabi, zergatik? Bada, hamaika egunez euskaraz bai, baina horri jarraipena eman gura diete-lako aurrerantzean ere Antzuolan: "Ez gara hamaika egunekin geratuko soilik. Guk, behin euskaraldia amaituta, jarraipena eman gura diogu ekimen honi. Horregatik *hamaika + 1*", argitu dute Euskaraldiko batzordeko kideek.

'Hamaika + 1'

Hamabi lagun horietatik zortzik *belarriprest* rola beteko dute eta lauk *ahobizi*-arena. Euskara zinegotzi Jon Ugarteburuk azpimarratu du *belarriprest* rolari garrantzi handia eman diote-

la. Izan ere, ohiturak aldatzera bideratzen duen rola *belarriprest*-arena da. "Gure egunerokoa, zenbait pertsona identifikatzen ditugu erdal hitzun bezala. Baina guk hori apurtu gura dugu eta erakutsi euskaraz ulertzeko gai direla asko. Baliteke euskaraz hitz egiteko zailtasunak izatea, baina asko gai dira euskaraz ulertzeko; rolak aldatu behar ditugu eta ohitura horiek apurtu", azpimarratu du Ugarteburuk. "Euskararekin zailtasuna dutenekin ulerkorrak izan behar dugu eta muga gainditu behar dugu eurengana euskaraz zuzenduz. Errespetu hori merezi dutela uste dut", dio.


Cristina Morais antzuolarrek, esaterako, *belarriprest* izateko hautua egin du; helburua duela euskaraz moldatzeko erraztasuna edukitzea: "Euskaraz hitz

egiteko erraztasuna falta zait. Horregatik, euskaraz egiten saiatuko naiz, erraztasun hori pixkanaka eskuratu dezadan".

Daniel Sanchezek lehen hitza euskaraz egingo du, eta, horregatik, *ahobizi* rola beteko duela dio: "Herritar guztiengana euskaraz hurbilduko naiz. Sarritan, gazteleraz jarduten duen norbait badago taldean, errazegi jotzen dugu gaztelerara. Lehenengo hitza euskaraz egiten saiatuko naiz beti".

Bi rol herritarrendako

Antzuolar orok parte hartu dezakeela Euskaraldian azpimarratu dute Euskaraldiko batzordeko kideek. "Gura duenak gura duen rola, eginkizuna, izan dezake Euskaraldian. *Ahobizi*-ak lehen hitza, bere jarduna euskaraz egingo du, bere solaskideak



Antzuolako Euskaraldiaren aurkezpena, Olaranen. MAIDER ARREGI

Euskaraldiarekin bat

Antzuolako Euskaraldia ordezkatzeko duten hamabi eragileekin batera, ekimenarekin bat egingo dutenak ere batu ziren Olarango aurkezpenean. "Herritar ugari parte hartu du Euskaraldiko bileretan eta interes handia erakutsi dute, gainera. Orain, herritar guztiak animatu gura ditugu", diote batzordeko kideek.

ez baldin badio kontrakorik eskatzen. *Belarriprest*-ak, aldiz, euskaraz egiteko eskatuko du".

Uemaren ikastaroa

Uemak ikastaroa antolatuko du rol bakoitzaren gaineko xehetasunak eta informazioa herritarrei emateko, urri bukaeran, Antzuolan.

Parte hartzeko

Antzuolar orok Euskaraldiari atxikimendua erakustea da helburua, eta guztien artean ohiturak aldatzea. Horretarako,

baina, herritar bakoitzak izena eman beharko du eta rol bat aukeratu. Liburutegian zein egun iluntzetan erdigunean jarriko duten postuan eman dezakete izena antzuolarrek (19:00-20:30).

Euskaraldiarekin bat egingo duten herritarrek hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean -Euskaren Eguna-, euskararen erabilera sustatuko dute, bestean beste.

Aipatu bezala, ohiturak eta aurreiritziak albo batera uztea da ekimen horren asmoa.

Hainbat inbertsio baserri eta landa eremuetan

Mendrakorta baserrirako bidea egokitzeko lanak egin ditu Elgetako Udalak, eta Egoarbitzako herri basoan ere garbiketa eta bakantze lanetan dihardute. Intsinis pinua gaixotzen ari den onddoa, berriz, kezka iturri da Elgetan ere

Larraitx Zeberio ELGETA

Azken asteotan baserritarren batzordetik bideratutako hainbat lan egin ditu Elgetako Udalak. Garrantzitsuena, inbertsioari dagokionez, Aixola urtegiaren goiko aldean dagoen Mendrakorta baserrirako bidea egokitzea izan da. Baserria hutsik dago, baina erabilera berria emateko asmoa dute jabeek. Lanok 9.680 euroko aurrekontua izan dute, BEZa barne. "Baso pista zuen baserriak, eta zabalduta dago orain. Harria bota eta estali egin dugu. Bikote gazte batek animaliak jarri nahi ditu bertan", azaldu du baserritarren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek. Etorkizunari begira bidea asfaltatzeko aukera egongo litzateke.

Mendrakortara iristeko hartu behar den Txulokua baserrirako bidean ere hainbat konponketa egin dituzte. "Azken bi urteetan, egurra ateratzen ibili dira inguru horretan eta bidean egin diren zuloak estali dira", azaldu du. Lanok 2.662 euroko inbertsioa izan dute.

Lanak Egoarbitzan

Hamahiru hektarea pasatxoko herri basoa dago Egoarbitzan, eta hainbat lan daude aurreikusita. "Badago pare bat hektarea-



Mendrakorta baserria eta bertara egindako bidea. L.Z.

MENDRAKORTA HUTSIK DAGO BAINA ERABILERA BERRI EMATEKO ASMOA DUTE JABEEK

ko sail bat pinuarekin. Sasiz garbitu eta bakandu egin behar da. Pagoa landatuta dagoen beste hektarea eta erdiko sail batean, sasia kendu eta garbiketa lana egin behar da". Lan horiek 3.578 euroko aurrekontua dute.

Pinuak gorri

Intsinis pinua gaixotzen ari den onddoa dela-eta bada kezka Elgetan ere. Eremu handiak ari dira gorritzen. "Oso gaizki dau-de sail batzuk; gehienbat, Azkonabieta eta Ubera inguruan. Pinu gaztea da, hogeit bat urtekoa, eta oso irteera zaila du". Kobreakin sulfatatzea aztertzen ari dira erakundeak, baina Arantzabalek uste du ez dela hain erraza izango Espainiako Ministerioaren baimena lortzea. "Kobrearekin ezin da edonon eta edonola sulfatatu".

Gero eta korapilo handiagoa, diru-laguntza akordio batengatik

Udalak hizkuntza irizpideak errespetatzeko eskatzen du eta Denis Itxasoren Sailak dio legea bete egin behar dela

L.Z. ELGETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak 13.000 euroko diru-laguntza iragarri zuen Elgetako kiroldegiko aldagelak berritzeko. Diru-laguntza hori gauzatzeko alde biek aurrez sinatu beharreko hitzarmenak eragin du katramila. "Ekainean jaso genuen bi hizkuntzatan eta puntu batek jasotzen zuen diruz lagundutako jarduerako zerbitzuetan bi hizkuntzen erabilera bermatu beharko genuela", azaltzen du Iraitx Lazkano alkateak. Elgetako Udalak dokumentua moldatu eta bueltan bidali zuen Diputaziora. "Euskara hutsean eta puntu hori moldatuta bidali genuen, non jasotzen genuen jarduera horietan euskara bermatuko genuela, betiere, herri-tarren hizkuntza eskubideei

kalterik egin gabe. Abuztuaren 2an bueltan etorri zitzaigun hasiera bateko zirriborroa, Denis Itxasok sinatuta. Udalaren hizkuntza irizpideak betetzearekin batera legea betetzeko eskatzen diogu Diputazioari".

Diputazioaren erantzuna

Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentutik adierazi dute Elgetako Udalak dela hitzarmena sinatu nahi ez duena. "Sinatuta dago hitzarmena aspalditik. Elebitan, dokumentu ofizial guztiak bezalaxe. Zergatik ez duen Udalak sinatu nahi ez dakigu. Diru ekarpen bat egiten duenean, Aldundia da hitzarmena prestatzen duena. Eta elebitan egitea da gure betebeharra", esan du Itxasok.

Lazkanok dio legeak behartzen duela Diputazioa euskaraz jardutera.

Betiko kantu zaharrak mahaiaren bueltan hilaren 27an

Orain dela urtebete moduan, El Rinco de Lola tabernan izango dira Anjel Mariezkurrena, Aitor Ibarra tronpetaria eta Francisco Santxotena soinu-jolea. Hurrengo zaturako egin dute hitzordua. Mahai guztietan liburuak egongo dira eskura, eta musikaren laguntzarekin kantuan egiteko aukera emango dute. Betiko kantu zaharrak

izango dira erreperitorioan: *Eper-rak, Baldorba, Markesaren alaba, Txoriak txori...* "Elgetan sorpresa oso atsegina hartu genuen duela urtebete. Badago kanturako zaletasuna, jendearen jarreraren nabaritu genuen. Jangela bete egin zen, denek hartu zuten parte saioan, eta nabaritu genuen jendea barrutik ateratzen zitzaiola kantatzea", esan dute. Bazkariarekin batera antolatu dute ekitaldia aurten ere. Txartelak salgai daude El Rincon de Lola tabernan, 35 eurotan.

Egoarbitzako txabola ingurua, garbi

Udalak deituta, urriaren 12an sei lagun elkartzu ziren txabola inguruko sailak garbitzeko. "Jende gehiago espero genuen, baina gerturatu ginenak moldatzen ginen makineria erabiltzeko eta lortu genuen aurreikusitako lanak betetzea", esan du Arantzabalek. "Argi dago jende gehiagorekin sail handiagoak hartu eta errazago egingo genukeela lan".



Urriaren 12an Egoarbitzan auzolanean ibilitako lagun taldea. ELGETAKO UDALA

ELGETAKO KANTU ZAHAR BAZKARIA



MENUA 35€

- Entsalada epela
- Patatak errioxar erara
- Biribilkia saltsan
- Postrea
- Kafea eta kopa bat
- Urteko ardoa

Urriaren 27an

+ Kantu zahar liburua
+ ANIMAZIOA
Francisco Santxotena (eskusoinua)
Angel Mariezkurrena (antolatzailea)

Txartelak salgai Lolanean

Lau taldetan hogei bat berbalagun, oraingoz

Elgetan Berbetan egitasmoko kideek gaur egingo dute ikasturte berriko aurkezpen saioa. Bi mintzalagun talde, hikalagun talde bat eta mintza-kuadrilla bat daude osatuta. Berrikuntza, aurtan, euskara ia hutsetik ikasi nahi dutenendako dinamika da

Larraitx Zeberio ELGETA

Laugarren ikasturtea du honako hau Elgetan Berbetan egitasmoak. Talde batzuek eman diote hasiera ikasturte berriari, eta beste batzuk hastear daude. "Hogei bat kide egongo dira, oraingoz, izena emanda. Bi mintzalagun talde daude osatuta, eta hamar bat kide izango dira, guztira. Hikalagun taldea eguen arratsaldeetan elkartuko da, eta bost bat lagun dira. Mintza-kuadrilla bat ere badaukagu. Hiru kide dira, eta lagun talde berekoak. Astearen behin euskaraz jarduteko konpromisoa hartu dute", azaldu du Elgetan Berbetan egitasmoko dinamizatzaile Geaxi Ezpeletak.

Talde berrantolaketa bat izan dela adierazi du Ezpeletak; izan ere, egitasmoak parte-hartzaile egonkor batzuk baditu ere, beti egoten dira sarrerak eta irteerak. Uste du gaurko aurkezpena aukera aproposa izan daitekeela jarduerari buruzko informazio gehiago nahi duten herritarrendako. 18:00etan egingo dute, balio askotariko gelan. "Elgetan bidelariak ditugu, gehienbat, eta komeniko litzateke euskaraz jariatutasunez berba egiten duen jendea gerturatzeara", esan du.

Izen-ematea zabalik da eta gerturatzen den jendearen ezauzgarrien arabera martxan dauden taldeak osatuko dituzte edo berriak sortuko dituzte. "Ordutegien arabera parte-hartzaileen beharretara egokitzen saiatzen gara", adierazi du Ezpeletak.

Mintza-ekintza bateratuak

Aurreko urteetan bezala, Elgetako mintzalagun programak bat egingo du bailarako gainarakeekin, eta mintza-ekintza bateratuak antolatuko dituzte. Domekan egingo dute lehena, Urretxura, eta bi hilean behin antolatuko dituzte antzerakoak. Irteera horietan, Elgetako ber-



Elgetako mintzalagunek iazko ikasturte amaieran egindako batzarra. L.Z.

IZEN-EMATEA ZABALIK DA LIBURUTEGIAN ETA 688 72 96 03 TELEFONOAN

balagunek aukera izaten dute beste herri batzuetako mintzalagunekin elkartzeko.

Pintxo-potea eta Hitzez Pitz

Iaz sortu zuten dinamika, eta hilean behin eguneko pintxo-

poterako egiten dute hitzordua berbalagunek. Hitzez Pitz liburutegian egiten dute, eta literatura testu aukeraketa batean oinarritutako solasaldiak izaten dira. "Helburua da berbalagun taldeen eremu txiki horiek zabaltzea poliki-poliki, eta euskaraz berba egiteko eremu handiagoak sortzen joatea. Pintxopote dinamikan talde ezberdinetako berbalagunak elkartzen dira, eta Hitzez Pitz saioetan berbalagun ez diren herritarrek ere parte hartzen dute", azaldu du Ezpeletak.

la hutsetik ikasten hasteko saioak

Ekimen berria jarri du martxan, aurtan, Udalak. Euskara ia hutsetik ikasten hasi nahi dutenendako saioak, hain zuzen ere. Oraingoz, bi lagun daude izena emanda, eta helburua da mintzalagun talde batean sartzeko gutxieneko mailarik ez duten horiei alternatiba bat eskaintzea. "Gerturatzen den jendearen arabera formulatuko dugu talde horren dinamika", esan du Geaxi Ezpeleta dinamizatzaileak. "Auzoko egitasmoarekin antzekotasun handiak izan ditzake, baina parte-hartzaileen jatorria hainbeste kontuan hartu gabe. Egon daiteke jendea sasoi batean euskara ikasi baina galdu duena edo datozen lekutik datozela ere euskarara hurbildu nahi dutenak".

Interesatuak hainbat bide dituzte izena emateko: liburutegira joanda eta berbetan@elgeta.eus zein 688 72 96 03 bidez.



Apika taldekoek egingo dute eguaztenean ikuskizuna liburutegian. APIKABILBAO.COM

Yoga ipuinak gaur eta 'Mozorro festa' eguaztenean, liburutegian

Yoga asanen bidez antzeztuko ditu gaur ipuinak Alazne Azkaratek eta berdin egiteko aukera izango dute umeek

L.Z. ELGETA

5 urtetik gorako neska-mutikoendako saioa egingo du Alazne Azkaratek Geaxi Ezpeletaren laguntzarekin. 3 eta 4 urteko umeek heldu baten laguntzarekin hartu ahal izango dute parte. "Bi ipuin aukeratu ditugu. Geaxik kontatuko ditu eta nik antzeztu egingo ditut yoga asanen bidez. Yoga asanak postura estatikoak dira".

Lehenengo ipuina Azkaratek bakarrik antzeztuko du, baina hurrengoan, neska-mutikoek ipuinean agertzen diren asanak egiteko aukera izango dute. "Hel-

burua da umei yoga liburuak gerturatzea eta horien bidez yoga bera", esan du Azkaratek.

Ipuin kontaketa berezia izango dela esan du liburutegiko arduradunak, eta parte hartze-ko aukera eskainiko duela.

Antzerkia eguaztenean

Eguaztenean da Liburutegiaren Eguna, eta 17:30ean ipuinaren mozzorro festa egingo dute Apika taldeko kideek. Liburutegiko altzorrak erakutsiko dituzte eta gozameneko espazio moduan aurkeztuko dute. Publiko guztia-erendako ikuskizuna da.

Pilota txapelketako lehen lau partidua gaur, 18:30ean

Hastear da urteroko pilota txapelketa. Lau norgehiagoka daude iragarrita lehenengo jardunaldirako: bi 40 urtetik gorakoek jokatu dituzte eta beste bi, 40 urtetik beherakoek.

Lehenengo partidua jokatu duten bikoteak dira Mikel El-koro-Iñaki Ugarteburu eta Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas. Bigarren partidua da Ruben Sanchez-Mikel Arkarazo vs Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea. Hirugarren partidua da Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendi-rieta vs Diego Cantabrana-Txomin de Vega. Laugarren eta azken norgehiagoka da: Andoni Elorza-Oskar Sarasua vs Josu Mañarikua-Beñat Arabaolaza.

OHARRAK

Ate irekiak ludotekan

Zerbitzua 2 urteko umeen familien artean ezagutzera emateko ate irekiak, gaur, 16:00etatik 19:00etara.

Plastiko bilteta

Nekazaritzan sortutako plastikoa biltzeko zerbitzua, martitzenean. Eskatzeko, deitu 943 76 25 47 telefonora.

Eskola publikoa

Zapatuan, Debagoieneko Eskola Publikoaren Jaia, Eskoriatzan. Ikus 2. orria.

Domekan, mendira

Kantsatzekek antolatuta, irteera Urbasako Bargagain tontorrera. Argibideak: kantsatzeke@gmail.com.



Protokoloa lantzen aritu diren talde eragileetako kideak gatzetxearen sarreran. PROTOKOLOA LANDU DUEN LANTALDEA

Eraso sexistaren aurkako barne gida egin dute

Eraso sexista bat gauzatzen duenaren gertutasunak egoerari aurre egiterakoan garrantzia izan dezakeela ikusita, barne protokoloa landu dute herriko zazpi talde eragilek. Hiru hilean behin batzen da lantaldea, berrikusteko eta aztertzeko

Oihana Elortza OÑATI

Eraso sexista gertatzen denean zelan jokatu eta nola kudeatu jakiteko protokoloa egin dute herriko hainbat eragilek elkar-lanean. "Barne mailako protokoloa da. Hau da, hau lantzen ibili garen taldeetan gertatuz gero nola jokatu jakiteko. Jaie-tan txosnagunean ere egoten da protokoloa, baina hau ezberdina da. Eraso egin duena ezezaguna bada, errazagoa da, akaso, hori bideratzea, baina gertukoa bada, aldiz, zailagoa izan daiteke, eta hori da landu gura izan duguna", dio Irati Garaik.

Hausnarketa

Pototak eta Andraitz talde feministak, Gazte Asanblada, Fan Hemendik, ikasle mugimendua, Sortu eta Ernai taldeak batuta egin dute barne protokolo hori eta izaera politikoa eman gura izan diote. Kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko protokoloa da eta egoera txikien aurrean ere aplikatzeko dago egina.

"Askotan, muturreko egoerak dira eraso sexista moduan agertzen diren bakarrak, baina badira maila txikiagoan gertatzen direnak ere, eta horiek zuzendu behar-rean daude. Bestalde, ez da txosten zigortzaile bat. Eraso egin duena horretaz konturatu eta hausnartzea da lortu gura duguna", dio Julen Romarate zabalak. Euren espazioa seguru bihurtzea da helburua eta ikusten dute prebentzio moduan ere balio duela protokoloak.

Duela bi urte inguru hasi ziren gai honen inguruan hausnartzen, eta aurtun garatu dute protokoloa bera. "Horrelako egoerei modu kolektiboan erantzuteko beharra zegoela ikusten genuen,

**ERASO SEXISTEI
MODU KOLEKTIBOAN
ERANTZUN BEHARRA
DAGOELA IKUSITA
HASI ZIREN GARATZEN**

eta formatzeko beharra genuela", dio Rebecka Maestrok. Diote zaila egin izan zaiela beste eredu edo adibiderik lortzea.

Oinarria

Zazpi talde horietako kide pare bana zeuden lantaldea osatu zuten testua lantzeko. Hor eztabaidatutako puntuak bakoitzak bere taldean landu ditu, eta berriro protokolo lantaldea partekatu gero. Oso prozesu interesgarria izan dela diote. "Herri mugimenduan ere gertatzen dira eraso sexistak eta tokatzen da hausnartzea eta hori lantzea. Eta horretan ari gara", esan du Garaik.

Orain arte txostenean jasotakoak oinarri izango dira protokoloa osatzeko. Hiru hilean behin batzen da lantaldea berrikusteko eta berriaz aztertzeko. Diote ez dakitela herriko beste talde edo kolektiborik horrelako txosten egin duen edo ez, baina eurak egindakoa eskuragarri dagoela gura duenarendako.

Urgainek ere bat egin du Eskoriatzako jaialdiarekin

Zapatuan egingo den bailarako eskola publikoaren jaian laguntzen eta parte hartzen izango dira oñatiarrak

O.E. OÑATI

Bihar, zapatua, egingo da Eskoriatzako Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaialdia, eta Urgainek bat egin du ospakizun horrekin. "Hango guraso elkarteak proposatzen eta antolatzen zituzten ekintzetan lagundu diegu: txartelak saltzen ibili gara, herri bazkariako izenak hartzen, herrian kartelak jarri ditugu... Eta zapatuan Eskoriatzara joango gara", dio Urgain Errekalde ikastetxe-ko guraso elkarte-ko kide Aintzane Agirrek.

Eskoriatzako jaialdirako sortu duten kantua *flashmob*-a prestatzen aritu dira ikasleak musikako eskola orduetan, eta ikastetxearen izena duten kolore biziko jertseak eramango dituzte soinean dantzaldirako. Egongo diren gune edo ekintzetan laguntzeko boluntario ere ibiliko dira Urgaineko irakasle eta guraso batzuk. "Hara joateko, autobus zerbitzu publikoa erabiltzeko dei egin dugu. Pesak indartu egin ditu zerbitzuak, eta eroso izango dela uste dugu", dio Agirrek.

Azaroaren 16an eta 17an izango da Eltzari Eragiten

Espazio publikoen kudeaketarako formula berrien gainean jardungo dute, besteak beste, Eltzari Eragiten izeneko aste-buruan. Beste esperientzia batzuk ezagutuko dira, hitzaldiak egongo dira, Eltzia ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte eta herri bazkaria ere antolatu dute. Azaroaren 16an eta 17an izango da hori guztia.

Ibilaldia bihar eta erreka garbitzeko saioa domekan

Ura eta Errekaren Astearen barruan, Olapotoko putzua anfibioendako berreskuratzeko ekintza egingo dute, auzolanean, bihar, 11:00etan. 16:00etan, berriaz, Antzubbarrera egingo dute ibilaldia Natur Eskolakoek gidatuta. Eta domekan, urtero egiten den erreka garbiketa saioa egingo dute; 09:30ean elkartuko dira, Foruen plazan.



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

Hamaika

Gaurkoan ere zeri buruz idatzi erabaki ezinik nabil; hamaika dabilkit buruan. Euskaraz hamaika hamar gehi bat baino gehiago da. Oso sarri egindako ekintzak adierazteko erabiltzen dugu ("Hamaika bider esan diot, baina alperrik!") edo zerbait handia, harrigarria... adierazteko ("Hamaika ikusteko jaio gara!"). Hamaika gairi buruz ezin idatzi, eta bi aukeratu ditut:

Bat. Igandean, hamaika injustizia, egoera latz, bizi behar izan eta izaten dituzten 37 errefuxiaturik ongi-etorria egin genien Oñatin. Hamaika bidegabekeria konpontzeko ez du balioko ekintza bakar horrek, baina zertxobait arintzeko balio badu, gaitz erdi! Hunkigarria harreraren esker ona adierazteko *Txoriak txori* abesten entzutea errefuxiatuak. Errefuxiatuak eta herritarrak bat hartuta. Horrelakoak ikusita, zalantzan jartzekoa da harrera zeinek zeini egiten dion.

Bi. Euskaraldiak hamaikarekin jolasteko proposatzen digu: hamaika egunetan, gure egunerokoan, tarte handiagoko eskaintzea euskarari. Batzuk, belarria jarrita, eta beste batzuk, ahoa zabalduta. Baina denok eroso, lasai eta natural. Prest eta bizi. Azaroaren 23tik abenduaren 3rako hamar gehi bat egunak izan daitezela hamaika!

"Gizarte zerbitzuei buruz informatuko dugu"

MAIDER BARRENA GIZARTE LAGUNTZAILEA

'Adinekoak eta familiak' zerbitzua zabaldu du Udalak, herritarrei gizarte zerbitzuetako baliabideei eta laguntzei buruz informatzeko. Udaletxeko sarreran dago bulegoa

Oihana Elortza OÑATI

Maidar Barrena oñatiarra egongo da *Adinekoak eta familiak* zerbitzuaren bulegoan.

Zer eskaintzen du zerbitzu honek eta norendako da?

Herritar guztiei zuzenduriko zerbitzua da, eta, batez ere, 60 urtetik gorakoei. Doako informazio eta orientazio zerbitzua eskaintzen da, non herritar guztien eskura dauden baliabide ezberdinak aditzera ematea eskaintzen den. Hitzaldiak ere antolatu ditugu.

Zein da helburua?

Dauden baliabide publikoei eta pribatuei buruzko informazioa herritar guztien eskura jarri



Maider Barrena. O.E.

nahi dugu, eta herritarrek mendekotasun egoera batera iritsi aurretik dauden baliabideen ezagutza eduki ahal izatea. Mendekotasun egoeran daudenendako eta senideendako da zerbitzu hau. Beste helburu bat da zahartze osasuntsua sustatzea. **Zer-nolako informazioa jaso dezake herritarrek bulego honetan?** Telelaguntza zerbitzua zer den, zein baldintza bete behar diren eta nola egin eskaera; etxeko zerbitzuari buruzko informazioa; su detektagailu aparatua jartzeko zer egin behar den eta zein diren baldintzak; laguntza teknikoak nola eskuratu -gurpil aulkia, etxeko egokitzapenak

nola egin...; prestazio ekonomikoei buruzko informazioa; egoitza eta eguneko zentroari buruzko informazioa; Sendian programa zer den eta zertan lagundu gaitzakeen....

Behar duen laguntza lortzen ere laguntzen diozue herritarrei?

Bai. Askotan, ez dugu jakiten nora jo eta zer-nolako eginbeharrrak dauden. Kasu askotan, zerbitzu baten eskaera egin eta honen erantzuna iritsi arteko denbora luzea izaten da, eta denboraz hartu beharreko kontuak direla jakin behar dugu denok. Bulegoan eskaera horiek nola egin, zein dokumentazio behar den ezagutu eta zenbat denborako bideratze lana izango den azaldu ahal izango da.

Non dago bulegoa eta noiz egoten da zabalik? Zer ordutegi du?

Udaletxeko sarreran dago bulegoa, sartu eta ezkerretara. Aslehenetik egubakoitzera dago zabalik, 17:00etatik 20:00etara.

Aurrez hartu behar da txanda?

Komeni da, bai. Horretarako bideak dira: 943 78 04 11 zenbakira deituta edo mezua bidalita hona: *adinekoaketafamiliak@gmail.com*; edo bertara etorrita.

200 euroko hiru sari banatuko ditu gaur, egubakoitza, Txandak

Oñatiko Merkataritza Eguna ospatuko du gaur, egubakoitza, Txanda elkarteak. Saltokietan opiltxoak, goxokiak eta txokolatea banatuko dituzte, adibidez, eta arratsaldean, musika eskolako ikasleak kalez kale ibiliko dira musika egiten. Erosketak egiten dituzten bezeroen artean 200 euroko hiru txartel zozkatuko dituzte.

'Herri txiki infernu handi' itxura hartuko du gaur Santa Anak

Hurretik gala egingo dute gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokia, 22:00etan. Herriko ondarearen transmisioa hezkuntzan txertatzeko ahalegina da eta herritar askok hartu dute parte antolatutako bilera irekietan. Horietako batzuk bi pailazok aurkeztuko duten galan agertuko dira, bideoan zein ikus-entzuleen eserlekuetan.



Mekalki

S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak




ZORIONAK, MEKALKI! 25 URTE ELKARLANEAN

1993-2018. Urriaren 20an, 25. urteurren festa egingo dugu kiroldegiko pilotalekuan.



Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es

Joxan Artze omenduko dute Goiko Bentan

Idazle, kultur sustatzaile eta ekintzaile usurbildarraren irudiaz eta obraz gozatzeko ekitaldia egingo dute Arantzazuko Goiko Benta ostatuan gaur, urriaren 19a, 19:00etan, Liburutegien Nazioarteko Egunekeo ekitaldien barruan

Amaia Zabala OÑATI

Urriaren 24an, Liburutegien Nazioarteko Eguna izango da, eta Oñatiko liburutegian egitarau zabala antolatu dute; ipuin kontaketak, tertuliak eta bisita gidatuak besteak beste.


Egitarautik azpimarragarria Joxan Artze zenaren omenez gaur egingo den ekitaldia da. Idazle, kultur sustatzaile eta ekintzaile usurbildarraren irudiaz eta obraz gozatzeko emanaldia egingo dute Arantzazuko Goiko Benta ostatuan, 19:00etan.

Ordu eta laurden inguruko saioa izango da eta sarrera irekia eta doakoa izango da. Artzeren lagun min zen Andoni Salamerok irakasle eta poetak artistaren hainbat poesia errezi-tatuko ditu. Poesiak Artzeren *Heriotzaren ataria dugu bizitza* eta *Bizitzaren atea dukegu heriotza* liburuetatik aukeratutakoak izango dira, batez ere. "Nire ustez, Joxanen lan mardula eta gorputz handiko altxorra bi liburu horietan dago. Gehienbat, horietan oinarritzen naiz, horietan dagoelako bere lehenagoko olerkien garapen bat. Alegia, bokaziozko poeta zen", dio Andoni Salamerok. Horrez gain, Artzeren hitzak kantuz ere eskainiko dituzte. Mixel Ducau musikaria ere egongo da omenaldian eta haren gitarra doinuak entzungo dira zuzenean.

Ekitaldia hiru zati nagusitan banatuko da: dolua, natura eta suprakontzientzia. Zati horiek zazpi kanturekin harilkatuko dituzte.

Artze eta Goiko Benta

Izan ere, Artzek izugarri kutun zuen Arantzazuko Goiko Benta eta sarri joaten zen bertara. Ostatu Ana Maiztegik dio etxeko bat gehiago zela Artze eta omenaldiaren proposamena jaso zutenean ilusio handia egin zuela.



Joxan Artze. JUANTXO EGAÑA

Biblioteka Egunerako egitaraua

URRIAK 19

- **19:00** 'Joxan Artze gogoan' ekitaldia. Poesia eta kantak. Mixel Ducau eta Andoni Salamerok dinamizatuta. Goiko Bentan, Arantzazun.

URRIAK 24

- **18:30** Ipuin kontaketa Helduentzat *Cuentos del Japon*. Japoniako ipuin tradizionalak Yoshi Hioki-ren eskutik. Kultur Etxean.

URRIAK 25

- **18:30** Ipuin kontaketa haurrendako eta familiendako. *Retro ipuinak* Miren Larrearen eskutik. Kultur Etxean

URRIAK 31

- **18:30** Tertulixan. Euskaraz. *Gailur ekaiztsuak* (Emily BrOnTe) liburuaren inguruan, Yurre Ugartek dinamizatuta. Kultur Etxean.

URRIAK 22-24-25,

- Bisita gidatuak egingo dituzte 4 urteko haurrendako 'Aurorita Beti Polita'k gidatuta. Kultur Etxean.

Haurrentzako antzerki emanaldia izango da domekan

Marie de Jongh antzerki konpainiak hurrei zuzendutako *Izar* antzezlan eskainiko du domeka honetan, urriak 21, 18:00etan, Santa Ana antzokian. Sarrera lau euro da.

Gainera, Marie de Jongh antzerki taldeak haur eta gazteen-tzako arte eszenikoen Espainiako saria jaso berri du. Kultura Ministerioak jakinarazi duenez,

"gizartearekiko konpromiso etengabea erakusteagatik" izan da saritua.

Espainiako Kultura Ministerioak INAEM Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalaren bidez urtero ematen duen sariko epaimahaiak azpimarratu duenez, Marie de Jongh konpainiak keinuak erabiliz, hitzik gabe, jorratzen ditu bere ikuskizunetako gaiak, "eta edertasun eta emozio handia sortzen ditu" horietan, baita "kalitate artistiko handia erakutsi ere".

Aloña Mendiko saskibaloi taldeak babesle berria du

Mekalki S. Coop enpresa oñatiarra izango da Aloña Mendi saskibaloi saileko bi talde seniorren babesle berria. Hemen-dik aurrera, Mekalki Aloña Mendi izena hartuko du taldeak eta elastikoetan ere izen bera eramango du.

Oñatiko Mekalki S. Coop. enpresa 1993an sortu zen eta pieza mota ezberdinen txirbil-harro-keta bidezko mekanizazioaz arduratzen da. Makina-erreminta, eolikoak, igogailuak eta automobilgintza arloak jorratzen ditu, besteak beste.

Momentu onean dira Aloña Mendiko jokalaria, gizonezkoen Gipuzkoako senior mailako txapelketan lehenengo doaz eta.

Ziklo-kros taldeak denboraldi berria aurkeztuko du

Ziklo-kros taldeak denboraldi berria aurkeztuko du gaur, urriak 19, arratsaldeko sei eta erdietan, Oñatiko udaletxean.

2018ko denboraldiko taldea zazpi kirolarik osatuko dute: gazte mailako hiruk eta kadete mailako lauk, hain zuzen.

Taldeak urriaren 28an eman-go dio denboraldi berriari hasiera ofiziala, Elorrioren izango den lasterketarekin. Aimar Erostarbe txirrindulariak, ordea, dagoeneko hasia du denboraldia, Urduñako lasterketan parte hartu eta irabazi ere egin zuen eta.

Ziklo-kros taldeak Arrikruz Oñatiko Kobak eta Magdalena gasolindegia izango ditu babesle datorren denboraldian.



ALOÑA MENDI

Gipuzkoako txapelketan, bikain

Urriaren 7an Hondarribian jokatu zen Gipuzkoako karate txapelketan lehiatu ziren Aloña Mendiko kirolariak, kadete, junior eta 21 urtez azpiko kategorietan. Oso emaitza onak lortu zituzten, gainera, Karmele Egaña, Alazne Unzurrunzaga, Mikel Jurado eta Leire Urkia lehen hiru postuetan sailkatu ziren eta.

OÑATI_ARRASATE HERRI LASTERKETA

2018-10-27 // 17:00etan // Foruen Enparantzatik

Izen-ematea: www.herrikrosa.eus eta Loramendi Kirolak denda

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



ANTXINTXIKETAN K.E.



BABESLEAK:



Hiru Haundi, eta 83 lasterkari

MENDI LASTERKETA Gaur, egubakoitza, gaurdian hasiko dute, Murgian (Araba), Gorbeia, Anboto eta Aizkorri batzen dituen mendi lasterketa. Bi urtean behin egiten duten hitzorduan, Jokin Garai oñatiarrak txapela defendatuko du

Xabier Urzelai ARRASATE
Oñatiko mendi lasterkari Jokin Garaik ezustea eman zuen Hiru Haundiak lasterketaren azken edizioan (2016). Nahiz eta lehenago (2014) ere podiumaren bueltan ibilitakoa izan, hortik eta lasterketa irabaztera koska bat zegoen, eta koska hori 11 ordu eta 15 minutuko denbora eginda gainditu zuen. Oñatikoak 15 minutuko aldea atera zion Mikel Etxeberriari eta minutu bat gehiago podiumera igo zen Ander Gerrikaetxebarriari.

Hala, lasterkari oñatiarrak mimosoz prestatu du gaur gaurdian hasiko duten Hiru Haundiak proba (00:00, Murgia), podiumaren bueltan ibiltzeko asmoarekin: "Uztailean denboraldiaren lehen zatia amaitu eta bi astez atsedean hartu eta gero, oporretan gogor entrenatzen hasi nintzen berriro ere. Duela hilabete Gernikan egindako 105 kilometroko lasterketan, irabazteko borrokan ibili nintzen, eta hori dut erreferentziatzat. Uste dut ondo nagoela, entrenamenduetako

datuek hori berresten dute, baina burua dagoeneko atsedena eskatzen ari zait, eta halako lasterketa luzean garrantzitsua da burua fresko izatea".
Ondoa lasterkari azkarrek izango ditu Garaik; tartean, Javi Dominguez gasteiztarra: "Lasterketak azkar hasten dituzten bizpahiru korrikalari aurretik joango dira, seguru; ni Landatik aurrera estutzen ahaleginduko naiz. Baina lasterketa hasieran ez dut itsutu gura. Badakit zein erritmotan egin behar dudan



Elorza eta Arregi arrasatearrak, gauez, 2010eko edizioan. XABIER URZELAI

korrika eta erreferentziak ondo hartuak ditut".
1.700 korrikalari, guztira
3.000 lagunek egin dute Hiru Haundiak lasterketan parte hartzeko eskakizuna, baina antolatzailleek 1.700 lagunendako tokia gorde dute. Eta horietako 83 korrikalari Debagoienekoak izango dira: "Gutako bakoitzak helburu ezberdinarekin hasiko du lasterketa. Eta nire aholkua da horrekin ez itsutzea, gerta daitezkeen ezustekoen aurrean

burua zabalik izatea. Hau da, lasterketaren puntu konkretu batean aurreikusitakoa baino 10 minutu gehiago egin baditugu, lasai egoteko, behera etorri barik geratzen denaz gozatzen ahalegintzeko".
Ekainean beharrean, urrian
2016a ezkerro, lasterketa urrian egiten da, eta ondorioetako bat da argi ordu gutxiago dituztela korrikalariak. Zorionez, baina, ez dirudi giro makurrik izango denik.

Hiru Haundietan izango diren Debagoieneko mendi lasterkariak

DORTSALA LASTERKARIA	
LEINTZ GATZAGA (1)	
1682	Agirreurreta Urreta, Beñat
ESKORIATZA (10)	
949	Agiriano Errasti, Ander
28	Diez Iturricastillo, Ana Isabel
1686	Eguzkiza Zubia, Jon
937	Gabilondo Urtaza, Xabier
1638	Luarizaristi Alberdi, Hodei
1444	Martinez Iregui, Josu
304	Matas Ocon, Salvador
1707	Mediavilla Encina, Lander
471	Razkin Ibañez, Jon
1654	Urrutia Legarda, Oier
ARETXABALETA (9)	
756	Elkorobarrutia Aranburuzabala, Asier
1223	Eraña Elgoro, Ibon
1630	Etxabe Aguirre, Beñat
1328	Oianguren Kortazar, Aitor
1356	Olalde Berasaluze, Igor
76	Perez Dominguez, Elizabeth
1470	Uribeetxeberria Matas, Gorka
1251	Uribeetxeberria Matas, Iñaki
1519	Gomez Davila, David

DORTSALA LASTERKARIA	
ARRASATE (35)	
1643	Alegre Lage, Aitor
1640	Altuna Letamendi, Andoni
1436	Amuchastegui Zubizarreta, Unai
299	Apellaniz Olivares, Javier
1198	Arrese Mondragon, Mikel
234	Barberan Cañamaque, Juan Antonio
195	Bilbao Ipiñazar, Eugenio
1635	Bolinaga Diaz, Ibai
528	Caballero Bravo, Isidor
1127	Elexpuru Zubiria, Ander
26	Erretolatza Arantzabal, Itsaso
1658	Etxagibel Altuna, Danel
1429	Etxeberria Agirrezabala, Luar
1034	Garcia Romero, Andres
1084	Gomez Garcia, David
1109	Martin Garcia, David
247	Mazmela Bolinaga, Enrike
1449	Mercader Gardoki, Kepa
1663	Mondragon Buruaga, Aitzol
707	Moral Perez, Asier
171	Otxoa Guridi, Nerea
1031	Ozaeta Mendaratz, Andoni

DORTSALA LASTERKARIA	
954	Ropero Cuevas, Javi
1668	Salaberri Merino, Aitzol
1206	Sanabria Viteri, Jon
391	Ugartetxe Pascual, Javier
781	Uribetxebarria Andres, Urtzi
1568	Urrutia Alday, Aitor
748	Vicente Trejo, Ivan
924	Viguera Vazquez, Javi
1664	Zeziaga Belategi, Aitor
1126	Zugasti Orobengoa, Jon
992	Del Canto Segurado, Abel
1062	Romaña Rodriguez, Ivan
1550	Velasquez Gomez, Alejandro Isaias
ELGETA (4)	
1570	Elorza Elorza, Andoni
1637	Cenitagoya Sousa, Odei
1570	Elorza Elorza, Andoni
1398	Zabaleta Gallastegui, Ibai
OÑATI (12)	
123	Anton Lenno, Maite
1675	Arkauz Kerejeta, Iker
1677	Atxaga Txintxurreta, Jokin
971	Bikuña Zubizarreta, Iñaki

DORTSALA LASTERKARIA	
653	Blazquez Belon, Joseba
1307	Garai Arejolaleiba, Iokin
1257	Igartua Urzelai, Joseba
114	Iturbe Murguiondo, Agotz
352	Larrea Alava, Alberto
910	Perez Letamendi, Aritz
130	Zubeldia Plazaola, Miren
452	Zugasti Kortabarria, Aitor
ARAMAIO (4)	
150	Altuna Ugarte, Olatz
759	Arana Arejolaleiba, Aitor
603	Garcia Altuna, Unai
239	Muñoa Bengoa, Karmelo
BERGARA (8)	
1650	Badiola Guridi, Andoni
1590	Agirre Rebanal, Xabier
110	De La Cruz Medrano, Nerea
1030	Godoy Hidalgo, Patxi Imanol
1556	Iturrospe Ibarra, Unai
1077	Mendia Bilbao, Ibai
1562	Oregui Echeverria, Mikel
1555	Zabaleta Aranguren, Enaitz

Arrasateko lasterketa bertan behera geratu da

ZIKLO-KROSA lazko lasterketaren ondoren izandako zailtasun ekonomikoen ondorioz, aurtan ez dute antolatuko: "Ez gaude dirua galtzeko; besteak beste, oraindik, Udalaren iazko diru-laguntza falta zaigu", adierazi dute klubeko ordezkariak

Xabier Urzelai ARRASATE

Zoritzarrez, Euskadiko 2018-2019ko ziklo-kros denboraldiko egutegiak hutsune bat baino gehiago izango du, eta horietako bat Arrasateko lasterketarena izango da: "Arrazoi ekonomikoak daude tartean, lasterketa egunerako boluntarioak bilatzea geroago eta zailagoa izan arren klubeko jendea prest zegoelako aurtengoa ere antolatzeko. Baina iaz dirua galdu genuen, besteak beste, Udalak eman beharreko laguntza ez dugulako jaso, eta lasterketa bertan behera uztea erabaki dugu", adierazi dute klubeko ordezkariak.

Udalak batzarrera deitu ditu

Informazio hori oinarri hartuta, GOIENA Arrasateko Udalarekin jarri da harremanetan: "Bai, izan dugu albistearen berri, eta asteen bertan batzartzeko proposamena egin diegu Dorletako Amako ordezkariari. Iazko diru-laguntzen zati bat jaso zuten, eta, bi zatitan ematen dugunez, egia da %40 jasotzeko dutela oraindik. Gure asmoa da kontu horiek argitzea, baina, arazoa ekonomikoa baino ez bada, beste formula batzuk bila genitzake lasterketa antolatu ahal izateko", adierazi du Ander Garai zinegotziak.



Guztira, hiru edizio egin dituzte; bigarrenean, eguraldiak ez zuen lagundu. GOIENA

HIRU EDIZIO ANTOLATU ETA GERO, DORLETAKO AMAK AURTENGOA EZ EGITEA ERABAKI DU

Babesletza lortzea, oso zaila

Arrasateko Udalaren babesletzarekin izan duten arazoa alde batera utzita, Dorletako Amako lagunaren esanetan halako lasterketa bat antolatzea geroago eta zailagoa da: "Enpresek, herriko

komertzioek... babesletza proposamen mordoa izaten dituzte eta horiek ere dagoeneko nekaz daude dirua banatzen ibiltzeaz. Guk, gure kasuan, 8.000 euro inguruko aurrekontua dugu lasterketarako, eta ez da erraza diru hori batzea: osasun zerbitzuak –besteak beste, bi ambulanzia behar izaten dituzte–, epaileak, ziklisten dietak, lursaila eta lasterketa egunerako lokal bat alokatzea, lasterketako aseguruak... Eta bestelako gastuak egoten dira". Ikusteko dago 2017koa azkena izan ote zen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Añorga-Mondra

Zapatua. 15:45. Donosti.

UDA-Real Union

Domeka. 16:30. Ibarra.

Bergara-Amaikak Bat

Zapatua. 16:30. Agorros.

ERREGIONAL PREFERE.

Lagun Onak-Aretxab.

Zapatua. 18:00. Garmen.

Mondra-Zestoa

Zapatua. 16:30. Moiateg.

Anaitasuna-Antzuola

Domeka. 17:00. Azkoitia.

Aloña-Lazkao

Domeka. 16:30. Azkoag.

EMAKUMEZKOEN ERRE.

Añorga-Bergara

Domeka. 16:00. Rezola.

Reala-L. Arizmendi

Zapatua. 15:30. Zubietta

LEHEN ERREGIONALA

Elgoibar-Aloña Mendi

Zapatua. 17:00. Mintxet.

Arizmendi-Bergara

Zapatua. 17:30. Ibarra

OHOREZKO GAZTEAK

Ostadar-Aloña Mendi

Zapatua. 15:30. Lasarte.

Zumaiako-Aretxabale.

Zapatua. 12:00. Ibarra.

Ordizia-Mondra

Zapatua. 15:30. Ordizia.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Gernikako-Mondrate

Zapatua. 16:45. Gernika.

Tolosala-Eskoriatza

Zapatua. 16:30. Tolosa.

Aretxabaleta-Araiako

Zapatua. 17:30. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

Eskoriatza-Yesos Cas.

Domeka. 13:15. M. Muñoz

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Ford Mugarri-Ugeraga

Zapatua. 18:00. Iturripe.

Siglo XX-Fagor Indust.

Zapatua. 15:45. Ordizia.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Doniba.-Soraluce BKE

Zapatua. 18:00. Pasaia.

GIPUZKOAKO B. MAILA

BM Conet-Aloña Mendi

Domeka. 11:30. Miranda.

Saieko-Bergara

Domeka. 12:00. Donost.

GAZTE GIZONEZKOAK

Eibar-Mondragon Lin.

Domeka. 10:15. Eibar

Ereintza-Arrasate

Domeka. 10:00. Pasai D.r

Bergara-Ereintza

Zapatua. 12:30. Labegara.

GAZTEAK, EMAKUMEZK.

Bergara-Urnieta

Egubak. 11:00. Labegara.

Athlon Aloña-Leizaran

Zapatua. 12:00. Zubikoa.

SASKIBALOIA

EBA

Valladolid-MU

Zapatua. 20:30. Valladolid.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Mekalki Aloña-Astigarr.

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIP. BIGARREN MAILA

Goierrri-Bergara Soral.

Domeka. 18:00. Urretxu.

GIP. HIRUG. MAILA

Mekalki Aloña-Kurkubi

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Take Coach-MU C

Zapatua. 12:00. Tolosa.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Bera Bera

Gaur. 20:15. Manuel M.

EMAK. BIGARREN MAILA

Bera Bera-Bergara Sora.

Zapatua. 20:00. Donostia.

GAZTE, ERRENDIMENUA

Cafes Aitona-MU A

Zapatua. 20:00. Donostia.

EMAK. BIGARREN MAILA

Bergara Soral.-Zast

Gaur. 12:30. Labegaraie.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELK.

La Unica-Kanpanzar A.

Zapatua. 16:30. UPNA.

18 URTEZ AZPIKOAK

Uribealdea-Kanpanzar

Zapatua. 11:00. Ardanza.

Oñatiko lasterketa, abenduaren 16an

Aloña Mendi Arrikruz ziklo-kros taldeak gaur, egubakoitza, aurkeztuko du 2018-2019 denboraldian izango dituen txirrindulariak, eta klubak lasterketa antolatuko du abenduaren 16rako.

Entrenatzen hasita

Hain zuzen, taldeko ordezkariak –irudian– entrenatzen hasita daude dagoeneko.



Oñatiko ziklistak eguaztenean esprintak entrenatzen, San Martinen. X.U.



ARRASATE KANPANZAR ATLETIKO TALDEA

Gazteek zabalik dituzte ateak

ATLETISMOA Atletismo Eskolako lagunek hasi dute 2018-2019 denboraldia, eta dagoeneko 86 gaztek eman dute izena. Entrenamenduak hasi dituzte; oraingoz, egubakoitzero 60-70 neska-mutiko batzen dira Moiategin, eta ateak zabal-zabalik dituzte klubeko ordezkariak.



The greatest and second smallest circus in the world ikuskizuna eskainiko du Brunette Bross taldeak Arrizuriaga parkean. B. B.



Edurne Korta, Itxaso Azkarate eta Izaskun Labaien. TAUN TAUN

Udalarekin elkarlanean

1991 ezker antolatzen du, bi urtean behin, Txotxongilo Mostra Taun Taun taldeak, eta hastapenetatik du Bergarako Udalaren laguntza jaialdia antolatzeko. Taldeak eta Udalak artista handiekin osatzen duten jaialdia Bergaran egiteko apustuarekin jarraitu gura dute.

Panpinak bizirik, Mostra berrian

Urriaren 25ean, eguna, hasi eta domeka bitartean, txotxongiloekin, antzerkigintzan eta bestelako arlo artistikoetan trebeak diren nazioarteko zazpi talde izango dira Taun Taun taldeak bi urtean behin antolatzen duen Helduentzako Txotxongilo Mostran

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Danimarkatik, Ingalaterratik, Murtziatik eta Kataluniatik etorriko dira gonbidatuak, eta Euskal Herriko bi ordezkari ere izango dira: Iñaki Mata antzularra eta Pasaiko Behibi's.

Bereziki, helduentzat
Familian gozatzeko ikuskizunak badaude, nahiz eta hastapenetatik publiko helduari eskaintzea izan den asmo nagusia. Hamalagarren aldia Danimarkako Brunette Bros konpainiak za-

balduko du egunean, 20:00etan hasita, eta erdiguneko kaleak agertoki bilakatuta.

Lau egunetan izango dira Bergaran, eta Arrizuriaga parkean jarriko dute zirku kanpamentua. Egubakoitzean eta zapatuan,

19:00etan eta 22:00etan egingo dituzte emanaldiak, eta domekan, 12:30ean eta 18:00etan. "Eszenografia hiru agertoki dituen *CapaGrasa* kamioia da. 50 artistak osatzen dute lantaldea, eta, besteak beste, honako hauek irudikatzen dituzte euren saioetan: animalien erakusketa, kalitate mundialeko zirku denda, aire-printzesen eta kainoi-gizonen ariketa akrobatikoak... Kalean egingo duten emanaldian, hurrengo egunetan karpa barruan eskainiko dutenaren aurrerapentxoak izango da", azaldu dute Taun Taunekoek.

Arrizuriaga parkeaz gainera, Seminarixoa, gaztetxean eta kalean izango dira ikuskizunak. Aurreko aldietan moduan, askotariko teknikak eta istorioak batu gura izan dituzte antolatzailleek: hareazko marrazkiekin kontatutakoak, panpinak edo

bizia hartzen duten bestelako askotariko objektuak erabilita... "Jaialdi berezia da gurea. Mostreatik ez da inor axolagabe ateratzen, ez ikusleak, ezta kanpoko zein bertako artistak ere".

Ordainduta eta doan

Kaleko ikuskizunak doan izango dira, Arrizuriagakoak ere bai, baina gonbidapena behar da zirkurako; ikuskizuna baino ordu erdi lehenago banatuko dituzte, gehienez, 70 txartel.

Seminarixokoak eta gaztetxe-koak ikusteko, sarrera ordaindu egin beharko da: Seminarixorako hiru ikuskizuneko bonua 16 eurotan eskuratu ahal da, eta ikuskizun bakoitzeko, bestela, zortzi eurotan; gaztetxe-ko emanaldia, hiru eurotan. Gaztetxean, Seminarixoa eta *Tickets.kutxa-bank.es* atarian eros daitezke.

DEBAGOIENEN ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

GOIENA TELEBISTA

URRIAREN 25EAN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Oñati. Hiru logelako etxea erosiko nuke Oñatin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647 24 40 54

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Igo-gailurik gabea. Hilean 400 euro ordain ditzaket. Telefonoa: 674 92 20 70

Bergara. Hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. Beharrezkoa dugu igogailua. Presazkoa da. 637 52 89 83

Oñati. Mutil arduratsu eta euskaldunak etxebizitza hartu nahi du errentan, ahalik eta azkarren, Oñatin. Deitu telefono zenbaki honetara: 697 83 56 89

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ELGETA

Zerbitzaria behar da. 679 74 25 98

